

# Jakin153

martxo-apirila  
2006



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



KULTURASALA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## ZENBAKI HONETAN

**7**

### AGURRA

**9** Lerroz lerro, kolpez kolpe  
**ANDONI EGAÑA**

### GAI NAGUSIA Testuliburuak maileguan?

**13** Etorkizuna lerroartean  
Ikasliburuen doakotasuna eta  
euskal liburugintza sektorea  
**OLATZ OSA**

**41** Derrigorrezko eskolaldirako euskal  
curriculum eta testuliburuak  
**XABIER GARAGORRI**

**61** *Iritzi bilketa*: Doakotasuna eta mailegutza  
**ASKOREN ARTEAN**

### GAIK

**89** Curriculum eta testuliburuetakoa edukia  
**BEGOÑA BILBAO**  
**GURUTZE EZKURDIA**  
**KARMELE PEREZ URRAZA**

## EGUNEN GURPILEAN

**111** **JON BENITO**  
**PATXI GAZTELUMENDI**

© Jakin

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)

[www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)

---

2006ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	9,50 €
KANPOAN		
Harpidetza	48 €	—
Ale arrunta	8 €	11 €



## THE LENDING SYSTEM FOR TEXTBOOKS

### The future between the lines

Cost-free status of school books and the Basque book sector

Olatz Osa, director of the Elkar publishing house, situates her analysis in the context of the Ministry of Education of the Basque Government project for cost-free status of school books using the lending system. The author attempts to clarify the consequences that applying cost-free status to textbooks may have on different sectors and areas of culture, both in the book sector in general —publishing, marketing, bookshop networks— and in the education sector —the Basque Curriculum project. **OLATZ OSA**

### The Basque Curriculum for Compulsory Education and textbooks

Xabier Garagorri, a member of the Technical Office and Design Group of the Basque Curriculum for Compulsory Education, reflects on the conditions that should be met by the production of school books and materials which are essential for fulfilling the Basque Curriculum project. Garagorri considers that a funding system which weakens the Basque publishing sector will also affect the education project of the Basque Curriculum.

**XABIER GARAGORRI**

### Opinions regarding the lending system for textbooks

The magazine has been aimed at various people in charge of and professionals from the textbook sector, in order to gather together their opinions about the project involving cost-free status of textbooks using the lending system. Specifically, the questions which have been posed focus on the following three points: opinion about the cost-free status of textbooks; assessment of the different systems or possible mechanisms for introducing cost-free status; assessment of the damage and benefits brought about by applying the lending system to the book sector in general and to the development of the Basque Curriculum project. **VARIOUS AUTHORS**

## The curriculum and the content of textbooks

The professors Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia and Karmele Perez Urraza highlight the impact textbooks have on building a person's identity. Thus, the school curriculum is not a neutral construction, but rather is the vehicle for introducing cultural meanings and values. From this point of view, the authors analyse the social, cultural, geographical and political models and contents currently conveyed by textbooks in the Basque Country.

**BEGOÑA BILBAO / GURUTZE EZKURDIA / KARMELE PEREZ URRAZA**

## NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This issue we shall be closely following communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Patxi Gaztelumendi and Jon Benito. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 153. zenbakia da eta 2006. urteko bigarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean testuliburuaren inguruko auziari heldu diogu. Izan ere, iazko irailean PSEk Eusko Legebiltzarrean proposatu eta Hezkuntza Sailak indarrean jartzea agindu zuenez geroztik, testuliburuaren mailegu bidezko doakotasuna indarrean jartzeko proposamenaz hainbat eta hainbat iritzi plazaratu dituzte testuliburugintzarekin lotutako sektoreek. Eztabaida honetan orain arte ikusitakoagatik, itxuraz, testuliburuaren doakotasuna bermatu beharko lukeen mailegutza sistemak ez du alde guztien atxikimendua jaso. Besteak beste, argialetxeek, liburu-denden sareak, euskal curriculumaren egitasmoan inplikaturik daudenek... liburuaren sektorearentzako eta euskal curriculumarentzako arrisku larritzat jo dute proposamen horren onarpena.

Hiru atalek osatzen dute sail monografiko hau. Lehenik, Olatz Osaren eta Xabier Garagorriren artikulu bana datoz, eta auziari euskal liburugintzaren sektorearen eta euskal curriculumaren proiektuaren ikuspegitik begiratzen diote hurrenez hurren. Eta, ondoren, gaiaren inguruan burututako iritzi bilketa bat dator.

Lehen artikuluan, beraz, Olatz Osak sakon aztertzen du Hezkuntza Sailearen proposamenak euskal kulturaren hainbat esparrutan izango lukeen eragin kaltegarria. Horrela, Osaren aburuz, liburuaren sektore orokorrak —argialetxeak, banatzaileak, testuliburu egileak, liburu-dendak— eta euskal curriculumaren hezkuntza egitasmoak jasan beharko lituzkete proposamenaren ondorio larriak.

Bigarren artikuluan, Xabier Garagorrik euskal curriculumaren egitasmoaren ikuspegitik testuliburu eta ikasmaterialen ekoizpenak bete behar dituen baldintza orokorrez egiten du gogoeta. Izan ere, material horiek ezinbestekoak dira euskal curriculumaren egitasmoa indarrean jartzeko.

Testuliburugintzarekin gertatzen den guztiak dauka, beraz, eragin zuzena euskal curriculumean.

Sailaren bigarren atala osatzeko, Hezkuntza Sailaren proposamenaren eragina zuzenean jasoko luketen sektoreengana jo dugu iritzi eske. Honako auziak planteatu dizkiegu: doakotasuna bai ala ez; doakotasuna gauzatzeko formula edo sistemen balorazioa; mailegutza sistemak liburuaren sektoreari eta euskal curriculumaren garapenari ekarriko lizkiekeen onura eta kalteen inguruko gogoeta. Guztira zazpi iritzi bildu ditugu.

Bestalde, *Gaiak* sailean, Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urrazaren artikulua dator. Bertan, pertsonaren nortasunaren erakuntzan hezkuntza curriculumak daukan funtsezko eragina hartzen dute abiapuntutzat. Horrela, curriculumak ez da erakuntza neutral bat, kultur esanahi eta balioak eratzen eta hedatzen dituen tresna baizik. Artikulua-  
ren egileek, ikuspuntu horretatik, Euskal Herriko testuliburuek gaur egun erakusten dituzten eredu eta eduki sozialak, kulturalak, geografikoak, politikoak... aztertzen dituzte.

*Egunen gurgpilean* saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azkenaldiko berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Jon Benitok Literaturan eta Patxi Gaztelumendik Telepolisen. Bestalde, zenbaki honetan ez da Soziolinguistika atala osatu, baina aurrerantzean berriro ere agertuko da. ¶



## Lerroz lerro, kolpez kolpe

«Seminario» eta «mintegi»k  
erro bera nola duten  
barruan erne izanagatik  
kanporako grina nuen.  
Arantzazuko sentitzen naiz bai,  
ez guztiz Arantzazuren...  
lerrorik lerro, kolperik kolpe  
nire historia hemen:  
lehen arnasa hartu nuen nik  
hara kontuak zer diren...  
zintzilik jarritz, goxo jotako  
lau ipurdikon ondoren.

Sortu bezala iritsi nintzen  
hor nonbait bost urtetara  
azalberritu egin ninduten  
zabalduz lau haizetara.  
Matraileko bat eman zidaten  
orbaina hemen dut hara...!  
Zentsuran mina hiru urtean  
gainditua neukan jada.  
Okerragoa izan zen gero,  
iritsi zelarik Fraga  
hamairu urtekin eman zidaten  
lehenengo ukabilkada.

## ANDONI EGAÑAREN AGURRA

Ezdeus bihurtu ninduen Francok  
ez kanpoko ez etxeko  
garai haietan otsoak berak  
jartzen zuen hainbat zepo.  
Hamairu urtetik hogeit urtera  
desegin ninduten seko  
nerabezaro gabea naiz ni  
diktadorea tarteko...  
horrexegatik sentitu nuen  
horrenbeste bizkarreko  
idazmakinan jotzen ez nuen  
tekla-kolpe bakoitzeko.

Geroztik hainbat urtetan zehar  
irten izan naiz plazara  
betebehar bat sentitzen nuen  
eta ezin erdizka laga.  
Izanagatik bi-hiru muzin  
eta hainbat zangoztraba  
matrailekoa zein den ederra  
maite-maite baldin bada  
bizkarrekoa hartu liteke  
animo-igurtzi gisara  
ta tematien nahiz langileen  
ikur da ukabilkada.

Berrogeita hamar urte baditut  
egin dut bide luzea...  
letra beltzetan edertu nahian  
paper zurizko mihisea.  
Kokoteko bat kritikoa da  
nahi dudan kolpe klasea  
adieraziko bailuke zuen  
*Jakin min, Jakin gosea...*  
Helduaroan, baldin baneuka  
nengoke guztiz ase...  
begi-kolpe bat, begi-keinu bat,  
irakurle konplizea! ♪

# Testuliburuak maileguan?

- 13** Etorkizuna lerroartean  
Ikasliburuen doakotasuna eta euskal liburugintza sektorea  
**OLATZ OSA**
- 41** Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum eta  
testuliburuak  
**XABIER GARAGORRI**
- 61** *Iritzi bilketa:* Doakotasuna eta mailegutza  
**JUAN JOSE AGIRREZABALA**  
**JUAN CARLOS ALONSO**  
**JUANKAR ARETXABAETA**  
**JORGE GIMENEZ**  
**IÑAKI LEKUONA**  
**JESUS MARI OLAIZOLA «TXILIKU»**  
**KEPA TORREALDAI**

# Etorkizuna lerroartean

Ikasliburuen doakotasuna eta  
euskal liburugintza sektorea

**OLATZ OSA**

Elkar argitaletxeko zuzendaria

«Berze nazione guziek, zeinek bere lengoajean bezala, euskaldunak ere berea duentzat, zertan irakurtzen ikas ahal dezan...» idatzi zuen Joanes Leizarragak, XVI. mendean, *ABC edo christinoen instructionea* liburuan. XVI. mendekoak ditugu, hortaz, irakastera zuzendutako lehenengo liburuaren aztarnak.

Geroztik, gertakari sozio-politikoek guztiz baldintzatu dute euskarazko eskolaren jarduna, eta eskola liburuena. Ezin da eskola ikaslibururik gabe ulertu, baina ezta ere non eta nork irakatsirik izango ez duen ikaslibururik. Urte askotako ibilbide malkartsuaren ondoren, azken hiru hamarkadatan euskarazko irakaskuntzaren suspertzearekin batera, urrats nabarmenak egin dira ikasliburuen eskaintza-aniztasunean eta edukien kalitatean. Ez dira bost mende alferrik pasatu, eta, halaber, bost mende pasatu diren arren, idazle lapurtarren oinarri-oinarrizko hausnarketak bizi-bizirik dirau: beste nazio guztiek bezala, euskarazko irakaskuntzak kalitatezko ikasliburuak eta ikasmaterialak behar ditu, ezinbestean.

Egun, euskarazko ikasliburugintzaren etorkizuna kolokan jar dezaketen neurri eta erabaki batzuk hartzeko arriskua

dago. Ikusi batean, ezinezkoa dirudi egungo eskaintza eta kalitatea bertan behera jar dezakeen neurririk, eta areago, neurri administratiborik ezar litekeenik. Ez hori bakarrik, itxura batean erabiltzaileentzat eta gizartearentzat onuragarriak izan daitezkeen neurriez hitz egiten ari bagara. Horixe da, hain zuzen, mailegutza bidezko ikasliburuen doakotasunarekin gertatzen ari dena. Lehenengo begiratuan eta azalekoan, onurak eta abantailak baino iradokitzen ez dituen neurria dirudi, baina ondorioak aztertzen hasita, historian zehar debekuak eta izuak bultzatutako egoerara eramán gaitzake; euskarazko ikasliburuen desagertpena.

Eskolako ikasturte berri bat hasten den bakoitzean, ikasliburuei buruzko hainbat iritzi plazaratzen da han eta hemen. Ikasturte hasieran familiek eskola materiala erosten gastatzen duten diru kopurua, dirutza zenbaiten ustez, izaten da hizpide. Azken hilabeteotan, hala ere, ikasliburuen doakotasunak sortu du eztabaida. Hezkuntza Sailak datorren ikasturtetik aurrera abian jartzeko asmoa duen neurria da derrigorrezko hezkuntzako ikasliburuen doakotasuna. Neurri horrek, baina, egungo hezkuntza sistemaren zenbait oinarri eralda ditzake eta sakoneko galderak egitera bultzatzen gaitu: zer funtzio betetzen du ikasliburuak? Behar al da ikaslibururik? Doakoak izan behar al dute ikasliburuek? Guztientzat doakoak? Ez al da ezberdintasunik egin behar familia bakoitzaren urteko dirusarreraren arabera? Euskal hezkuntza sistemak zer-nolako ikasliburuak behar ditu? Zer-nolako pisua du ikasliburugintzak liburugintza sektorean? Zer-nolako ondorioak eragin ditzake sektore horretan doakotasunak? Administrazioaren eskuak sektorean eragin dezakeen hondamendiak justifikaziorik ba al du gizartean? Zer neurritan? Nori egiten dio mesede? Eta nori kalte? Ezer konpontzen al du?

Horiek eta beste hainbat galdera datozkigu auzi honen aurrean. Ondorengo orriotan ikasliburuen doakotasunari eta beronen aplikazioari buruzko argibide batzuk ematen saiatuko naiz. Eztabaida zerk eragiten duen, doakotasuna aplikatzeko zer aukera dagoen, nori ahalbidetzen duen ikaslibu-

ruak merkatuan eta hezkuntza komunitatearen eskura ego-  
tea, nola eta zer neurritan eragin dezakeen mailegutzak ikas-  
liburugintza sektorean, etorkizunak zer traza duen, etab.

Has nadin piskanaka.

Ikasliburua da hezkuntza-jardunean ikasleari ezagutzak  
garatzen, trebetasunak lantzen eta balioak barneratzen la-  
guntzen dion lan-tresna egituratu eta zehatzena. Ikaslibu-  
ruak funtsezko funtzioa betetzen du, beraz, ikasketa proze-  
suan, eta horrela ulertzen dut eta horrela ulertzen dute hez-  
kuntza komunitateak, ikasliburuen ekoizleek eta gizarteak  
berak ere.

Ikasliburuak gizartean betetzen duen funtzio soziala inork  
ez du zalantzan jartzen, baina horrek, arian-arian, ikaslibu-  
ruen doakotasuna eskatzera bultzatzen du hainbat erabil-  
tzaile eta eragile politiko. Derrigorrezko hezkuntzan (Lehen  
Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan) erabil-  
tzen diren eskola liburuek doakoak izan behar duten eta  
doakotasuna nola eta zer sistemaren bidez ezarri behar den,  
horrexek sortu du zeresana eta eztabaida.

Datorren ikasturtetik aurrera EAeko ikastetxeetan ikasli-  
buruen doakotasuna ezartzen has dadin urrats batzuk ema-  
ten hasi ziren Gasteizko Legebiltzarrean 2005eko urte amaie-  
ran, eta, geroztik, hainbat iritzi entzun dira han eta hemen  
gaiari buruz. Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen da,  
oraingoz, afera, Nafarroan ez baitute bertako Hezkuntza Sai-  
leko arduradunek berrikuntzarik aurreikusten, eta beste ho-  
rrenbeste esan liteke Iparraldeari dagokionean. Gogoratu be-  
har da ikasliburuen doakotasuna ezartzeko eskuduntza Erki-  
dego bakoitzak duela Hego Euskal Herrian, eta Akitania Es-  
kualdeko Kontseiluak, Pirinioetako Departamenduak edo  
Herriko Etxeek, ikasmailaren arabera, Ipar Euskal Herrian.

Eskola liburuen doakotasuna ezartzeko eskakizuna aspal-  
dikoa da. Guraso Elkartek izan dira, laurogeiko hamarka-  
datik hasita, eskakizun horren aitzindariak eta eragile nagu-  
siak. Baina ez da eskakizun isolatu bat, derrigorrezko ira-  
kaskuntzaren doakotasunaren eskakizunari guztiz lotzen

zaiona baizik. Eta gizartean behin eta berriz zeresana eman duen eztabaida hori zenbait herri-administrazioetan ere aztergai izan da.

EAERI dagokionez, Gasteizko Legebiltzarrean behin baino gehiagotan eztabaidatu dira eskola liburuen doakotasunari buruzko ez-legezko proposamenak, eta onartu ere bai, 2000. eta 2003. urtean bertan urrutirago joan gabe. Onartu ziren neurriak, hala ere, ez ziren inoiz abian jarri.

Geroztik, beste saiakera batzuk izan diren arren, 2005eko irailean ekin zitzaion berriz ikasliburuen doakotasunaren eztabaidari PSE-EE talde parlamentarioak aurkeztu zuen ez-legezko proposamen baten ondorioz. Azaroan, PSE-EE eta hirukoak (EAJ, EA eta EB) eskakizun bateratu bat luzatu zioten Hezkuntza Sailari, eta, eskari horrek jasotzen duenez, 2006ko martxorako Hezkuntza Sailak proposamen bat aurkeztu behar du Legebiltzarrean datorren ikasturtetik hasita (2006/2007) ikasliburuen doakotasuna zer eratarata eta zer-nolako finantzaketaren bidez aplikatuko den zehaztuko duena. Proposamena, baina, mailegutza sisteman oinarrituta egotea eskatzen zaio.

## Zein da unibertsoa

Ikasliburuen doakotasunari buruzko eztabaidaren nondik norakoetan sakondu aurretik, neurri horrek zein unibertsoari eragingo dion eta, beraz, zenbat ikasle eta irakasleri buruz hitz egiten ari garen zehazteak gaiaren garrantzia eta dimentsioa hobeto neurtzen lagunduko digu.

Ikasliburuen doakotasuna Derrigorrezko Hezkuntzan aplikatu nahi da, hots, Lehen Hezkuntzan (6-12 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (12-16 urte). Beraz, Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntza Ondorengoa, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa, erabaki horretatik kanpo geldituko lirateke.

2005eko matrikulazio datuei erreparatzen badiegu, 170.060 ikaslek osatutako unibertsoari eragingo lioke ikasliburuen

doakotasunak, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ikasten ari diren ikasleei.

2005/2006 ikasturtean Euskal Herrian Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten duen ikasle kopurua honela banatuta dago:

	<i>EAE</i>	<i>Nafarroa</i>	<i>Iparraldea</i>	<i>Guztira</i>
Lehen Hezkuntza	97.500	33.394	15.170	146.064
DBH	72.560	21.726	12.836	107.122
Guztira	170.060	55.120	28.006	253.186

Ikastetxeei dagokienez, aipatu 170.000 ikasle horiek 785 ikastetxetan ikasten dute, sare publiko zein sare pribatuko ikastetxeetan. Euskal Herrian Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe kopurua honakoa da:

	<i>EAE</i>	<i>Nafarroa</i>	<i>Iparraldea</i>	<i>Guztira</i>
Lehen Hezkuntza	445	202	284*	931
DBH	340	88	39	467
Guztira	785	290	323	1.398

\* Sailkapenak egiteko datu zehatzagorik ez, eta *Eskola* guztiak hartu dira kontuan; hau da, Ama eskolak eta Lehen mailako eskolak.

## Mailegutza: eztabaidaren gakoa

Eskola liburuen doakotasunaz hitz egiten da, baina eztabaida ez du doakotasunak eragiten. Aitzitik, sektore ezberdinetatik entzun diren ahotsek bat egiten dute puntu batean, hau da, inor ez da ageri doakotasuna aplikatzearen kontra. Afera, beraz, doakotasuna aplikatzeko moduak edo sistemak sortzen du. Argialetxeen, Guraso Elkarteen, liburu sortzaileen, liburu-dendetako arduradunen, ikastetxeen eta beste hainbat sektoreren iritzi bat edo beste entzun dugu gai horren gainean. Esan bezala, inor ez da agertu doakotasuna aplikatzearen kontra, baina hautsak harrotu baditu, mailegutza sistemaren bidez aplikatu behar horrek harrotu ditu. Beraz, aplikazio sisteman dago gakoa; ezadostasuna eta kezka mailegutzak eragiten ditu.



## Zer da mailegutza?

Hitzak berak adierazten duen bezala, maileguan jasoko ditu ikasleak ikasturte bakoitzean behar dituen eskola liburuak eta ikasturtea amaitu ondoren ikastetxeari bueltatuko dizkio, izatez ikastetxearena baita liburu horren jabetza. Irakurketa zorrotz bat eginda, mailegutza ez da, berez, doakotasuna, liburuaren jabetza ez baita ikaslearena, ikastetxearena baizik. Mailegutza sistemaren arabera, ikastetxeak kudeatuko ditu ikasliburuak: erosketak, mailegutzan emateko antolaketa eta gordailu lanak.

Mailegutza sistemaren bidez erosten den liburua lau urtean erabiliko da; lau urteko zikloa beteko du, hortaz, liburu bakoitzak, eta ziklo hori amaitzean eskuratuko dira liburu berriak. Ikasliburuak erosteko dirua horretarako eskumena duen administrazioak emango dio ikastetxeari; EAERI dagokionean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, eta inoiz Nafarroan aplikatzea proposatuko balitz, Nafarroako Gobernua. Iparraldeari dagokionean, ikasmailaren arabera, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, Pirinioetako Departamenduak edo Herriko Etxeek hartzen dute bere gain.

## Ba al dago beste sistemarik?

*Laguntza zuzena* deiturikoa da doakotasuna aplikatzeko beste aukera. Kasu horretan laguntza ikasleari edo familiari ematen zaio zuzenean eta familiarena da irakasleak/ikastetxeak aukeratutako liburua erosteko ardura eta baita liburuen jabetza ere. Laguntza zuzena hainbat modutan bidera daiteke, beka sistema bidez, familia bakoitzari txeki bat eman ez edo Errenta Aitorpena egiterakoan kitapena eginez, kasu.

## Gaur egungo egoera

Gaur-gaurkoz Hego Euskal Herrian familiek erosten dituzte zuzenean ikasliburuak. Irakasleak/ikastetxeak agindu-

tako liburua egoki deritzon liburu-denda edo saltokian erosten du, eta ikasturtea bukatzen denean liburua ikasleak eramaten du etxera, berea baita jabetza.

Herri-administrazioetatik diru-laguntzak edo bekak banatzen zaizkie familiei ikasliburuak erosteko gastua arintzeko. Hainbat udal-administraziok ematen dituzten laguntzez gain, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak urtero diru kopuru garrantzitsua bideratzen dute beka edo diru-laguntza horietan. EAEn derrigorrezko hezkuntzan (LH eta DBH) diharduten hiru ikasletik batek dirulaguntza jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren eskutik (55.000 ikasle), hau da, guztira urtero 6.000.000 € inguru banatzen zaie LH eta DBHko ikasleei, ikasliburuak erosteko. Nafarroako Gobernuak ere urtero ematen ditu *testuliburuak eta eskola materiala erosteko laguntzak*. 2005ean, 572.000 € banatu zituen diru-laguntza horietan (ikasleko 100 eta 125 € bitartean), eta, honela, 5.700 ikaslek jaso zuten diru-laguntza, ikasleen %10,5ek.

Ipar Euskal Herrian mailegutza sistema dago indarrean azken urteotan. Ikasliburua ikastetxearena da; beraz, ikasturtea amaitzen denean ikastetxeari itzultzen zaio liburua. Ikasleak, hala ere, berme bat jartzen du ikasturte hasieran liburua jasotzen duen mementoan, eta ikasturte amaieran liburua itzultzen ez badu edo egoera guztiz kaskarrean itzultzen badu, ez zaio bermea bueltatzen.

Iparraldean, hala ere, nabarmena da euskarazko ikasliburuen eskasia. Salbuespen bakan batzuk izan ezik, ez dago derrigorrezko edukiak biltzen dituen euskarazko ikaslibururik, eta euskaraz daudenak liburu osagarriak dira, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzekin erositakoak. Sistema zentralizatuan, bada, mailegu bidezko doakotasunak euskarazko liburuen erreferentzialtasun eza dakar.

## Euskarazko ikasliburuak eta liburugintza sektorea

Ikasliburuak guztion eskura baldin badaude, beroriek ekoitzi eta merkaturatzen dituen sektore bat dagoelako da.

Liburugintza industria dago ikasliburuen atzean. Eta euskarazko liburugintzaren kasuan, industria euskarazko irakas-kuntzaren harira sortu da, haren behar eta gabeziei erantzun nahian. Funtsezkoa da ezagutzea liburugintza sektorea —ikasliburugintza kasu honetan— zeinek osatzen duten, horren dimentsioa zenbatekoa den eta nola funtzionatzen duen, mailegutza onorioak eta eragina hobeto ulertzeko.

Euskarazko ikasliburugintzari jarriko diogu arreta. Badakigu jakin Hego Euskal Herrian gaztelaniazko ikasliburuak ere ekoizten eta merkaturatzen direla. Doakotasunak, gainera, ez du hizkuntzaren arabera bereizketarik proposatzen, berdin aplikatuko litzateke euskarazko zein erdaretako ikasliburuetan; baina, aurrerago ikusiko dugunez, zenbat eta merkatu txikiagoa, mugatuagoa eta ahulagoa izan, orduan eta ondorio kaltegarriagoak eragingo ditu mailegutza sistemak.

Begi bistakoa da azken 25 urte hauetan izugarritzko aurre-rapausoak eman direla euskarazko ikasliburuen eskaintza kopuruan eta kalitatean. Hutsuneak hutsune, gaur egun derrigorrezko ikasgaietako ikasliburuen zein eduki osagarriak eskaintzen dituzten liburuen titulu kopurua asko hazi da duela hiru hamarkada zegoen kopuruarekin alderatuta, eta, batez ere, liburu horien kalitatea eta erakargarritasuna hobetu da nabarmen. Eta horrek bere isla izan du hezkuntzaren kalitatean, ez bairik gabe.

Azken urteotan, euskaraz urtero 1.500 titulutik gora argitaratu da, liburu berriak eta berrargitalpenak barne. 2004an, adibidez, 1.584 titulu argitaratu ziren (Precisa, «VIII informe de la edición en Euskadi. Comercio interior», 2004) eta horietatik %42,30 ikasliburuak izan ziren, alegia, 670 titulu. Era berean, ikasliburu horietatik 294 titulu Lehen Hezkuntzako liburuak izan ziren eta 172 titulu DBHri zegozkion. Hau da, doakotasunak liburugintza osoaren %29,42ri eragingo lioke.

Ale kopurua kontuan hartzen badugu, liburugintza osoarekiko ikasliburugintzaren pisua are eta handiagoa da; hots,

2004. urtean, %57,40koa. Doakotasuna aplikatuko litzatekeen mailetako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikasliburuen pisua ere handitu egiten da; hau da, %37,18 suposatzen dute (1.321.000 ale). Horrek guztiak esan nahi du ikasliburuen tiradak handiagoak direla euskarazko beste liburuen tiraden aldean.

Fakturazioari dagokionean, ikasliburuek euskarazko liburu ekoizpen orokorraren %68,07 suposatzen dute (20.502.000 €); Lehen Hezkuntzako eta DBHko liburuek, berriz, %40,9, zenbaki osotan 12.321.000 €.

	Tituluak	%	Aleak	%	Fakturazioa (€)	%
Literatura- -bestelakoak	914	57,70	1.492.000	42,60	9.616.000	31,93
Ikasliburuak	670	42,30	2.010.000	57,40	20.502.000	68,07
Lehen Hezkuntza	294	18,56	838.000	23,93	6.260.000	20,78
Bigarren Hezkuntza	172	10,86	464.000	13,25	6.061.000	20,12
Besteak	204	12,88	708.000	20,22	8.181.000	27,17
Guztira	1.584	100	3.502.000	100	30.118.000	100

Ikasliburuen sorkuntzak, beste edozein libururen ekoizpenarekin alderatuta, profesional gehiagoren parte-hartzea eta talde-lana eskatzen du. Parte-hartze anitzeko jarduna da ikasliburugintza, hezkuntza sistema osoa ukitzen duena. Argitaletxeen proiektu bakoitzaren atzean aholkulari pedagogikoak, testuen egileak, itzultzaileak, marrazkilariak, editoreak, diseinatzaileak eta beste hainbat profesional biltzen da, eta, begien bistakoa denez, ikasliburuen ekoizpen kostuak ere, bestelako liburuen kostuekin alderatuz, askoz ere handiagoak dira.

EEEk emandako datuak aintzat hartuta, ikasliburu txiki bat (60 orrialdeko liburua) argitaratzeko egin beharreko gutxieneko gastua 25.000 € ingurukoa da. Euskarazko ikasliburuen batez besteko salmenta, berriz, urtean 2.500 alekoa da. Alegia, euskarazko ikasliburu bat argitaratzeko egiten den inbertsioa, batez beste, lau urteko salmentarekin kitatzen edo berdintzen da. Ikus ditzagun datu gehiago.

<i>Orrialdeak</i>	<i>Inbertsioa</i>	<i>Salneurria</i>	<i>Saldu beharreko aleak</i>	<i>Zenbat urtean berreskuratu</i>
60	23.000	4,25	9.020	3,6
148	55.000	13,5	6.790	2,7
348	125.000	24,5	8.500	3,4

- Taulan azaltzen diren zenbakiak gutxi gorabeherakoak dira, ez dira zehatz-mehatz kontuan hartu behar, liburu guztiek ez baitute lan bera eta, beraz, kostu bera, ez eta prezio eta salmenta kopuru bera ere. Batez beste-koak erabili ditugu orientagarri izan daitezen.
- Liburu bakoitzeko sare komertzialak (banatzaileak/liburu-dendak) prezioaren %40 jasotzen du ikasliburuaren kasuan; beraz, argitaletxeak salmenta prezioaren %60 eskuratzen du sarrera moduan. Hortik ordaintzen ditu liburuaren kostuak.
- Iturria: EEE eta Euskadiko Editoreen Elkarte. *Testuliburuaren doakotasunari buruzko txostena*.

Gaur egun, zortzi argitaletxe ari dira euskarazko ikasliburuak argitaratzen. Horietatik erdiak Estatu espainiarreko argitaletxe handiagoen sukurtsalak dira, eta liburu gehienak erdarazkoen itzulpenak edo moldaketak izaten dira. Argitaletxeen ekoizpen lan horretan, sortzaileetatik hasi, zuzentzaile, itzultzaile, ilustratzaile, diseinatzaile, editore, pedagogia aholkulari eta abar kontuan izanik, 300 bat lagun ari dira lanean argitaletxeetako langile gisara edo kontratatuta, batzuk egun osoko lan-jardunarekin, eta beste batzuk egun erdiz edo orduka.

Lau banatzaile ari dira egun Euskal Herrian ekoizten dena liburu-dendetara banatzen, eta guztira 785 liburu-denda inguru daude aipatutako ekoizpena saltzeko. Liburu-denda horietatik %5 inguru salgune handiak dira.

## Ikasliburuaren sorkuntza sustatzeko diru-laguntzak

1982. urtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EIMA izeneko programa jarri zuen abian unibertsitate aurreko euskarazko ikasmateriala sortu, argitaratu eta sustatzeko. Laguntza programa horiek sortzeko arrazoiak bi izan ziren: alde batetik, laurogeiko hamarkadako euskarazko ikasmaterialaren eskaintza mugatua eta urria kontuan izanik, guztiz premiaz-

koa zen euskarazko irakaskuntzaren garapenerako ikasmaterial gehiago sortzea eta argitaratzea; eta, bestetik, diru-laguntzen bidez lor zitekeen euskarazko ikasliburuak ekoizteak zuen kostu altua jaistea. Alegia, euskarazko merkatua askoz ere txikiagoa izanik, euskarazko ikasliburuaren ekoizpen kopurua (tirada) ere txikiagoa zen; eta da, beraz, liburu ale bakoitzeko produkzio kostua asko handitzen zen/da. Bi aukera zeuden/daude horren aurrean: liburuaren salneurria garestitzea, edo, diru-laguntzen bidez, merkatuan beste hizkuntzetan dauden produktuen prezioarekin berdintzea.

Pentsatzekoa da, azken bi hamarkada hauetan euskarazko ikasliburuaren eskaintza eta kalitatea asko ugartu eta hobetu izana, laguntza horien eta argitaletxeen ahaleginaren emaitza dela. Egia da EIMA programaren laguntza premiazkoa dela oraindik ere, eta pentsatzekoa da aurrerantzean ere horrela izango dela, merkatuan dauden erdarazko produktuen prezioekin lehiatzeko. Euskarazko merkatuak mugatua izaten jarraitzen du, liburuiko ekoizten den ale kopurua txikia da eremu handiko hizkuntzetako tirada kopuruekin alderatuta, eta, beraz, are eta altuagoa litzateke euskarazko liburuaren salmenta-preziora laguntza horiek gabe.

EIMA programa ikasliburuaren sorkuntzari eta garapenari laguntzeko abiatu zen, baina teknologia berriak eta merkatu premia berriak sortuz joan diren neurrian, EIMA programak ere arlo gehiagotarako laguntza eman du. Horrela, EIMA I programak ikasmaterial inprimatuak argitaratzeko laguntzak ematen ditu, EIMA II programak ikus-entzunezko ikasmaterialak argitaratzeko, EIMA III programak Hezkuntza softwarerako materiala argitaratzeko laguntza ematen du eta EIMA IV programak ikasmaterialak prestatzen diharduten lantaldeentzako diru-laguntzak ematen ditu.

Ikasliburuaren argitalpenean laguntzen duen EIMA I programaren bidea honako hau da —ez ditut urte guztietako kopuruak bildu, hamarkada bakoitzean emandakoak soilik, garapena ikusteko; hala ere, laguntza horiek urtero eman dira—:

1982	1992	2002	2005
114.685 €	420.708 €	843.821 €	832.487 €

## Doakotasunaren kostua

Diru publikoa kudeatu behar duen administrariaren lehen eginkizuna, dirua zertan enplegatuko duen, zer erabilera sozial emango dion, laguntzak zein irizpideren baitan banatuko dituen eta proiektu bakoitzean zenbat diru enplegatuko duen zehaztea da. Eta, nahiz eta irizpide egokietan oinarritutako diru kudeaketa zuzenak ematen diren, behin baino gehiagotan ikusi ditugu prozedura horien arteko desorekak, irizpideak ezarri ondoren nahiko dirurik ez izatea, irizpideak aurrekontuaren baitan zehaztea, irizpiderik gabeko diru banaketak...

Ikasliburuen doakotasunak, aplikazio ereduaren arabera, diru kopuru handiak eskatuko dituenez, irizpideak aurrekontuen arabera zehaztea ekar dezake. Alegia, aurrekontuak agindu dezake doakotasuna zein neurriren arabera aplikatu. Arrisku hori, bederen, badago. Lehenengo korapiloa, doakotasuna ikasle guztiei ezarriko zaien edo laguntza mailakatua aplikatuko den, irizpide horretan dago. Irizpide guztiz politikoa da, familia bakoitzaren urteko errentaren arabera, lehen-tasunak premia gehien dutenengan ezarri edo guzti-guztientzat irizpide bera aplikatu. Behin korapilo hori gaindituta, doakotasuna guztiei aplikatzea erabakitzen den kasuan, bigarren ataka batekin aurkituko gara, hots, doakotasuna urteroko guzti-guztiek ezartzeko diru nahikorik jarriko du administrazioak, edo itxura batean diru gutxiago eskatuko duen sistemaren alde joko da «aurrekontuak hala eskatuta»?

Doakotasuna mailegutza sistemaren bidez aplikatu edota zuzeneko laguntzen bidez bideratu, sistema bakoitzak zenbateko kostua suposatuko duen ikusiko dugu jarraian. Horretarako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako haur eta ikastetxe kopurua hartu da kontuan, eta baita maila bakoitzerako ikasliburuen prezioa ere; hau da, Lehen Hezkuntzako liburuen kasuan 90 €ko prezioa har-

tu da kontuan eta DBHko liburuei dagokienean 120 €koa. Datu horietan oinarrituta, ikasliburuen guztizko balioa zenbatekoa den ikusiko dugu lehenik eta behin, eta baita mailegutza eta laguntza zuzenak aplikatzeak, hurrenez hurren, zenbateko kostua izango lukeen ere.

Doakotasuna aplikatzeko dauden sistema ezberdinen kostuak kalkulatzeko, eta berorien arteko konparaketak egin ahal izateko, lau urteko zikloa hartu dugu kontuan. Mailegutza sistema lau urterako planteatzen denez, denbora ziklo horrek emango digu sistema horrek dirutan suposatuko duen guztizko gastua. Ondorioz, eta konparaketak balekoak izan daitezten, laguntza zuzenaren bidezko doakotasunaren kostua ere denbora tarte berdinerako kalkulatu da.

Abiatzeko, egun EAEn dagoen ikasle kopurua kontuan hartuta, ikasle horientzako behar diren liburuen balioa zenbatekoa den jasotzen da ondorengo taulan. Kopuru horrek egungo sistemaren neurria zenbatekoa den ikusteko balio digu. Hain zuzen, lau urteko denboraldian zenbateko kostua suposatzen duten Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako liburuek (ikus Taula I, artikularen amaieran; lan honetako taula batzuen eredia Everest argitaletxetik hartu da).

Mailegutza sistemaren kostua kalkulatu dugu jarraian. Mailegutza sistemak maila bakoitzeko liburuak lau urtean behin berrituko direla esan nahi du. Beraz, maila bateko liburu urte batean erosiko da, eta ez da berriro erosiko lau urte igaro arte. Hala ere, liburu batzuk hondatu egingo direla kontuan hartuta, pentsatzekoa da urte bakoitzean liburu gutxi batzuk berriztatu egin beharko direla, nahiz eta lau urte, teoriaz berritzea dagokion data, artean ez bete. Hondatu eta, beraz, berritu beharreko ale kopurua zenbatekoa izango litzatekeen ez dago jakiterik, baina ehuneko bat kalkulatu behar, eta bi hipotesi egin ditugu: %10ean edo %15ean berriztatu beharko direla liburu horiek. Ondorengo taulatan, behin mailegutza ezarrita dagoela, urte bakoitzean liburu horien erosketak eta liburu hondatuak ordezkatzeko suposatuko duen gastua jasotzen da.



Lehen zikloko liburuak ez direla mailegatuko aurreikusi dugu; izan ere, lehen zikloko bi mailetan ikasleak liburuan bertan egiten dituzte ariketak, eta ez dira egoten hurrengo urtean beste haur batek erabiltzeko moduan (ikus Taula II eta III, artikuluaaren amaieran).

Mailegutza sistema aplikatzeak, liburu erosketa gastuaz gain, bestelako gastu batzuk ere eragingo ditu; kudeaketa gastuak, hain zuzen: liburu antolaketa guztia burutuko duen langileen gastua, kudeaketarako jarri beharko diren azpiegituren gastua, biltegia, sistema informatikoa... eta fotokopiak. Mailegutzak fotokopien erabilera asko areagotu dezake, eta horrek ere gastuak sorraraziko dizkio ikastetxeari. Ez dago garbi gestio gastu horiek nork hartuko dituen bere gain, ikastetxeek edo Eusko Jaurlaritzak. Edozein modutan, mailegutza sistemaren gastuaren baitan kokatu behar da gestioa, liburu erosketarekin batera.

*Mailegutzak eragingo dituen kudeaketa gastuak*

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	Guztira (4 urte)
Ikasleak	170.060	170.060	170.060	170.060	
Ikastetxeak	785	785	785	785	
Lang. gastuak	5.102.500 €	5.102.500 €	5.102.500 €	5.102.500 €	
Mantenua, sist. inform.	47.100 €	47.100 €	47.100 €	47.100 €	
Fotokopiak	1.530.540 €	1.530.540 €	1.530.540 €	1.530.540 €	
	6.668.140 €	6.668.140 €	6.668.140 €	6.668.140 €	26.720.560 €

Honako kontzeptu eta kopuruak hartu dira kontuan gestio gastuak kalkulatzeko:

- Kudeaketan arituko diren langileen gastuak ikastetxeko eta urteko: 6.500 €.
- Mantenu gastuak ikastetxeko eta urteko: 60 €.
- Fotokopia gastuak ikasleko eta urteko: 9 €.

Txeke edo laguntza sistema zuzenaren bidez zenbateko gastua egingo litzatekeen ikusiko dugu jarraian. Laguntza sistema aplikatzeko modu ugari egon litezke, ikasle guztiei liburuaren kostu guztia ordaintzetik hasi edo familiak urtean

duen dirusarreraren arabera laguntzeraino. Kasu bakoitzean zer-nolako diru kopurua beharko den kalkulatu dugu hurrengo tauletan. Familien diru sarreraren arabera kalkulatzeke, urtean 20.000 €tik beherako errenta edo dirusarrerak dituztenak hartu ditugu kontuan (EAEn %55 gutxi gorabehera). Bigarren hipotesi bezala, 25.000 €tik beherako dirusarrerak dituzten familiak hartu ditugu (EAEn %70 inguru). Hirugarren kalkulua 30.000 €tik beherako sarrerak dituztenekin egin dugu (EAEn %83). Ikus dezagun kasu bakoitzean zer-nolako diru kopurua beharko den (ikus Taula IV, artikuluaaren amaieran).

*Doakotasuna aplikatzeko sistema ezberdinen kostuen laburpena*

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	Guztira
<i>Ikasliburuaren balioa</i>	17.482.200	17.482.200	17.482.200	17.482.200	69.928.800
<i>Mailegutza %10</i>	8.308.950	6.935.460	7.005.930	8.118.870	30.369.210
Kudeaketa gastuak	6.680.140	6.680.140	6.680.140	6.680.140	26.720.560
	14.989.090	13.615.600	13.686.070	14.799.010	57.089.770
<i>Mailegutza %15</i>	8.818.575	7.521.390	7.587.945	8.639.055	32.566.965
Kudeaketa gastuak	6.680.140	6.680.140	6.680.140	6.680.140	26.720.560
	15.498.715	14.201.530	14.268.085	15.319.195	59.287.525
<i>Txekea &lt; 20.000 €</i>	9.615.210	9.615.210	9.615.210	9.615.210	38.460.840
<i>Txekea &lt; 25.000 €</i>	12.237.540	12.237.540	12.237.540	12.237.540	48.950.160
<i>Txekea &lt; 30.000 €</i>	14.510.226	14.510.226	14.510.226	14.510.226	58.040.904
<i>Txekea guztiei %100</i>	17.482.200	17.482.200	17.482.200	17.482.200	69.928.800

Mailegutza sistemaren kostua asko hurbiltzen da ikasle guzti-guztiei ikasliburuak doan emateak duen gastura. Alegia, familien %83ri liburuak doan emateak eta mailegutza bidezko sistemak kostu berdina izango lukete. Sistema batek eta besteak eragiten dituzten ondorioak guztiz ezberdinak dira, ordea. Jarraian ikusiko dugunez, laguntza zuzenak ez be-

zala, mailegutzak ondorio guztiz kaltegarriak eragin ditzake liburugintza sektorean eta baita hezkuntza komunitatean ere.

## Mailegutza eta horren ondorioak

Mailegutzak bost eremutan eragin ditzake kalteak:

- Ikasliburuen ekoizpenean bertan, ikasliburuak desageraraziz.
- Liburugintza industrian, ikasliburuek liburugintzan duten pisu eta eraginagatik.
- Salmenta katean, liburu-denden bideragarritasuna ahulduz.
- Ikastetxeetan, kudeaketa zereginak bere gain hartu beharagatik.
- Ikasle/irakasle eta hezkuntza komunitate osoan, ikasketa prozesuan sor ditzakeen aldaketengatik eta *Euskal Curriculumaren* garapenean izan dezakeen eraginagatik.

## Euskaraz hemen sortutako ikasliburuen desagerpena

Argitaletxeak behin eta berriz ari dira esaten mailegutza aplikatuko balitz euskarazko ikasliburuak ekoizteari uzteko benetako arriskua dagoela. Alegia, euskarazko ikasliburuak ez direla mantengarri izango, ez dela ikasliburuak ekoizteak eskatzen duen ahalegin ekonomikoa errentagarria izateko adinako merkaturik egongo, eta, beraz, ikasliburuak egiteari utziko diotela bertako argitaletxeek. Zuloa zuloaren atzetik ekarriko duen jarduera izango dela, eta ezin izango diotela argitaletxeek ekoizteari eutsi. Zergatik, baina?

Arrazoia agerikoa da. Mailegutzak, azken batean, merkaturua lau aldiz txikitzen eramango du. Hau da, orain urtero saltzen dena mailegutza bidez lau urtean behin salduko da (hondatzen diren liburu batzuk soilik berriztatuko dira

urtero, eta hori, gehienez ere, egungo salmenta indizeen %15 izan liteke). Eta euskarazko ikasliburuaren ekoizleek, euskal argitaletxeek ezin dute hemen galtzen duten merkaturua beste nonbait berreskuratu. Hemen sortzen diren libururuak hemen soilik sal daitezke; beraz, alferrik da merkatu berriak bilatzeko ahaleginik egitea. Hortaz, berez mugatua den merkaturua are gehiago mugatuko da, eta orain justu-justuak diren bideragarritasun indizeak, diru-laguntzen babes behar dutenak gainera, mantendu ezinekoak bilakatuko dira neurri horrekin.

Beste modu batera esanda, lehen azaldu dugunaren ildotik, gaur egun ikasliburu baten ekoizpen inbertsioak kitatzeko hiruzpalau urte behar baldin badira, mailegutza sistemaren bidez lau aldiz denbora gehiago beharko da, hamasei urte alegia. Pentsatzekoa denez, nekez ausartuko dira argitaletxeak itzulezinak diren inbertsioak egitera; eta, beraz, euskarazko ikasliburuaren ekoizlerik ez da egongo, argitaletxeek utzi egingo diote zeregin horri.

Liburugintza, eta ikasliburugintza kasu honetan, beste edozein produkturen ekoizpenaren antzera, jarduera kate bat da. Sortzaileak, testugileak, marrazkilariak, zuzentzaileak... egile guztiek dute editorearen beharra, eta, alderantziz, editoreak ere egileen beharra du liburua ekoizteko. Baina produktua merkaturatzeko aukerarik izan ezean, salmentarik egin ezean, egileak utzi egingo dio edukiak lantzeari eta ezin bizi izango da jarduera horrekin. Zertarako sortu, ondoren argitaratzeko aukerarik ez badago?

Argitaletxeek ikasliburuak egiteari utzi beharko baliote, pentsatzekoa da lanpostu asko jarriko litzatekeela kolokan. Esan dugu egun 300 bat profesional ari dela ikasliburugintzan era bateko edo besteko lana egiten. Horietatik laurdena inguru argitaletxeetako langileak dira, eta horietaz gain, beste marrazkilari, sortzaile, argazkilari, diseinugile... asko eta asko ari da autonomo gisara argitaletxeentzat lanean. Mailegutzak, beraz, lan arazo garrantzitsua eragingo luke profesional kualifikatu asko eta askorentzat.

## Liburugintza industriari kolpea

Euskarazko ikasliburuek urteko liburugintza produkzio osoaren erdia suposatzen dute titulu kopuruari dagokionez eta erdia baino gehiago, %68, urteko fakturazioari dagokionez. Ikasliburugintza da, beraz, euskarazko liburugintzaren motorra eta liburugintza industriaren oinarri sendoena. Mailegutza erdira jaitsiko luke liburugintza sektorearen inbertsio ahalmena ere, eta, egun, ahalegin handiarekin eta asko arriskatuz ekoizten den liburu askok ez luke argirik ikusiko ekoizpen etxeen ahuleziagatik. Merkatua lau aldiz murriztuko zaion sektoreak, krisi nabarmena pairatuko duen industriak, nekez helduko dio, honela, egunez egun sortzen diren premia eta erronka berriei.

Gaur egungo fakturazio kopuruekin alderatuz gero, mailegutza sistemak %56,35 eta %53,19 arteko fakturazio galera eragingo luke, hondatutako liburuen portortzioaren arabera.

### *Hondatutako liburuak %10 ordezkaturata*

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	Guztira
Ikasliburuen balioa (€)	17.394.900	17.394.900	17.394.900	17.394.900	69.579.600
Mailegutza %10 (€)	8.308.950	6.935.460	7.005.930	8.118.870	30.369.210
Galera (€)	9.085.950 %52,23	10.459.440 %60,13	10.388.970 %59,72	9.276.030 %53,33	39.210.390 %56,35

### *Hondatutako liburuak %15 ordezkaturata*

	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	Guztira
Ikasliburuen balioa (€)	17.394.900	17.394.900	17.394.900	17.394.900	69.579.600
Mailegutza %15 (€)	8.818.575	7.521.390	7.587.945	8.639.055	32.566.965
Galera (€)	8.672.262 %49,30	12.224.106 %56,76	12.224.106 %56,38	11.232.921 %50,33	44.353.395 %53,19

Kontuan izanik Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako liburuen pisua liburugintza orokorrarekiko %40,90ekoa dela, eta kontuan hartuta mailegutza liburu horien egungo fakturazioan %56,35 eta %53,19 arteko ga-

lerak eragingo dituela, oro har, euskarazko liburugintzaren fakturazioan %23,04 eta %21,75 arteko galera ekarriko du.

	<i>Ikasliburuen fakturazio galera</i>	<i>Euskarazko ikasliburuen pisua</i>	<i>Liburugintza orokorraren galera</i>
Mailegutza %10eko berriztapena (4 urtean)	%56,35	%40,90	%23,04
Mailegutza %15eko berriztapena (4 urtean)	%53,19	%40,90	%21,75

Mailegutza sistemak edozein merkatutan eragingo lituzke kalteak, hots, euskarazko liburugintzan ez ezik, erdarazko merkatuetan ere bai. Baina ikasliburugintzak liburugintza orokorrarekiko zenbat eta pisu gehiago izan, orduan eta ondorio bortitzagoak eragingo ditu. Euskarazko ikasliburugintzaren pisua askoz ere handiago da gaztelaniazkoak hizkuntza horretako liburugintza orokorrarekiko suposatzen dutenaren aldean. Estatu espainiarrean, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako liburuen pisua %15,8koa da (gogoratu EAEn %40,90ekoa dela); eta, beraz, mailegutza ondo-rio ekonomikoak liburugintza orokorrarekiko garrantzi-tsuak izan arren, ez dira euskarazkoaren adinakoak izango. Hala, euskarazko liburugintza orokorra %23 inguru jaitsiko da, baina Estatu espainiarrean liburugintza orokorra %9,18.

## Liburu-denden bideragarritasuna kolokan

Liburu-denden Elkarten esanetan, ikasliburuen salmentek denden urteko fakturazioan %40tik gora suposatzen dute. Kopuru oso altua da sarrera hori gabe gelditu eta ezer gertatu ez balitz bezala berdin funtzionatzeko. Liburu-denda askorentzat mailegutza sistemaren eraginez orain urtero saltzen dutena lau urtean behin saltzeak etorkizuna kolokan ipin dezake: salmenta jaitsiera hori erabakigarria izan liteke liburu-dendek lanean segitu edo ez erabakitzeko, eta saltzaile askok fakturazio galera horri ezin eutsita ixtea erabaki dezakete.

Baina salmentak nabarmen jaisteaz gain, beste aldaketa batzuk ere eragin ditzake mailegutza sistemak salmenta sarean:

ikasliburuak liburu-dendei erosi orde zuzenean argitaletxei erosteak, liburu-denden bideragarritasuna kolokan jartzeaz gain, komertzializazio sare osoa ahuldu dezake. Ikastetxeak harreman zuzena izango du argitaletxearekin, kudeatze lanak aurrezteaz gain, onura ekonomiko batzuk ere nahiko ditu; eta, ikastetxeak liburuak erosteko liburu-dendetara jo beharrik izango ez duenez, salmentagunea ez ezik, banatzaileak ere, jada, ez dira ezinbestekoak izango. Horrek guztiak nabarmen eragin dezake liburu-denden irudian ere, produktu garesti eta ez beharrezkoekin identifika baititzake jendeak.

Komertzializazio sare sendoa eta egituratua izatea guztiz garrantzitsua da liburuaren etorkizunerako. Zenbat eta komertzializazio gune gehiago eta eraginkorragoak izan, banatzaileen zerbitzua zenbat eta azkarragoa eta finagoa izan, orduan eta salmenta berme handiagoak lortuko dira. Liburu-denden galerak, hortaz, salmenta aukerak murrizten dituen neurrian, liburu askoren bideragarritasuna ere kolokan jartzen du, batez ere euskarazko liburuen bideragarritasuna. Gogoratu behar da euskarazko liburu askok doi-doi lortzen duela bere burua estaltzea, eta nahikoa da salmentan ehuneko txiki batean jaistea, liburu asko ez bideragarri bilakatzeko.

Liburu-dendak desagertzeak ez du soilik jarduera ekonomiko jakin bat ahulduko. Epe ertain eta luzera hori baino garrantzitsuagoak eta sakonagoak diren ondorioak ekar ditzake; esan nahi baita, kultur edukiak eta adierazpenak norbana-koengandik eta, beraz, gizartetik gero eta urrutirago egotea. Izan ere, liburu-dendak dira, herri eta auzo askotan, kultur jardueraren eta irakurzaletasunaren aldeko mezuak zabaltzeko eta sustatzeko erakusleho eta bultzatzaile eraginkorrenak.

## Ikasketa prozesuan eta edukietan aldaketak

Mailegutzak irizpide ekonomiko soiletatik harantzagoko beste ondorio batzuetara ere bagaramatza. Datozen belau-naldiek jasoko dituzten hezkuntza edukiei buruz ari gara. Ikasliburuak ez dira edozein produktu; ikasleei ezagutzak

garatzen, trebetasunak lantzen eta baliabideak onartzen lagunduko dieten tresnak dira, eta horietan zer esaten den eta nola esaten den funtsezkoa izan daiteke ikasleen ezagutzak era batekoak edo bestekoak izan daitezten.

Hau da, hain zuzen, mailegutza sistemak hezkuntza komunitateari eta gizarteari, oro har, eragin diezaiokeen ondorio zuzen eta sakonena. Ikasleek ez dute euskaraz hemen sortutako liburuekin ikasterik izango, eta, gehienera ere, gaztelaniaz sortutako liburuen itzulpenak egongo dira soilik hemengo ikasle eta irakasleen eskuragarri.

Horrek guztiak zuzenean egiten du talka puri-purian dagoen Euskal Curriculumaren garapen eta aplikazioarekin. *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum*a garatzen ari da hainbat hezkuntza eragile. Bertan, datozen belaunaldiek jasoko dituzten edukiak, kontzeptuak, balioak... finkatzen ari dira, eta ariketa horrek guztiak bere isla izango du eduki horiek bilduko dituzten bitartekoetan ere; esate baterako, ikasliburuetan. Galdera berehalakoa da, nola eta non islatuko dira, hemen sortutako ikaslibururik izan ezean, Euskal Curriculumak zehaztuko dituen eduki eta irizpideak? Zer kontzeptu eta ezagutza erakutsiko dizkiegu datozen belaunaldiei?

Edukietan ez ezik, edukiak transmititzeko moduan ere al-daketak eragin ditzake mailegutzak. Orain arte, ikasliburua oinarri hartuta, irakasleak ikasleari azaltzen zizkion ohar-rrak, informazio gehigarriak, azalpenak... ikasleak ikasliburuan jasotzen zituen. Ikasketa prozedura horrek, ordea, al-daketak eragin ditzake ikaslearen autonomian eta ikasketa prozesuaren metodologian, eta, ikasteko modu hau ordezkatu duen proposamenik ezean, zailtasunak eta hutsuneak besterik ez ditu ekarriko bide horrek.

## Ikastetxeak eta mailegutza kudeatzea

Mailegutza sistema kudeatzeko lanak ikastetxe bakoitzaren esku geldituko dira. Ikastetxeak izango du liburuak argitaletxe edo saltokietan eskatzeko ardura; haur guztiei da-



gozkien liburuak banatu, ikasturtea amaitu ondoren ikasliburu guztiak bildu eta gorde, hondatutakoak detektatu eta ordezkatu beharrekoak erosi, kudeatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak antolatu...

Orain arte ikastetxeek beren gain izan ez duten lan jarduera bati buruz ari gara, lan gehigarri bati buruz, beraz; eta ikastetxe guztiek ez dute nahiko baliabide kudeatze lan horiek guztiak behar den bezala egiteko. Argitzeko dago kudeatze lan horien kostua ikastetxe bakoitzak hartuko ote duen bere gain edo Hezkuntza Sailak (EAEn) diru kopuru berezi bat emango dion ikastetxe bakoitzari; baina, lehenago zehatz ikusi dugunez, kudeatze lan horien gastua mailegutzan emango diren liburuen kostua ia adinakoa da, eta, beraz, oso kontuan hartzekoa.

Ikastetxeak arduratu beharko du, gainera, bertako irakasleen bidez, ikasleek mailegatutako liburuak ondo zaindu ditzaten eta ikasturte amaieran egoera onean bueltatu ditzaten ziurtatzeaz. Bere ohiko lan-jardueraz gain, zaindari lana egozten zaio modu horretan irakasleari.

## Azken solasa

Kulturaren kalitatea eta kulturari eskaintzen zaion arreta ez dira batere adierazgarri txarrak herri batek duen garapen demokratikoa neurtzeko.

Anjel Lertxundi

Datuak mahai gainean direla eta argudioak ezagututa, mailegutza bidezko ikasliburuen doakotasunak liburugintza sektorea eta baita, maila batean, hezkuntza komunitatea ere, irteerarik gabeko gurpil zoro batean sartzea ekarriko luke. Mailegutza aplikatu bai, baina, zer mailegaturik ez litzateke izango. Zehatzago esateko, liburuak mailegatu, mailegatuko lirerateke, baina ez euskaraz sortutako ikasliburuak. Hezkuntza komunitateari doako zerbitzu bat eskainiko litzaioke, bai; baina urteetan jorratutako bidean atzera egin eta hutsune sakonak sortuz.

Badira, ordea, ikusi dugunez, gurpil zoro horretan murgiltzea saihestu eta ikasliburuaren doakotasuna bermatuko luketen bestelako neurri batzuk. Familia bakoitzak ikasliburuak erosteko jasoko lukeen laguntza zuzenen bidez —dira la bekak, Errenta Aitorpenean kenketak; edo dela txekia—, bestelako premiak, eta ez garrantzia gutxiagokoak, erdiesten lagunduko litzateke. Alegia, familia/ikaslea eta liburuaren arteko harremana ez litzateke etengo; familia izango da, modu horretara, ikasliburuak erostera liburu-dendara hurbilduz ikasliburuaren eta bestelako liburuaren erreferentzia zuzena jasoko duena; eta halaber, etxean jasoko da ikasleari ikasturte osoan zehar edukiak eta kontzeptuak barneratzen laguntzen dion bitartekorik garrantzitsuenetakoa. Ikasliburua familiengandik urrunduz, familia askok liburuarekin duten harremana eta liburu-dendetara hurbiltzeko duten *aitzakia* bakarrari mugak jarritz, nekez lortuko da liburuaren balioa eta balorea sustatzea. Eta aldiz, kontsumo ohiturak kultura irizpideetatik oso urruti dituen gizarte honek guztiz premiazkoa du datozen belaunaldiei liburua eta beronen atzean dagoen sormen lanaren balioa aintzatetsi eta erakustea.

Liburuaren balioespena norbanako bakoitzaren, komunitate osoaren eta horren kudeatzailearen ardura da. Haatik, norbanakoari ezin zaio erantzukizunik eskatu, bai, ordea, Administrazioari. Administrazioaren erantzukizuna bada herri baten garapenerako ezinbestekoak diren kultura, hizkuntza, hezkuntza... zaindu eta sustatzea. Eta honek arduratsu eta erantzukizunez jokatu behar luke, inongo neurri eta erabaki administratibok ez dezan kultur/hezkuntza ondarea kolpatu.

Mailegutzak berdin ahulduko ditu eremu handiko zein txikiko hizkuntzetako liburugintza sektoreak. Baina kalteak ez dira neurri berekoak izango. Kolpea beti da gogorragoa txikiarentzat. Mailegutza aplikatu den beste lekuetako liburugintza sektoreen indarra asko ahuldu eta mugatu da. Frantzian, esaterako, mailegutza aplikatzearen ondorioz, argitaletxe askok liburuak argitaratzeari utzi zion; bi argitale-

txek bakarrik jarraitu zuten ikasliburuak argitaratzen eta, ondorioz, ekoizpen eskaintza izugarri mugatu zen. Andaluzian, mailegutza aplikatzen hasi eta urtebete baino lehenago, 37 liburu-dendak itxi zituzten ateak. Mailegutzak milioika hiztun dituen merkatu batean horrelako ondoriak eragiten baditu, erraz ondoriozta liteke gurea bezalako eremu urriko hizkuntza bateko merkatuan kaltea zenbaterainokoa izango den. Hil edo bizikoa. Frantziako eta Andaluziako gobernuek liburugintza sektorea ahuldu duten neurriak aplikatzearen erantzule dira, noski, baina, neurri bera hartuko lukete baldin eta ikasliburuen eskaintza ahuldu ordez, desagertarazteraino iritsiko balitz? Frantsesezko ikasliburuak desagertarazteko arriskua balego, aurrera egingo luke bertako gobernuak? Ikasleak beste hizkuntza bateko ikasliburuekin ikastea onartuko luke administrazioak? Bada, arrisku eta erantzukizun horixe bera du Eusko Jaurlaritzak eta berau sostengatzen duten alderdi politikoeak ikasliburuen doakotasunaren afera honekin, orain eta hemen.

Kultura eta hezkuntza irizpideak bigarren maila batean utzi, eta irizpide ekonomikoetan oinarritutako erabakiak hartzeko arriskua benetakoa izan ohi da gisa honetako aferetan. Sistema batek eta besteak Administrazioari eskatuko liokeen diru irteerak erabakia sistema baten alde edo kontra hartzea lerratu dezake, baina datuek erakutsi digutenez, sistema ezberdinen arteko kostuan dagoen aldea oso txikia da. Mailegutza sistemak eskatzen duen diru kopuru berarekin, EAEn Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ikasten duten ikasleen gehiengoari doan eman dakizkioke ikasliburuak beka sistema bidez. Irizpide ekonomikoetan oinarrituz, ahalegin ekonomiko bera eskatuko dio sistema batek zein besteak Administrazioari, baina Administrazioarentzat beretzat ere gale-  
ra bat ekarriko du sistema honek, liburugintza sektorea ahulduz gero aktibitate honetatik kobratzen dituen zergak modu nabarmenean murriztuko baitzaizkio.

Zein da, beraz, ikasliburuen doakotasuna aplikatzeko dau-  
den aukera ezberdinen ondorioak kontuan hartuz, sistema

baten edo bestearen aldeko erabakia hartzera bultzatzen duen azken arrazoa?

Liburugintza sektorearen estrategikotasunaren aitortza aldarrikatzen dugu. Herri baten etorkizunerako, ezinbestekoa da kultura eta hezkuntza sistema propioa garatzea eta garp-en horretan lagunduko duten bitartekoak sortu eta bultzatzea. Eta zeregin horretan liburugintza sektorearen funtzioa onartzea ezinbestekoa da; horretarako lehen urratsa liburugintza sektorea kultur industria gisara onartu eta aintzat hartzea da, eta, ondoren, beste edozein industria alorretan bezala, beronen oinarriak finkatu eta egiturak sendotzeko bitartekoz laguntzea.

Etorkizunera begira jarrita, bistan da, kultur industriek ez ezik, hezkuntza komunitateak ere erronka handiei egin beharko dietela aurre datozen urteetan. Hezkuntza beharrei kalitatez erantzutea gizarte baten etorkizunari bermeak eskaintzea baita. Ardura guztiona da, baita liburugintza sektoretik hezkuntza komunitateari zerbitzua ematen ari garen eragileona ere. Ikuskizun dago, esaterako, teknologia berriak zein neurritan eta modutan sartuko diren hezkuntza sisteman, baina pentsatzekoa da oinarrizko hezkuntza edukiak teknologia berri horietan ere eskaini egin beharko direla datozen urteetan. Argialetxeok, kultur industria osatzen dugun ekoizleok erantzun beharko diegu premia berri horiei guztiei; baina horretarako, inbertsio berriak egiteko ahalmenarekin eta inoiz baino indartsuago egon beharra dugu. Zenbat eta azpiegitura sendo eta babestuagoak izan, orduan eta egokiago erantzungo diegu hezkuntza komunitatean sartuko diren behar berriei. Hori da ekoizle on erantzukizuna. Eta horretarako bidelagunak behar ditugu. Ekoizpen ahalegina oztopatuko ez duten aliatuak. Eremu urriko hizkuntza eta kulturetan ez baitago eskutik helduta ibiltzea beste aukerarik. Gure txikitasunagatik, bidelagun eta hurbil behar ditugu instituzioak. Eta batez ere, liburugintzan eta kultur industrian sinisten duten administrazioak behar ditugu.¶

**Taula I**

	Ikasleak	Liburuen kostua (€)	Erosketa (1. urtea) (€)	Erosketa (2. urtea) (€)	Erosketa (3. urtea) (€)	Erosketa (4. urtea) (€)	Guztira (€)
Lehen Hezkuntza	97.500						
Lehen zikloa	31.450	90	2.830.500	2.830.500	2.830.500	2.830.500	11.322.000
Bigarren zikloa	32.590	90	2.933.100	2.933.100	2.933.100	2.933.100	11.732.400
Hirugarren zikloa	33.460	90	3.011.400	3.011.400	3.011.400	3.011.400	12.045.600
DBH	72.560						
Lehen zikloa	35.400	120	4.248.000	4.248.000	4.248.000	4.248.000	16.992.000
Bigarren zikloa	37.160	120	4.459.200	4.459.200	4.459.200	4.459.200	17.836.800
	<b>170.060</b>		<b>17.482.200</b>	<b>17.482.200</b>	<b>17.482.200</b>	<b>17.482.200</b>	<b>69.928.800</b>

**Taula II**

*Matieguntzaren kostua, hondatutako liburuak %10ean berrituta*

	Ikasleak	Liburuen kostua (€)	Erosketa (1. urtea) (€)	Erosketa (2. urtea) (€)	Erosketa (3. urtea) (€)	Erosketa (4. urtea) (€)	Guztira (€)
Lehen Hezkuntza	97.500						
Lehen zikloa	31.450	90	2.830.500	2.830.500	2.830.500	2.830.500	11.322.000
Bigarren zikloa	32.590	90	2.933.100	2.933.100	293.310	293.310	3.813.030
Hirugarren zikloa	33.460	90	301.140	301.140	3.011.400	301.140	3.914.820
DBH	72.560						
Lehen zikloa	35.400	120	424.800	424.800	424.800	4.248.000	5.522.400
Bigarren zikloa	37.160	120	4.459.200	445.920	445.920	445.920	5.796.960
	<b>170.060</b>		<b>8.308.950</b>	<b>6.935.460</b>	<b>7.005.930</b>	<b>8.118.870</b>	<b>30.369.210</b>

**Taula III**  
*Mailégitzaren kostua, hondatutako liburuak %15ean berrituta*

	<i>Ikasleak</i>	<i>Liburuen kostua (€)</i>	<i>Erosketa (1. urtea) (€)</i>	<i>Erosketa (2. urtea) (€)</i>	<i>Erosketa (3. urtea) (€)</i>	<i>Erosketa (4. urtea) (€)</i>	<i>Guztira (€)</i>
Lehen Hezkuntza	97.500						
Lehen zikloa	31.450	90	2.830.500	2.830.500	2.830.500	2.830.500	11.322.000
Bigarren zikloa	32.590	90	439.965	2.933.100	439.965	439.965	4.252.995
Hirugarren zikloa	33.460	90	451.710	451.710	3.011.400	451.710	4.366.530
DBH	72.560						
Lehen zikloa	35.400	120	637.200	637.200	637.200	4.248.000	6.159.600
Bigarren zikloa	37.160	120	4.459.200	668.800	668.800	668.800	6.465.840
	<b>170.060</b>		<b>8.818.575</b>	<b>7.521.390</b>	<b>7.587.945</b>	<b>8.639.055</b>	<b>32.566.965</b>

**Taula IV**  
*Txekea (errenta maila urtean <20.000 €)*

	<i>Ikasleak</i>	<i>Errenta</i>	<i>Txekea zenbati</i>	<i>Liburu kostua (€)</i>	<i>Txek. balioa 1. urtean (€)</i>	<i>Txek. balioa 2. urtean (€)</i>	<i>Txek. balioa 3. urtean (€)</i>	<i>Txek. balioa 4. urtean (€)</i>	<i>Guztira (€)</i>
LH	97.500	%55	53.625	90	4.826.250	4.826.250	4.826.250	4.826.250	18.075.240
DBH	72.560	%55	39.908	120	4.788.960	4.788.960	4.788.960	4.788.960	16.714.560
					<b>9.615.210</b>	<b>9.615.210</b>	<b>9.615.210</b>	<b>9.615.210</b>	<b>38.460.840</b>

Txekea (errenta maila urtean <25.000 €)

	Ikasleak	Errenta	Txekea zenbati	Liburu kostua (€)	Txek. balioa 1. urtean (€)	Txek. balioa 2. urtean (€)	Txek. balioa 3. urtean (€)	Txek. balioa 4. urtean (€)	Guztira (€)
LH	97.500	%70	68.250	90	6.142.500	6.142.500	6.142.500	6.142.500	24.570.000
DBH	72.560	%70	50.792	120	6.095.040	6.095.040	6.095.040	6.095.040	24.380.160
					12.237.540	12.237.540	12.237.540	12.237.540	48.950.160

Txekea (errenta maila urtean <30.000 €)

	Ikasleak	Errenta	Txekea zenbati	Liburu kostua (€)	Txek. balioa 1. urtean (€)	Txek. balioa 2. urtean (€)	Txek. balioa 3. urtean (€)	Txek. balioa 4. urtean (€)	Guztira (€)
LH	97.500	%83	80.925	90	7.283.250	7.283.250	7.283.250	7.283.250	29.133.000
DBH	72.560	%83	60.224	120	7.226.976	7.226.976	7.226.976	7.226.976	28.907.904
					14.510.226	14.510.226	14.510.226	14.510.226	58.040.904

Txekea %100

	Ikasleak	Errenta	Txekea zenbati	Liburu kostua (€)	Txek. balioa 1. urtean (€)	Txek. balioa 2. urtean (€)	Txek. balioa 3. urtean (€)	Txek. balioa 4. urtean (€)	Guztira (€)
LH	97.500	%100	97.500	90	8.775.000	8.775.000	8.775.000	8.775.000	35.100.000
DBH	72.560	%100	72.560	120	8.707.200	8.707.200	8.707.200	8.707.200	34.828.800
					17.482.200	17.482.200	17.482.200	17.482.200	69.928.800

# Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum eta testuliburuak

**XABIER GARAGORRI**

Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren Zuzendaritza teknikoko eta Diseinu taldeko kidea

Artikulu hau, Euskal Curriculumaren egitasmoaren oraingo fase programatikoa burutzen denean, aplikazio fasean indarrean jartzeko zer-nolako ikasmaterialak eta testuliburuak beharko diren irudikatzeko saio bat da. Saiakera honetan testuliburuak izan behar dituzten ezaugarriak buruz asmatu dezaket gehiago ala gutxiago, baina ez dago zalantzarik testulibururik gabe egitasmo hori ezinezkoa izango dela indarrean jartzea. Bestetik, testuliburu horien egileek, pedagogia eta didaktika gaietan adituak izateaz gainera, euskaraz idazten ondo jakin eta lekuan lekuko eta Euskal Herriko kulturaren ezaugarriak ondo ezagutu beharko dituzte. Testuliburuak Euskal Curriculumean oinarritzen badira, Euskal Herrian bertan sortuak eta Euskal Herriko ikasleentzat egitea da bidezkoena. Testuliburuaren egileak bertakoak izatea giza-baliabideetan garrantzi handiko inbertsioa egitea da, izan ere egile horiek lan horretan asko ikasten dute eta horrek berarekin dakar erabiltzaileen prestakuntza lana. Alde horretatik, zentzuzkoa dirudi, beste euskal kultur eragile estrategikoekin gertatzen den antzera, bertako argitaletxeak izatea testuliburu horiek plazaratuko dituztenak. Hortik au-



rrera, ez dut iritzirik ematen testuliburuek doakoak ala ordainduak izan behar duten, finantziario sistema zeinek izan behar duen eta eredu bakoitzaren mesedeak eta kalteak zein diren esateko. Hautatzen den formulak Euskal Herrian kokatuta dauden argitaletxeak desagertzea edo ahultzea ekartzen badu, euskal kultur industrien eragile estrategiko baten kalterako litzateke.

## Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumaren ezaugarri batzuk

Euskal Curriculumaren egitasmoa abian da. *Euskal Curriculum. Kultur ibilbidea. Adituen ekarpena* liburuan (2004), bizitza guztirako hezkuntzaren ikuspegitik kultur ibilbidearen proposamen ireki bat egin zen. Une hauetan «Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum» dokumentua aurkeztu da (2006ko urtarrila) eta eskoletan horren balorazioa eta hobekuntza proposamenak egiten ari dira. Datorren ikas-turtetik aurrera, «Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Oinarrizkoa eta Komuna» aurkeztu, baloratu eta deliberamendu prozesuak burutu ondoren, hala nahi duten Euskal Herriko eskolek indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute (2007ko udaberria?). Derrigorrezko eskolaldirako bi proposamen egiten dira: a) Euskal Curriculum osoaren proposamen irekia egiten da, hala nahi duten eskolek eta beste hezkuntza erakundeek (administrazioek...) proposamen horretaz nahi duten moduan baliatzeko; b) Euskal Curriculum oinarrizkoaren eta komunaren proposamena, hala nahi duten eskolek konpromisoa hartzeko oinarrizkoa eta komuna dena indarrean jartzeko eta ebaluatzeko. Lan horien bidez galdera hauek erantzuten saiatzen gara:

- Zer da Euskal Herrian bizi den pertsona kultu batek Euskal Herriaz eta munduaz ezagutu behar duena, egiten jakin behar duena eta bereganatu beharko litzuzkeen balioak eta jarrerak? (Bizitza guztirako kultur ibilbidea).

- Zein dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean, Euskal Herriko eskoletan ikasten ari den hamasei urteko gazte batek euskal kulturari eta kultura unibertsalari buruz gutxienez ezagutu behar dituen gertaera eta kontzeptuak, lortu behar dituen trebetasunak eta egiten jakin behar dituen prozedurak, eta beraganatu behar dituen balioak eta jarrerak? (Derrigorrezko eskolaldirako proposamen irekia).
- Zer daukagu eta batez ere zer eduki nahi dugu elkarrekin Euskal Herrian bizi garenok? (Euskal curriculum oinarritzkoa eta komuna, borondatezkoa da, baina hala nahi duten eskolek behin erabakia hartuta, curriculum hori aplikatzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute).

## Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren ekarpenak

Euskal Herri osoko eta hezkuntza sare desberdinetako gehiengo zabala ordezkatzan duten gizarte zibileko eragileek parte hartzen dute egitasmo honetan. Aberasgarria da, eta nire ustez eredugarria, Euskal Herriko gizarte zibileko erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila elkarlanean aritzea. Egitasmo honen ekarpenen inguruan irakurketa asko egin daitezke, baina proposamenaren mamian sartu gabe, lanaren nolakatasunaren aldetik, ekarpen hauek azpimarratuko nituzke:

- Lehen aldia da curriculumaren planteamendua gure kabuz egiten duguna. Orain arteko gure curriculuma Espainiako eta Frantziako izan da, edo, gehienez, Espainiako curriculumean oinarrituz, gehigarri moduan egindako egokitzapena.
- Lehen aldia da, bi Estaturen eta hiru Administrazioen eraginpean bizi arren, Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Kartan adierazitakoaren ildotik (14. artikulua), mugaz gaindiko curriculum planteamendua egiten dela, derrigorrezko eskolaldirako guztiontzako oinarritzkoa eta komuna izango dena proposatuz.

- Euskal Curriculumaren proposamena Euskal Herriko edo Euskararen Herriko lurraldeetako hezkuntza eragileek elkarlanean egindako ekimenetik sortu da. Hezkuntza eragile horiek hezkuntzaren esparruko sektorearen gehiengo zabala ordezkatzan dute.
- Euskal Curriculumaren proposamena prestatzeko talde teknikoan, Euskal Herri osoko lurraldeetakoek eta hezkuntza sektore guztietakoek parte hartu dute.
- Gizartetik sortu den ekimen hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin hitzartuta eta hark diruz lagunduta egin da.
- Euskal Herri osorako egiten den eskaintza hau oinarritzat hartzen du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailak bere esparruan berari dagokion curriculum ofiziala arautzeko.

## Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren diseinua

Lanaren mamia, lehen esan duguna gogoratu, derrigorrezko eskolaldia bukatzen duten gazteak Euskal Herrian eta Munduan bizitzeko prestatuta egon daitezzen eta bizitza osorako hezkuntzarako oinarri sendoak lor ditzaten, horretarako egin behar duten curriculum edo kultur ibilbidea hautatzea eta eskaintzea da. Bizitzarako prestatzea ikas arlo batzuetako ezagutzaz jabetzea baino gehiago da. Alde horretatik, Euskal Curriculumaren kezka European eta mundu zaballean derrigorrezko hezkuntzari buruz dagoen kezkaren antzekoa da: zein dira eta nola lortu daitezke bizitzarako beharrezkoak diren konpetentziak? Galdera horri erantzuna ematen saiatzen ari dira hainbat herrialdetan, baina gaia nahiko berria da eta ez dago eskarmentu nahikorik bizitzarako konpetentziak eta betiko ikas arloak ondo uztartzeko. Argi dago curriculumaren ohiko formulazioak, kontzeptuzko ezagutzetan oinarritutakoak, ibilbide luzea duela eta formulazio errazagoa duela, baina diziplinei buruzko ezagutzak


barneratzeko bakarrik balio du, ez bizitzarako prestatzeko. Euskal Curriculumaren egitasmoan, hezkuntza konpetentzia orokorrak eta diziplina arloak uztartzeko bidetik saiakera bat egiten da. Saiakera horren emaitza da proposatzen dugun curriculumaren diseinua (ikus irudia hurrengo orrian).

Euskal Curriculumaren planteamenduaren arabera, arloak garrantzitsuak dira, baina ez berez, baizik eta hezkuntza konpetentzia orokorrak eta hezkuntzaren xedeak lortzeko balio duten heinean. Arlo bakoitzeko irakasleen funtzioa, arloaren bidez ikasleek hezkuntza konpetentzia orokorrak lor ditzaten laguntzea da. Planteamendu horren arabera, irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta haien funtzio nagusia ikasleak bizitzaren eremu guztietan modu egokian jarduteko prestatzea da. Irakasleen funtzioa ez da «haien» diziplina irakastea bakarrik, baizik eta baita ere, gainerako irakasleekin batera, pentsatzen eta ikasten irakastea, komunikatzen irakastea, elkarrekin bizitzen irakastea, izaten irakastea, eta egiten eta ekiten irakastea. Horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko eta eskolaren barne antolaketari buruzko ikuspegi aldaketa sakona dakar.

## Euskal Curriculum espezifikoa

Arestian aipatutako aldaketa hori garrantzi handikoa da, baina ez da Euskal Curriculumaren erronka soilik, edonongo curriculumean erantzun beharrekoa baizik, beraz gurean ere bai. Euskal Curriculumak baditu ordea berari bakarrik erantzutea dagozkion beste era bateko erronkak. Espainiako eta Frantziako curriculum ofizialek ez dituzte jasoko Euskal Herriko berriazko kultur ezaugarriak, hau da, gizabanakoen eta bereziki giza taldeen beharrak erantzuteko bertan sortu edo sustraitu diren kultur adierazpenak. Horien artean aipa ditzakegu, adibidez, Euskara eta Euskal Literatura; Matematikako zenbakikuntza sistemaren eta neurri sistemaren ezaugarri espezifikoa; Euskal Herrian garatutako Teknologia-ren bilakaeraren ezaugarriak; Euskal Musika eta Dantza;

## Euskal curriculumaren diseinua




Euskal Herrian garatu den artearen, artisautzaren eta arkiteturaren adierazpenak; Euskal Herrian garatu diren joko, jolas eta kirolak; Euskal Herriko Geografia, Demografia, Historiaurrea eta Historia, Zuzenbidea, Ekonomia, erakundetze ereduak eta funtzionamendu politikoak; Mitologia, Erlijioak, Herri egutegia eta jaiak; Elikadura, Gastronomia eta Osasunaren ezaugarri espezifikoak; Geologia, Meteorologia, Botanika, Zoologia eta Ekologiaren adierazpen espezifikoak...

Artikulu honen hasieran esan bezala, Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren egitasmoan bi ekoizpen aurreikusten dira: a) Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum osoaren proposamen irekia; b) Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna. Lehen ekoizpenaren ekarpen nagusia curriculumaren egitura edo moldea bera da, hau da, hezkuntza-xedeen, hezkuntza-konpetentzia orokorren eta ikas arloen arteko loturaren ikuspegia. Bigarren ekoizpena da egitasmo osoaren azken helburua, hau da, bizitzarako oinarrizkotzat edo ezinbestekotzat hartzen ditugunak eta hizkuntza eta kultura bereko komunitate-kide modura partekatzen ditugun elementu komunak adostea eta adostutakoa indarrean jartzea eta ebaluatzea. Azken batean, Euskal Curriculumaren bidez erantzun nahi dugun galdera hau da: nahiz eta bi estatutan eta hiru administraziotan bizi, zer daukagu eta, batez ere, zer eduki nahi dugu elkarrekin Euskal Herrian bizi garenok?

## Guztionezko oinarrizkoa eta komuna eta lekuan lekuko berezitasunak

Galdera horri erantzuteko egingo dugun curriculum oinarrizko eta komunaren proposamena Euskal Curriculumaren zati bat izango da. Euskal Curriculum osoa, jarraian datorren irudian agertzen den modura, harremanetan eta osmosian dauden dimentsio desberdinez osatzen da: lekuan lekukoa, oinarrizkoa eta komuna, lurralde bakoitzeko cu-

Curriculum oficialia, europarra eta unibertetsala. Lanaren ikur modura erabiltzen dugun kiribil bikoitzaren sinboloa eta «herritik mundura eta mundutik herrira» esaldiaren esanahia aplikatzen badugu, Euskal Curriculumuma eraikitzeko lehen pausoa, hurbilenetik hasita —hau da, «herritik mundura»—, lekuan lekuko kultur ezaugarri espezifikokoak hautatzea litzateke. Jarraian, Euskal Herri osoan partekatzen adosten dugun oinarrikoa eta komuna. Espainian (eta horren barruan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan) eta Frantzian (Iparraldean) derrigorrezkoak diren curriculum ofizialak ere uztartu beharko dira. Eta ibilbidearen alde bat osatzeko Europako eta Munduko erreferentziak jaso beharko dira. Baina curriculumaren ibilbidea ez da norabide bakarrekoa (herritik mundura), joan-etorrikoa baizik (mundutik herrira). Egungo mundializazioaren eraginez «mundutik herrira» datorren informazioaren uholdea askoz ere ugariagoa da «herritik mundura» doana baino. Euskal Curriculumaren esparruak eta dimentsioak bereiztea prozesuaren logika ulertzeko lagungarria izan daiteke, baina errealtatean gauzak askoz ere dinamikoagoak eta sistemikoagoak dira. Esparruak bereiz daitezke, baina ez geruza bakartu modura, elkar trukatzuz eraginean bizi diren indar modura baizik. Lekuan lekuko eguneroko bizitzan, adibidez, eragin guztiak batera jasotzen ditugu.



Laburtuz, Euskal Curriculumuma ez da izango uniformea, desberdina baizik, lekuan lekuko baldintzen eta kultur ezau-garrien arabera, eta lurralde bakoitzeko egoera administrati-boaren arabera (EAE, Nafarroa, Iparraldea). Hala ere, euskal curriculumuma sustrai eta enbor bakarrekoa izango da. Curri-culumaren sustraiak edo oinarriak hezkuntzaren xedeak, hezkuntzaren konpetentzia orokorrak eta eduki metadizi-plinarrak dira, eta horiek kasu guztietan berdinak izango dira. Bestetik, guztion artean adosten dugun oinarrizkoa eta komuna ere berdina izango da guztiontzat.

## Ikasmaterialen eta bereziki testuliburu- garrantzia

Jo dezagun Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curri-culumaren proposamena teknikoki lan ona dela, balorazio ona jasotzen duela, egiten zaizkion hobetzeko proposamenak txertatzen direla, irakasleen, gurasoen eta ikasleen aldetik atxikimendua sortzen duela. Hori dena lortzea asko litza-teke, eta lanean hasteko abiapuntu sendoa, baina indarrean jartzeko beste baldintza batzuk ere beharko dira. Baldintza horien artean berebiziko garrantzia izango dute irakasleen prestakuntzarako eta ikasmaterialgintzarako hautatzen diren bideak. Bi bide horiek ez doaz bakoitza bere aldetik, batera baizik.

## Ikasmaterialak eta testuliburuak

Ikasmaterialaz ari garenean, uler daiteke kontzeptu hori oso zentzu zabalean, hau da, irakasteko asmoz egin ez arren, irakaskuntzan erabiltzen diren objektuak. Objektu horietaz irakaskuntza egoeretan baliatzen gara, nahiz eta berez horretarako sortuak izan ez. Finean, adiera honetan, tresna eta baliabide guztiak, une eta baldintza jakinetan, izan daitezke irakaskuntza-ikaskuntza prozesua laguntzeko



ikasmaterialak. Ikasmateriala ulertzeko era hori zabalegia da eta ez da operatiboa. Hemen, ikasmaterialaren kontzeptua era zehatzagoan ulertzen dugu: hau da, irakaskuntza-ikas-kuntza prozesua laguntzeko asmoz eta horretarako espreski sortutako baliabideak eta tresnak. Multzo honetan sar daitezke irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gela barruan laguntzeko asmoz plazaratzen diren eta irakasleen eta ikasleen eskuetan jartzen diren euskarri desberdinetako ikasmaterialak: curriculum ofizialak, testuliburuak, lan-koadernoak, gidaliburuak, erreferentziazko liburuak (entziklopedia, hiztegi, atlas, kontsulta liburu...), ikus-entzunezkoak (kaseteak, bideoak...), euskarri informatikokoak (disketeak, CD-Rom), interneten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak laguntzeko aurki daitezkeen informazioak... Testuliburuak, adiera honetan, ikasmaterial-mota bat da. Ikasmaterialen ezaugarria irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak bideratzeko asmoz sortutako materiala izatea da; testuliburuaren ezaugarria, aldiz, curriculum bati erantzuteko asmoz sortutako ikasmateriala izatea. Testuliburuaren euskarria izan daiteke liburu inprimatua, ikus-entzunezkoa edo software bidez argitaratua edo produzitua.

## Ikasmaterialen eta testuliburuaren garrantzia

Ikasmaterialek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak bideratzeko duten garrantzia aho batez onartzen da, eta testuliburuaren garrantziaz iritzi teoriko guztiak bat etorri ez arren, praxia egoskorra da. Era eta maila ezberdinetako ikastetxe eta geletatik pasatzea nahikoa da testuliburuak duten garrantziaz jabetzeko. Testuliburuak garrantzitsuak dira asko erabiltzen direlako (arrazoi kuantitatiboa) eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragin handia dutelako (arrazoi kualitatiboa).

M. W. Apple-k (1984: 46), Estatu Batuetako eskolei dago-kienez, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek gelan pasatzen duten denboraren %75 eta eskolaz kanpoko etxeko lanak egiten pasatzen duten denboraren %90 testuliburuaren

laguntzaz egiten dutela esaten du. Antzeko ondorioak ateratzen ditu Ingvar Sigurgeirsson-ek Norvegiako eskoletan testuliburuak erabilpenari buruz egindako ikerketa batean oinarrituz (Johnsen, 1996: 140): hau da, denboraren %60 inguru ikasmaterialetan oinarrituz irakasten da, Ingelesa irakasteko denboraren %96 ikasmaterialetan laguntzaz egiten da, eta Matematika eta Gizarte Zientzietan denboraren %75. INCIEk (1976), Gimeno eta Fernándezek (1980) eta Salinasek (1987) egindako ikerketetan ondorio berak ateratzen dituzte, garai historiko ezberdinetan jasotako datuetan oinarrituz. Euskal Herrian ez da egin horrelako ikerketarik, baina hemen ere ebidentzia bat da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek denbora gehienez testuliburuak oinarrituz irakasten dutela.

Testuliburuak asko erabiltzen dira irakasleentzat baliagarriak direlako. Testuliburuak bete ditzaketen funtzioen artean (Parcerisa, 1996: 31-33) ondorengoak jasotzen ditugu:

- *Funtzio berritzailea*: testuliburuak bidez irakaskuntzako berrikuntzak bidera daitezke.
- *Funtzio motibagarria*: testuliburuak bidez ikasleentzako motibazioa susper daiteke.
- *Errealitatea estrukturatzeko funtzioa*: testuliburuak errealitatea ordezkatzeko, interpretatzeko eta estrukturatzeko balioko dezakete.
- *Irakaskuntzako helburuak eta edukiak kontrolatzeko funtzioa*: azken batean, irakaskuntzako helburuak eta edukiak kontrolatzeko, curriculum ofiziala erabakitzen duten Dekretuak baino eraginkorragoak baitira testuliburuak.
- *Gelan egiten den lanerako metodologia gidatzeko funtzioa*: testuliburuak lanerako norabideak, erabil daitezkeen materialak, denboraren banaketa, ikasleentzako komunikazioa, harremana, talde dinamika, etab. bidera ditzakete.
- *Ikasleentzako ikaskuntza prozesua gidatzeko funtzioa*: testuliburuak, edukiak jasotzeaz gainera, ikasleentzako ikasteko eta ikasten ikasteko egin behar dituzten jarduerak eta adimenaren operazioak bidera ditzakete.

- *Hezitzaile funtzioa*: testuliburuek heziketa eta balio jakinak landu ditzakete.

- *Garai bakoitzeko irakaskuntza-ikaskuntza aukeren lekuko izatearen funtzioa*: garai bakoitzeko testuliburuak garai horretako aukera politikoen, ideologikoen eta pedagogikoen isla eta lekukoak dira.

Testuliburuen funtzioei buruz beste gauza asko esan daitezke. Autore batzuek, adibidez, haiek betetzen duten funtzio politikoa, ideologikoa eta ekonomikoa azpimarratzen dute. Funtzio horiek eta beste batzuk ere betetzen dituztela ukatu gabe, gure aldetik, guztien artetik, irakasleen eta ikasleen eskuetan jartzen diren *tresna*, *baliabide*, *artekari* izatearen funtzioa azpimarratzen dugu. Funtzio hori azpimarratuz, ikaslea eta irakaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko protagonistak direla eta testuliburuen funtzioa horiei laguntzea eta horien zerbitzuan egotea dela adierazi nahi dugu. Hauxe adierazi nahi dugu, beste era batera esanda: testuliburuek ez dutela inoiz ere irakaslearen zereginaren lehentasuna ordezkatu behar. Irakasleak gai izan behar du bere eskuetan dagoen ikasmaterialak bete dezakeen funtzioa jakiteko eta funtzio horiek derrigorrezkoa den curriculumarekin eta bere ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin zenbateraino uztargarriak diren erantzuteko.

## Testuliburuei buruzko kritikak

Testuliburuen garrantziaz jabetzeko arrazoi kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili ditugu. Arazoa ez da hainbeste testuliburuak erabiliak diren ala ez eztabaidatzea, hori ebidentea baita, baizik eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak bideratzeko mesedegarriak ala kaltegarriak diren jakitea. Testuliburuei buruz egindako kritikak era honetan laburbildu ditu Zabalak (1995: 180-181):

- Ikuspegi bakarreko edukiak transmititzen dituzte.
- Kulturaren ikuspegi estereotipatua aukeratzen dute.
- Merkatuaren interesen baitan jokutzen dute.

- Ideologia eta kultura nagusiaren menpean daude.
- Sexismo, arrazakeria, zentralismo eta elitismoaren bir-sortzaile dira.
- Ikasleen jarrera pasiboa eragiten dute.
- Ikasleen jarrera kritikoa eragozten dute.
- Planteamendu globalizataileak eta diziplinartekoak eragozten dituzte.
- Berrikuntza eragozten dute.
- Ikasleen ikasketa moduak eta erritmoak ez dira errespetatzen.
- Uniformetasuna eragiten dute.
- Adimena eragiteko estrategia ahulak eta mekanikoak erabiltzen dituzte.
- Irakasleen desprofesionalizazioa eragiten dute.

Saiatzen bagara goiko kritika horiek testulibururik gabeko irakaskuntza batean aplikatzen, kritika berdinak egin daitezke. Errealitatea ezin da horrela sinplifikatu: «testuliburuak bai, beraz, desastrea; testuliburuak ez, beraz, onura». Nire ustez, ñabardurarik gabeko baieztapen borobil horiek beraientzat kritikagarriak diren akats berean erortzen dira: ikuspegi bakarra, estereotipatua, ideologikoa, akritikoa...

a) Testuliburuak, beste edozein ikasmaterial eta irakaslea bera bezala, hezkuntza sistema, ekonomi sistema eta joko politikoaren barruan kokatzen da. Testuliburuak buruz egindako kritika gehienak berdin egokitzen zaizkie beste edonolako ikasmateriali eta irakasleri ere. Testuliburuak ordez, liburu monografikoak, aldizkariak, egunkariak, telebista, etab. erabiltzen dituzten irakasleek, testuliburuak bezain kutsatuak dauden baliabideak erabiltzen dituzte. Eta irakasle horiek, testuliburuak erabiltzen dituztenak bezala, hezkuntza-ekonomia-politika sistema jakin baten eraginpean bizi dira.

b) Testuliburuak joko horretan sartuta izan daitezke ho-beak ala okerragoak. Egia da testulibururik onenak ez dela miraririk egiten irakasle txar baten eskuetan, baina ziur asko irakasle horrentzat testuliburu hori eskuetan edukitzea mesedegarriagoa izango da esku hutsik egotea baino.

c) Testuliburuek, lehen esan bezala, ikasleen eta batez ere irakasleen eskuetan jartzen diren tresna, baliabide, artekari funtzioa bete behar dute. Irakasleari laguntzeko daude eta ez ordezkatzeko. Alde horretatik, ez litzateke seinale ona izango irakasle batek testuliburua tresna bakar bezala erabiltzea. Testuliburuarekin bakarrik zaila izango da ikastetxearen berezitasunari eta ikasleen aniztasunari egoki erantzutea. Alde horretatik, beharrezkoa litzateke testuliburuaren egokitzapena egitea eta testuliburuaz aparte beste eratako ikasmaterialak ere erabiltzea.

d) Testuliburuak (gidaliburuak eta lan-koadernoak) dira irakasleak bere lanerako eskura ditzakeen baliabide sistematzatu bakarrak. Sarritan irakaskuntzan esperientzia eta eskarmentu handiko jendeak egindakoak dira eta lanabes probetxugarriak izan daitezke erabiltzen jakinez gero.

e) Testuliburuaren diseinu eta edukiek ez dute derrigorrez itxiak izan behar. Ezagutzen ditugu, adibidez, ikastetxeek eta irakasleek aukera egin dezaten, erabilpen anitza izan dezaketen testuliburu irekiak. Edota, Ikastetxearen Curriculum Proiektua ikastetxeekin batera egin ondoren, horretan oinarrituz, elkarlanean egin diren testuliburuak ere.

f) Testuliburuak irakaskuntza kontrolatzen du horrela nahi badu irakasleak. Kasu batzuetan, irakasleak bere planifikazioa eta irakaskuntza prozesua bete-betean testuliburua jarraituz egiten du; beste batzuetan, berriz, irakasleak bere planifikazioa egiten du eta hori betetzeko beharrezkoak diren testuliburuak aukeratzen ditu. Lehenengo kasuan, irakaslea testuliburuaren jarraipen itsura makurtzen da; bigarrean, bere mesedetan erabiltzen du.

## Testuliburuak eta euskarazko irakaskuntza

Testuliburuaren garrantzia azaltzeko erabili ditugun argudioak baliagarriak dira egoera eta leku guztietan; beraz, baita gure egoeran ere, baina gure egoeran garrantzia areagotu egiten da.

## Testuliburuak euskararen arautze prozesuaren eragile

Kontuan hartuz euskara hizkuntzaren arautze prozesua eta irakasleen euskara arautuaren ezaupide eta erabilpen-maila, testuliburuak euskararen normalkuntza bidean tresna eta erreferentzia beharrezkoak suertatzen dira. Gogoratu bestela euskarazko testulibururik ez zegoenean horien ordeztelaniazkoak erabiltzen zirela eta gaur egun ere beste hainbeste gertatzen dela. Ildo honetatik doa Euskararen Aholku Batzordearen iritzia (1992):

Ikasmaterialik gabeko irakaskuntza pentsaezina litzateke; birtarteko horiek gabe nekez irakatsi dezake irakasleak [...]. Garrantzi hori areagotu egiten da gure hizkuntzaren normaltze prozesu honetan, zeren, orain arte gertatu den bezala, ikasmaterialak izango baitira —hein handi batetan— normaltze horri, irakaskuntza alorrean, itxura emango dioten erreferentziak.

Erriondok eta Isasik 1995-96 ikasturtean egindako ikerketa batean (1998: 60-67), EAEko eta Nafarroako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetakako A, B eta D ereduko eskola publiko, pribatu eta ikastoletan testuliburuak erabiltzen diren ala ez aztertu zuten. Ikerketa horren sintesi moduan esan daiteke, irakaskuntza zenbat eta euskaldunagoa (D eredua) eta ikastetxea zenbat eta *publikoagoa* izan, testuliburuak ez erabiltzeko joera areagotu egiten dela. Testuliburuak ez erabiltzearen aldeko joera D eta B ereduetako ikastetxe publiko, publikatutako ikastola eta ikastoletan ematen da; ez ostera, A ereduko inongo saretan, ez publiko ez pribatuetan ere.

Datu horiek era desberdinetan interpreta daitezke. Adibidez, testuliburuak ez erabiltzea izan daiteke arrazoi pedagogiko berritzaileetan oinarritutako erabakia; eta ikastetxe horietan, argitaletxeek plazaratzen dituzten testuliburuak erabili ordezt, beraien Hezkuntza Proiektuaren arabera sortitzakete ikasmaterial propioak. Hipotesi hori bermatuko litzateke baldin eta joera hori hizkuntza eredu guztietan (A, B, D ereduetan) eta arlo guztietan gertatuko balitz. Baina

zergatik gertatzen da testuliburuak ez erabiltzeko joera D eta B ereduetan eta ez A ereduan? Zergatik erabiltzen da testuliburu gutxiago Euskara eta Ingurune arloetan eta gehiago Matematika arloan? Ikerketa hori egin duten egileen ustez, arrazoi pedagogiko berritzaileek baino akulturazioaren hipotesiak indar gehiago izango luke. Hau da, irakaskuntza euskaldunean eta euskara hizkuntzaren presentzia sendoa duten Euskara eta Ingurunea bezalako arloetan testuliburuak ez erabiltzea hizkuntza normalizazioaren aurkako erabakia izango litzateke. Izan ere, testuliburuak erabiltzen ez dituzten irakasleek ez dute hizkuntza aldetik beste alternatiba hobeagorik.

## Bertako/kanpoko argitaletxeak eta Euskal Herriari buruzko ikuspegia

Muruak (1996) Euskal Herrian eta kanpoan bere egoitza duten argitaletxeetan Lehen Hezkuntzarako plazaratzen zizuten testuliburuak aztertu zituen eta oso argi ikusten da Euskal Herriko eta Espainiako enpresek lurraldeari, hizkuntza eta kulturari, historiari eta gizarte-antolamenduari ematen dioten trataera oso desberdina dela. Kanpoko enpresen ikuspegiz Euskal Herria Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen da.

Bilbaok (2003), Ezkurdiak (2004) eta Perez Urrazak (2004) egindako ikerketa lanetan ere antzeko ondorioak ateratzen dituzte. Euskal Herriko ingurune sozial eta kulturalaren presentzia handiagoa da Euskal Herrian sortzen diren testuliburuetan Euskal Herriatik kanpo ekoizten direnetan baino. Bestetik, tokiari dagokionez, Euskal Herrian euskaraz argitaratzen diren testuliburuak ehuneko gero eta murriztagoa da. Adibidez, XX. mendearen amaieran, Madrilen argitaratzen dira euskarazko testuliburu gehienak.

Parisko edo Madrilgo argitaletxeen esku uzten bada testuliburuaren argitalpena, nekez garatu ahal izango da Euskal Curriculum.

## Testuliburuak eta giza-baliabideen kapitalizazioa (I+G)

Testuliburuak, arestian ikusi denez, funtzio ugari betetzen dituzte: funtzio berritzailea, motibatzailea, hezitzailea, kontrolatzailea, politikoa, ideologikoa, ekonomikoa... Funtzio horien artean bada balio erantsi modura izugarritzko garrantzia duena: testuliburuak egiten dituzten egileen formazioa eta zeharka egile horien bidez testuliburuaren erabiltzaileen formazioa.

Testuliburuak sortzea prozesu konplexua eta aberatsa da. Irakaskuntza-ikaskuntza jarduera bat prestatzeko erabaki asko hartu behar dira, eta erabaki bakoitzak koherentea izan behar du beste guztiekin. Jarduera bakoitzean, eta zer esanik ez Unitate Didaktiko bat edo etapa osorako testuliburuak diseinatzen direnean, hezkuntzaren arazo teoriko eta praktikoa guztiak islatzen dira. Erabaki praktikoa hartzeko informazio teorikoa oinarrituz, buruari buelta asko eman behar zaizkio. Irakasle bat ondo formatzeko ez dago, nire ustez, testuliburuak egiten jartzea bezalakorik. Bestetik, egile horrekin egiten den inbertsioa oso biderkatzailea suertatzen da, egile hori testuliburu horien erabiltzaileen prestakuntzaz arduratzen bada.

Testuliburuak funtzio ekonomikoa betetzen dute eta bidezkoa da doakoa ala ez doakoa izan behar duen eztabaidatzea, mailegutza sistema ala zuzeneko laguntzak erabili behar diren... Baina funtzio ekonomikoa hori beste funtzioekin batera aztertu behar da. Izugarria litzateke horrelako erabaki ekonomikoa baten eraginez euskal irakaskuntzaren eragile sendoenetarikoa galtzea.

## Ondorioak

Artikulu honen hasieran, Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumak aplikazio fasean indarrean jartzeko zer-nolako ikasmaterialak eta testuliburuak beharko lirate-



keen irudikatzeko saio bat dela aurreratzen nuen. Testuliburu horiek bete behar dituzten funtzioak, funtsean beste edonongo testuliburuk bete behar dituenen antzekoak dira; baina aitortu beharra dago ez dela batere ohikoa curriculum bat hezkuntzako gizarte eragileen ekimenez egitea, eta are gutxiago politikoki bi estatu eta hiru administrazioetan antolatuta dagoen herri batentzat. Esperientzia berria litzateke eta, irudimenaz aparte, borondatea, ahalmena eta baliabideak beharko dira adosten dugun curriculumari egokitzen zaizkion testuliburuak eta ikasmaterialak sortzeko eta plazaratzeko.

Argi dago Euskal Curriculumaren egitasmoa indarrean jartzeko testuliburuak izango direla giltzarria. Argi dago Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna Euskal Herri osorako adosten bada, orain arte ezagutu dugun testuliburugintzaren ikuspegian aldaketa sakonak eragingo dituela. Baina gai horretaz sakon eta patxadaz pentsatu behar da. Hemen aurreratzen dudan zirriborroa gehiago da pentsatzen hasteko proposamen bat egiteko baino.

- *Komuna eta irekia*

Curriculumaren oinarria (hezkuntzaren xedeak, hezkuntza konpetentzia orokorrak eta eduki metadiziplinarrak) eta enborra (curriculum oinarrizkoa eta komuna) Euskal Herri osorako berdina izatea aurreikusten da. Horren arabera, egiten diren testuliburuak Euskal Herri osorako balio beharko lukete. Baina, era berean, curriculuma lekuan lekukoa izango den neurrian —hau da, herri edo bailara bakoitzaren kultur ezaugarrien, lurralde bakoitzaren curriculum ofizialaren eta hezkuntza sareen ezaugarrien arabera berezia—, testuliburuak ere ezaugarri bereziak izango lituzkete esparru bakoitzean.

- *Koordinatua eta malgua*

Euskal Herri osorako curriculum oinarrizkoa eta komuna eta lurralde bakoitzeko curriculum ofizialak jasoko dituzten testuliburuak prestatzeko, lurralde bakoitzeko egileez

osatutako talde sendoa beharko litzateke. Talde horrek lekuan lekuko egileei laguntza eman beharko lieke bakoitzaren euskalkien egoera (lexikoan bereziki) eta kultur ezaugarri propioak testuliburuetan txertatu ahal izateko.

Curriculum diseinu bakarrean oinarrituz, Euskal Herri osorako eta leku bakoitzeko behar desberdinei batera erantzuteko, testuliburuaren euskarriak malgutasun handikoa izan beharko luke, hau da, aldaketak erraz sartzeko modukoa eta autonomiaz inprimatzeko modukoa.

- *Ikasmaterial osagarriak*


Irakasle gehienek, batetik, ez dute euskal kultura ezagutzeko aukera handirik izan, eta, bestetik, berariazko euskal kultur ezaugarriei buruz plazaratutako informazio gehiena ez dago era didaktikoan idatzita eta oso sakabanatuta aurkitzen da. Alde horretatik, jakintza sail baten inguruan informazioa eman dezaketen liburu monografikoak plazaratzea beharrezkoa litzateke.

- *Irakasleen prestakuntza*

Testuliburuaren zein ikasmaterial osagarrien sorkuntza eta irakasleen prestakuntza uztartu beharrekoak dira. Ikasmaterialak irakasleen eskuetan jartzen diren tresnak edo lanabesak dira. Tresna horien erabilpenaz informazioa eta formazioa ematen ez bazaio, tresna horiek ez ditu ondo erabiliko eta ikasmaterial horien sorkuntzan egindako ahalegina alferrikakoa izan daiteke.¶

**Erreferentziak**

- Apple, M. W. (1984): «Economía política de la publicación de libros de texto». *Educación* 275: 43-62.
- Bilbao, A.; Erriondo, L.; Garagorri, X.; Legarreta, P. M. (zuz.) (2006): *Derri-gorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumua. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, Zamudio (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez).
- Bilbao, B. (2003): *Curriculumua eta kultura Euskal Herrian*. Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Erriondo, L.; Garagorri, X.; Isasi, X. (1998): *Hezkuntzaren normalkuntza*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Euskararen Aholku Batzordea (1992): *Irakaskuntzaren Erreforma eta ikas-materialgintza*. Eusko Jaurlaraitza, Gasteiz (plazaratu gabea).
- Ezkurdia, G. (2004): *Curriculumua eta Ingurunea Euskal Herrian*. Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Garagorri, X. (zuz.) (2004): *Euskal Curriculumua: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez).
- Johnsen, E. B. (1996): *Los libros de texto en calidoscopio*. Pomares-Corredor, Bartzelona.
- Murua, I. (1996): «Lehen Hezkuntzako ikasmaterialari gainbegiratu». *Jakin* 93-94: 45-96.
- Parcerisa, A. (1996): *Materiales curriculares: cómo elaborarlos, seleccionarlos y usarlos*. Graó, Biblioteca de Aula 105, Bartzelona.
- Perez Urraza, K. (2004): *Curriculumua eta testuliburua Euskal Herrian*. Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Zabala, A. (1995): *La práctica educativa. Cómo enseñar*. Graó, Biblioteca de Aula 120, Bartzelona.



## Doakotasuna eta mailegutza

Iazko irailean PSEk Eusko Legebiltzarrean proposatu eta Hezkuntza Sailak indarrean jartzea agindu zuenez geroztik, hainbat eta hainbat lerro idatzi dira testuliburuaren mailegu bidezko doakotasuna indarrean jartzeko proposamenaz. Eztabaida publiko honetan orain arte ikusitakoagatik, ez dirudi doakotasuna bermatu beharko lukeen mailegutza sistemak testuliburugintzaren sektoreko kideen aldekotasunik sortu duenik. Argitaletxeek, liburu-dendariak, euskal curriculumaren egitasmoan inplikaturik daudenek... liburuaren sektorearentzako arrisku larritzat jo dute proposamen horren onarpena.

Testuliburuaren doakotasunaren eta mailegutza inguruko eztabaidan sakondu asmoz, proposamen horren eragina zuzenean jasoko luketenengana jo dugu iritzi eske. Honako auziak planteatu dizkiegu: doakotasuna bai ala ez; doakotasuna gauzatzeko formula edo sistemen balorazioa; mailegutza sistemak liburuaren sektoreari eta euskal curriculumaren garapenari ekarriko lizkiekeen onura eta kalteen inguruko gogoeta.

Galdeketa hau bidali diegunen artean daude testuliburu egileak, editoreak, liburu-dendariak, ikastetxeak, guraso el-

karteak... eta baita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila bera ere. Azkenean, zazpi lagunen erantzunak jaso ditugu guztira. Kristau Eskolak, erantzuteko asmoa adierazi arren, ezin izan du epearen barnean erakundearen iritzia eman.

Ondoren iritzi-emaileei egin dizkiegun hiru galderak aurkezten ditugu:

**1.** Ikasmaterialen doakotasuna proposatzen al duzu, ala ez. Zergatik?

**2.** Doakotasuna gauzatzeko mekanismo edo formula desberdinak aipatzen dira: mailegutza, txeke-liburua, beka, errenta aitoreneko kitapena, edo besterik. Zein formula hobesten duzu, eta zergatik?

**3.** Mailegutzak zein kalte edo onura dakarzkioke zure sektoreari? Eta liburuaren sektoreari? Eta euskal curriculumaren garapenari?



## JUAN JOSE AGIRREZABALA

Ikastetxeen zuzendaria.  
Hezkuntza Saila (EJ)

*Jakin* aldizkariak ikasmaterialen doakotasunari eskaini nahi dion alea dela-eta hainbat sektoreri luzatutako galderetan oinarriturik, zenbait hausnarketa eta erreflexio egin beharrean aurkitzen gara. Hezkuntza Saila 2006ko martxo bukaera aldean Eusko Legebiltzarrean aurkeztu beharreko proposamena lantzen ari da une honetan, Eusko Legebiltzarrak hala eskaturik. Artikulu honetan, beraz, testuliburuaren doakotasunaz eta bereziki mailegutzaz zein errealitate dugun ikusiko dugu.

### Testuliburuaren egoera autonomia erkidegoetan

Bi errealitate orokor dago Estatuko autonomia erkidegoetan:

1. Testuliburuak osorik edo zati batean finantzatzen dituzten erkidegoak.
2. Testuliburuak ikasle jakin batzuentzako diru-laguntza eta beken bidez finantzatzen dituzten erkidegoak.

Lehen egoerari dagokionez, honako autonomia erkidego hauek aurki ditzakegu: Gaztela-Mantxa, Andaluzia, Errioxa, Galizia, Katalunia, Kantabria, Aragoi.

- *Gaztela-Mantxa*

Testuliburuaren doakotasuna arian-arian ezarri zuen lehen erkidegoa izan zen. Egun, Lehen Hezkuntzara eta DBHra hedatzen da diru-laguntza. 2000-01 ikasturtean abiatu zen ekimena, DBHko lehen ziklotik hasita. Hona hemen finantzake-

ta-sistema: ikastetxeek erabakitzen dute zer testuliburu erosi, trukatzeko txartela ematen dute liburuak erosteko, eta liburu-dendek ikastetxeei entregatzen dizkiete fakturak; ikastetxeek, bere aldetik, dirua jasotzen dute Hezkuntza Kontseilaritzatik. Liburuak ikastetxearenak dira, eta lau urtez erabiltzen dira.

- *Andaluzia*

Badago Nahitaezko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan) doakotasuna arian-arian ezartzeko politika bat.

Araua: Kontseilaritzaren Agindua, 2005eko apirilaren 27koa (BOJA, 2005-05-13), funts publikoekin eutsitako ikastetxeetan nahitaezko irakaskuntzak egiten dituzten ikasleentzako testuliburuaren doakotasun-programa arautzen duena.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasle guztiei eragiten die ikasturte honetan.

Ezaugarriak:

- Ikasleek doan dituzte, maileguan, ikastetxeak aukeratutako testuliburuak.
- Zuzendariak gurasoei liburu-txekeak eman eta gurasoek eurek aukeratutako liburu-dendetan trukatzeko dituzte.
- Administrazioa da liburu horien jabe. Ikasturtearen amaieran jasotzen dira, eta beste ikasle batzuek erabil ditzakete hurrengo ikasturtean.
- Liburuak hondatu edo galduz gero, familiek ordezkatu edo berriak jarri behar dituzte.
- Lau ikasturtez behin berritzen dira liburuak, Lehen Hezkuntzako lehen zikloari dagozkionak salbu, ikasturtero berritzen dira eta.

Liburu-txekea ematen zaio familiari, eta familiak liburuak nahi duen liburu-dendan erosteko erabiltzen du.

- *Errioxa*

DBH guztiko doakotasuna ordaintzen du. Familiek liburuak erosi eta dagokien dirua ordaintzen zaie gero, ikaste-

txeen bitartez. Ikasturtearen amaieran, liburuak itzuli egiten dira eta lau urtez erabiltzen. Lehen Hezkuntzan, aurreko ikasturtean, 90na euro ordaindu zitzaizkien lehen kurtsoko haur guztiei. Aurten, Lehen Hezkuntzako bigarren kurtsoko ikasleek ere eska ditzakete laguntzak.

- *Galizia*

Ikasturte honetan, Erkidegoko Administrazioak bere gain hartuko du Lehen Hezkuntzako etapako liburuoen doakotasuna. Mailegu-sistema erabiliko da eta, beraz, erabili ondoren, ikastetxean utzi behar dira liburuak, beste ikasle batzuek ere berriz erabili ditzaten. Aurreko ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek ere jaso zuten materiala maileguan, baita DBHko bigarren mailakoek ere, saio gisa.

- *Katalunia*

Kooperazio-programa bat dute abiarazi berria, testuliburuoen berrerabilpena bultzatzeko nahitaezko irakaskuntza ematen duten eta funts publikoekin eutsita dauden ikastetxeetan (Ebazpena, EDC/1434/2005, maiatzaren 9koa. DOGC 2005-05-13).

Ikastetxeei ematen zaizkien laguntzak dira, nahi dituzten liburuak eros ditzaten (autonomia baitute ziklo jakin batzuk aukeratzeko, edo alor jakin batzuk, eta abar), gero berriz ere erabili ahal izateko.

Ikastetxeek, programarako aukeratzen badituzte, 1.875 euroko dotazioa jasotzen dute Lehen Hezkuntzan baimendutako lerro bakoitzeko, eta 3.000 euro DBHn baimendutako lerro bakoitzeko.

- *Kantabria*

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan dago ezarrita doakotasuna. Hurrengo ikasturteetan doakotasuna arian-arian ezartzeko asmoa dute. Familiek liburuak erosten dituzte, 100 euro baino gehiago ordaindu gabe, eta ordainagiriak ikastetxeei ematen dizkiete, Administrazioak finantza di-



tzan. Arazoak izan dira ikastetxeetako zuzendaritzekin, kudeaketa hori eurei ez dagokiela uste baitute.

- *Aragoi*

Doakotasuna maileguaren bidez gauzatzen da, eta Lehen Hezkuntza osoan eta DBHko lehen kurtsuan dago ezarrita. Ikasturte honetan DBHko bigarren kurtsora ere zabalduko da. Beste autonomia-erkidegokoen antzekoa da prozedura.

Gainerako erkidegoetan (Nafarroa, Madril, Balearrak, Kanariak, Valentzia...) ez da planteatu testuliburuaren doakotasuna arian-arian ezartzea. Hainbat egoera dago, baina bada elementu komun bat: gizarte-egoera ahulentzako diru-laguntzak eta bekak. Horra:

- *Balearrak*

Ez dago ezer berezirik, liburuatarako laguntza-deialdia salbu.

- *Madril*

Ez dago liburuaren doakotasun-politika unibertsalik.

Badute liburuaren mailegurako programa kudeatzeko prozedura bat, ikasle hauek hartzen dituen: egoera sozioekonomiko ahulean daudenak, gizarte-garantiakoak eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan eskolatutakoak (1888/2004 Agindua, maiatzaren 21ekoa. BOCM 2004-06-08).

- *Nafarroa*

Ez dago doakotasun-politika unibertsalik. Sailburuak berak, ikasturtearen hasieran, Eskola Kontseiluaren bilera batean adierazi omen zuenez, ez ei dago euren lehentasunen artean.

## Testuliburuaren egoera Europan

Europako Herrialde askotan ematen da mailegutza bidezko doakotasuna. Hona hemen horietako adibideak: Norve-

gia, Islandia, Suedia, Danimarka, Herbehereak (Lehen Hezkuntza), Ingalaterra, Frantzia, Italia, Alemaniako Land bazuk, Grezia... Gehientsuenetan derrigorrezko hezkuntza orokorreko testuliburuak finantzatzen dira, mailegutza delarik harturiko neurririk zabalena.

## EAEko egoera

Gaur egunera arte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bekak ematen ditu, eskola-materialerako laguntza barne, senideen gutzitiko kopuruaren eta diru-sarreraren arabera (senide 1: gehienez, 10.624 €; 2: 18.160; 3: 24.641; 4: 29.419; 5: 32.717; 6: 35.295; 7: 37.835; 8: 40.375...). 2004-05 ikasturtean, Sail honek 8.871.600 € erabili zituen, 86.008 ikaslerentzat; hau da, bai ikastetxe publikoetan bai itunpeko pribatuetan eskolatuta dauden 3 urtetik 18 urtera bitarteko ikasle guztien %25,25. Hona eskola-materialerako laguntzen zenbatekoa: 71 € Haur Hezkuntzarako (2. zikloa), 112 Lehen Hezkuntzarako eta Hezkuntza Berezirako, 207 € goi mailako heziketa zikloetarako, eta 131 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako eta gainerako irakaskuntza-mailetarako.

Era berean, Hezkuntza Saila proposamen bat prestatzen ari da martxoan Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeari aurkezteko, ondokoak bateratzeko bide emango duena: funts publikoekin eutsitako ikastetxeetan nahitaezko irakaskuntzan ari diren ikasleen eskola-materialaren finantzaketa, eta balioetan hezte, kultura-ondasun den liburuaren mailegu eta zaintzaren praktika errespetatuz.¶



## JUAN CARLOS ALONSO

EHIGE

Irakaskuntzaren munduan eztabaida historikoa da egun Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskuetan aurkitzen dena. Hark erabaki beharko du Euskal Parlamentuaren aginduarekin zer egiten duen, eta behar denean doakotasun hori nola gauzatzen den erabaki.

Eztabaida esparru ekonomikora eramateko ahaleginak ikusten ari gara, eta horrekin ez gaude batere ados, aspektu hori, ekonomikoa, erakusten duen alderik ahulena baita.

Lehenengo eta behin gogoratu behar dugu gure irakaskuntza sistema publikoa unibertsal eta doakoa planteatzen dela, gizarte honek hezkuntza instituzioa haren oinarritzko zutabea izan behar duela erabaki baitu. Bada, unibertsaltasunari dagokionez %100 ia lorturik dagoenean, eskolak hiritarren erosteko ahalmenean gizarte desberdintasunak errepikatzen jarraitzen du.

Familia batzuei seme-alabek erabiltzen dituzten eskola materialen erosketak eragindako gastuei aurre egiteko nahikotasun ekonomikoa suposatzen zaien bitartean, besteei laguntza publikoak —bekak— eskatzera behartzen zaie. Gertaera hau, berez, bidegabekoa iruditzen zaigu, Euskal Eskola Publikoaren helburuetako bat ezberdintasun guztiak —ekonomikoak barne— gaintitzea izan behar duelako, lukeelako.

Guztiok dakigunez, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak urte batzuetatik hona testuliburuak erosteko diru laguntza sistema publiko bat ezarri dute. Programa honetan egiten den planteamendu askorekin ez gaude ados,

baina momentu honetan ezin gara eztabaida horretan sartu, instituzio horietan ematen ari den neurriak mesede nori egiten dion eztabaida aipatu baizik, hainbat ahots altxatu baitira laguntzak emateko irizpide gisa errenta erabiltzea eskatuz benetako justizia soziala eman dadin.

Gure ustez argudio hori tranpa bat baino ez da eta kutsu paternalista nabaritzen zaio, guk justizia hori zerga-betebeharrei aurre egiteko garaian planteatzea proposatzen baitugu. Zoritzarrez gaur egungo diskurtsoa bestelakoa da: zerga zuzenak jaitsi eta berdintasun soziala zeharkakoetan, familien egunerokotasunean eragin gehien dutenak hain zuzen ere.

Mundu osoan ematen ari den zergen presioa jaisteko joera hori zerbitzu publiko gutxiago izatera edo erabiltzen ditugunean doako prestazio gutxiago izatera eramango gaitu —garamatza—, beste garai batzuetan aldarrikatzen zen elkartasun printzipioarekin apurtuz. Hortik eskola txekaren proposamena, ikuspuntu askotatik bidegabera, baina erakar-garritasun handia aurkezten duena hainbat instituzio eta hezkuntza alorreko eragilerentzat. Hainbat dira adibideak: medikamentuak, ordaindu beharreko errepide publikoak, egungo beharrei aurre egiteko osasun sistema publikoaren ezintasuna medikuntza pribaturantz bideratuz, gero eta murriztuagoak dauden gizarte zerbitzuak, pentsio planak, eta abar.

Baina alda dezagun esparrua, testuliburu berrerabilpenak zenbait produkzio sektoretan, editorialean hain zuzen, izango duen eraginaz mintzatzen direnei erantzuna eman nahian.

Alde batetik sektore honetatik kritika ugari jaurtitzen ari dira erabilitako testuliburu berrerabilpenak eragin ditzakeen ondorio larrien inguruan. Gure aldetik ez dugu inor diskurtsoaren bidez konbentzitu nahi; horren ordez, halako neurriak abiatzen urte asko daramatzaten ikastetxeen esperientzia ezagutzeko gonbita luzatuko dugu. Hor ditugu Samaniego Ikastetxea eta Toki Eder Ikastola Gasteizen, eta Ara-

bako ikastetxe batzuetan burututako Liburtxo kanpaina. Esperientzia horietatik jasotako emaitzak hezkuntza mailan kokatzen ditugu eta ez ekonomikoan, eta ziurta dezakegu heziketaren kalitate eta emaitzetan ez dutela jaitsierarik suposatu.

Baina joan gaitezen harago. XXI. mendean ikasketarako oinarrizko material lagungarria liburuak izan behar duela pentsatzea errealitatearen eta egiaztatutako egitateen aurka joatea da. Informazioaren Teknologia ekonomia, produktio, osasun, gizarte eta bestelako esparruetan nagusitzen ari dira. Eta hezkuntzarena ezin da atzean gelditu, are gehiago, lehentasunezko esparrua izan beharko luke, besteren artean, gure gizartean ematen ari den arraila digitala apurtzeko.

Aldaketa horiek bestelako sektore produktiboen azalera tzea suposatzen dute, gure gizartean ohikoa den fenomeno. Adibidez, harrigarria litzateke idazteko makinak produzitzen zituztenek ordenagailu eta inprimagailuen erabileraren aurka agertu izan balira. Ez ziren aurka jarri, lanabes berri haiek produzitzen hasi ziren.

Bukatu baino lehen, eztabaida honetan kontuan hartzen ez diren aspektu batzuk aipatu nahi ditugu. Hauen artean, hainbat irakaslek ikasketarako material lagungarriak dauzkaten ikasleen arabera moldatzeko egiten ari diren lana aitortu, hutsetik sortuz zein iturri ezberdinak erabiliz, horietako asko betiko testuliburuak izanik. Ez dira ugariak adibideak baina badira eta ezagutu nahi genituzke lortutako emaitzen gaineko balorazioa.

Baina, horrez gain, ikasleak haien materialen, haien liburuaren prestaketan inplikatzeko diren proiektuak ere ezagutu ahal izan ditugu. Prozedura horrek berez errazten du ikasketa prozesua eta hainbat balio gehitzen dizkio: sormenaren garapena, talde lana, erantzukizuna, eta abar.

Hasierara bueltatuko gara. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak testuliburuaren doakotasuna euskal hezkuntza sistema publikoan errealitate bihurtu dadin beharrezko neurri eta baliabideak ezartzeko erantzukizuna du. Guk urteak daramatzagu doakotasun hori ekonomikoki jasangarriagoa eta hezi-

tzaileagoa izan dadin alternatibak lantzen: berrerabilpena, liburu digitala. Ziur beste asko daudela eta etorkizunean agertuko direla.

Gure aldetik prozesu honetan proposamenak eginez, gestioan edota emaitzak ebaluatuz parte hartzeko gertutasuna adieraztea baino ez zaigu gelditzen.¶



## JUANKAR ARETXABALETA

Sortzen-ikasbatuaz elkarteko  
lehendakaria

*Sortzen-ikasbatuaz eskola publiko euskaldunen elkartean, arreta handiz jarraitzen ari gara aspalditik eremu publikoan izandako aldarrikapen historiko honen inguruan azken boladan erakunde publiko, hezkuntza eragile zein euskal argitaletxeetatik mahai gainean jartzen ari diren jarrera ezberdinak, aurrerapausoak emateko asmoz. Beraz, une honetan *Jakin* aldizkariak eskaintzen digun tribuna baliatuz, hona hemen gai honi buruzko gure ikuspegi-proposamena:*

**1** • Irakaskuntza publikotik testuliburuena behin eta berriz mahairatu dugun gaia izan dela ezin dugu ahaztu. Irakaskuntza publikoak ikasle guztientzat aukera berdintasuna bultzatzen du eta material honek urtero dakarren gastuari aurre egitea zaila izaten da zenbait etxetan.

Beraz, puntu honen inguruan zerbait mugitzen hasteak poza eman digula ezin dugu ukatu. Hori bai, testuliburuak dakarten gastuaz gain, beste zenbait materialek sortutako arri irtenbidea bilatzea ere ez litzaiguke gaizki etorriko. Oso gutxi igo da ikastetxe eta ikastola publikoetara heltzen den urteroko diru kopurua; asko, ordea, bertan erabiltzen dugun materialaren kostua (ordenagailuen osagaiak, fotokopiagailua, inprimagailuen tintak...).

**2** • Gaur egun ikastetxeetan erabiltzen diren metodologiek liburuena erabilera desberdina eragiten dute: batzuetan testuliburuena bilakatzen da ikasketa prozesuaren ardatz;

beste batzuetan, ordea, ez dira erabiltzen, edota gai batzuetan bakarrik; besteetan gaien garapenean lagungarri gisa besterik ez... Bestalde, badira gaiak liburuen erabilera bera baldintzatzen dutenak: matematikan, adibidez, garrantzitsua edo ezinbestekoa da liburua «zikintzea», ez beste arlo batzuetan, ordea.

Hau dela eta, formula bera ezin izango dugu aplikatu leku guztietan: liburua jarraitzen duten ikastetxeetan ezingo dute lau urtez ale berberekin jarraitu. Oso gutxi edo lagungarri gisa erabiltzen dutenetan berriz, lau edo urte gehiago egin ditzake liburu berberak ikasleen eskuetan.

Beraz, hartu beharreko erabakiak malgua izan beharko du eta ikastetxe bakoitzari utzi beharko dio bere hezkuntza egitasmoak esaten duenari erantzuna emango dion formularik egokiena aukeratzeko.

**3.** Oraingo honetan Eusko Jaurlaritzak proposatzen digun mailegu erak aldeko puntu asko dituela ezin ukatu. Alde batetik, haurrak liburuak, eta materiala orokorrean, zaintzeko ardura hartzea bultzatzen du. Bestalde, horrela saihestuko genuke etxeetan ikasturte bukaera guztietan egingen dugun «garbiketa», naturarekin begirune handiagoa gordez. Hasteko, beraz, ez zaigu ideia txarra iruditzen.

Zenbaiten iritzian, berriz, liburuak berrerabiltzeak ikasleen motibazioa jaitsi lezake, baina orain arteko esperientziak ez du hori baieztatzen. Bestetik, ikastetxeetan antolaketa arazoak sortuko omen lirateke. Ezin dugu ahaztu, ordea, ikastetxeetan antolaketa maila altuagoa eskatzen duten bestelako lanak burutzen ditugula dagoeneko. Beraz, egin, egin daiteke, baina horretarako ere baliabide egokiak (batez ere giza baliabideak) beharko genituzke.

Bestalde, lehendik ere bizirauteko zailtasunak dituzten euskal argitaletxei mesederik ez diela ekarriko garbi dago. Gainera, testuliburuaren salmenta murrizteak berrikuntza eta egokitzapenerako zailtasun erantsia ekarriko luke, eta arazo horri heldu egin behar zaio, zalantzarik gabe.



Gure iritzian, jendarte osoak erantzun behar dio egoerari. Irtenbideak adostua, bateratua izan behar du. Edozein erabaki hartu aurretik, Eusko Jaurlaritza, hezkuntza eragileok eta argitaletxeek bildu egin beharko genuke adostasuna lortzeko asmoz. Eta ez testuliburuaren inguruan bakarrik. Hasieran aipatu dugun bezala, ikastetxeetan erabiltzen dugun beste material guztiaren inguruan ere finantzabideak aurkitzea ezinbesteko jotzen dugu.

Azkenik, Euskal Curriculuma garatzen den heinean, ares-tian aipatu dugun berrikuntza eta egokitzapen beharra areagotu egingo dela argi dago.¶



## JORGE GIMENEZ

Euskal Editoreen Elkarteko  
lehendakaria

**1** ● Izaera desberdineko balioen arteko lehia da galdera honek planteatzen duena. Alde batetik, hezkuntzarako eskubidearen unibertsaltasuna dugu, ezbairik gabe, gizarte aurreratuen lorpen handienetarikoen arteko bat; bestetik, diru baliabide asko eta gutxi dutenen arteko etena laburtzearen aldeko joera aski hedatua da gizarte horietan (Europako mendebaldean, bederen), eta ez dira gutxi familien errenta kopuruen alderantzizko bidean doazen neurri berdintzaileak (bekak, poltsak, kontribuzio eskala progresiboak, etab.).

Bada, gainera, testuliburuaren doakotasunaren kontu honetan eraginik duen beste zerbait: doan ematen denak ez omen du hartzailearen baitan zertasunik bereganatzen; baliogabearen sinonimo bilakatu omen zaigu doakoa. Horrela ohitu gara, behintzat, merkatu balioak hain era sakonean erroto zaizkigunez geroztik.

Konplexua da, beraz, bidegurutzea, eta ez dagokie, jakina, editoreei auzi hori beren irizpide propioen arabera soilik erabakitzea, beste inolako sektoreri ere ez dagokion bezala. Izan ere, gizarte osoaren muin-muineko ezaugarrien baitakoak dira kontu hauek, eta gizarte osoari dagokio, beraz, erabakitzea, eta adostasunaren bidez ahal dela.

Nolanahi ere, eta iritzia denez eskatzen zaidana, esan ditzadan nik auzi honetan kontuan hartzekoak uste ditudanak:

a) Derrigorrezko hezkuntzan, testuliburuaren doakotasun unibertsala hobesten dut gainerako balioen gainetik, neurri

horrek gizarte balio berezia eransten diolako testuliburuari, premiazko gaitzat hartzen baita.

b) Derrigorrezko hezkuntzatik gora (beti ere araututako ikasketetan, jakina), ikaslearen baliabideen araberrako laguntzak ezarri beharko lirake, bai testuliburuetarako, baita osagarritzat erabiltzen diren liburuetarako ere. Hona hemen, zalantza izpirik ere gabe, irakurzaletasuna eta liburuaren erabilera (fotokopien orde, adibidez) bultzatzeko guttiz eraginkorra izan daitekeen neurri bat.

c) Aldi berean, eta indar berberaz, etengabeko lan pedagogikoa egin beharko da, bai ikasle, bai guraso, bai irakasleen artean, liburuarekiko harremana hobetzearen alde, doakotasunaren pertzepzio jakin batek ekar litzakeen ondorio kaltegarriak saiheste aldera.

**2.** Testuliburuaren doakotasuna errenta aitortpenean txertatzeak nolabaiteko progresibitatea ezartzen du, eta aukera berdintasunaren aldekoagoa dirudi. Horretatik oso gertu ikusten dut beka sistema, familien errekurtsoen araberrakoa baldin bada.

Liburu-txekeak, berriz, eredu linealen berdinkeriaren arriskua du, nahiz eta, epe motzean, bera den doakotasunaren printzipioa agerien jartzen duen bidea, liburua erostearrekin batera gauzatzen baita laguntza.

Biderik txarrena, nolana ere, mailegua da, hurrengo galderan aipatuko ditudan bestelako kalteez gain, ikaslearentzat (ikaskuntzarentzat, beraz) kalte nabarmenak ere bada kartzalako: sistema honek mugatu egiten du, ezinbestez, testuliburuaren erabilera, eta erabat baztertzen du testua lantzeko hainbat estrategia.

Horrekin batera, testuliburuaren kalitatea pobretzea leharke maileguak, batez ere euskal testugintzari dagokionez. Izan ere, testulibururik ekoizten duten argitaletxeek inbertsio handiak gauzatu behar izaten dituzte testu horiek sortzeko ezinbestekoak diren lantaldeak sortzeko, eta hiruzpalau urteko zikloa behar izaten dute erabilitako diru baliabideak berres-

kuratzeko. Maileguak lau aldiz luzatuko luke ziklo hori, eta hori, jakina, eramanezina da argialetxe gehientzat (guztiantzat ez bada), are eramanezinagoa euskal testurik ekoizten dutenentzat, azken hauen merkatuaren neurriarengatik.

Kalitate galera horren bide beretik letorke, gainera, kultur eta ideia aniztasunaren aurkako eraso. Azken batean, maileguak ekoizleen soiltze nabarmena lekarke, eta, soiltze horrekin batera, testugintzaren kultur ikuspegiaren uniformetzea.

**3.** Kalte besterik ez dakar maileguak liburugintzaren sektorearentzat, oro har, eta oso bereziki euskal liburugintzarentzat. Aurreko galderari erantzuterakoan aipatutakoaz gainera, hona hemen kalte nagusiak, luzeegia litzatekeen zerrenda batetik aukeratuak:

a) Liburugintzan diharduen kultur industria ahultzea: liburu salmentaren %60 baldin bada testuliburuari dagokiona, garbi dago nondik helduko zaion kaltea liburugintzaren sektoreari, eta oso bereziki berez ahulagoa den euskal liburugintzarenari. Eragin hori, bestalde, ez litzateke ekoizlearen gauzatuko (ondoriorik lazarrienak bertan izango litzatekeen arren): liburuaren salmenta kate osoa kaltetuko luke maileguak, eta, horrekin batera, liburuaren presentzia urriagotuko luke era benetan bortitzean. Begien bistakoa da nolako gurpil zororako kondena den, liburuarentzat oro har eta euskal liburuarentzat bereziki, maileguaren bidea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioen ekimenez euskal gizartea aspaldian gauzatzen ari den hezkuntza eredu eta eduki propioen aldeko apustuarekin erabat kontraesankorra da maileguaren bidea. Izan ere, maileguak ukatu egingo dio euskal liburugintzaren sektoreari (bertako irakas-kuntzari, beraz) ikasmaterialak bertan landu, ekoiztu eta garatzeko aukera. Morrontza begien bistakoa litzateke: ikasmaterialen kultur, hizkuntz eta hezkuntza egokitasuna bigarren mailan geratuko da, euskararen eremuko baina askoz ere merkatu handiago batean ase beharko diren erren-tagarritasun irizpideen mesedetan.¶



## IÑAKI LEKUONA

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko  
zuzendaria

**1.** Aukeran ez nuke proposatuko; onartuko nuke onartu behar izango banu, baina ez besterik. Sozialki ez da justiziazko neurria, horren aplikazioa modu orokorrean planteatzen den bitartean. Izan ere, familien ekonomi maila oso desberdina baita, eta beharren arabera aplikatu beharko litzateke laguntza. Areago, horrelako beste neurri batzuk gizartean indarrean direla adierazteak ez du inolaz ere zuzenesten oraingo horren inplementazioa. Neurri erabat populista da, PSOEk aspaldidanik indarrean jarri nahi zue-na, bere ezker politika egiteko prestutasuna adierazteko erreferente garrantzitsuena izango balitz bezala.

**2.** Mailegutza kenduz, besteen arteko edozein, beti ere, modu ordenatuan eta egokian aplikatzen bada. Halere, gehiago ezagutu beharko nuke beste hiru alternatiben aplikazioak nondik nora joango liratekeen. Hirurak egokiak izan litezke baina, aldi berean, pikareska handia gauzatzeko zirrikituak dituzte. Baten baten alde agertzekotan, errenta aitropeneko formula proposatuko nuke, zuzen-kontrakoak saihesteko segurtasunik handiena ematen duelako, nire us-tez.

**3.** Hezkuntza munduan, eta ikastolen kolektiboan bertan, badago, egon, ikastetxe bat edo beste mailegutza bere ekimenez martxan duena. Mikro-esperientzia horien emaitza nahiko ona izan omen da gaurdaino. Baina maile-

gutza-esperientzia horiek, nagusiki, arrazoi batengatik abiarazi dira: arrazoi ekonomikoagatik, alegia. Liburuen mailegutza soilik aplikatuz jorratzen den sozializazio balioa oso maila apalean garatzen da, beste estrategia zehatz batzuk landuz lor litekeen balio beraren sakontasun mailaren aldean. Beraz, hori beharrean, beste alternatibaren bat martxan jarritz gero, ikastetxeek, oro har, mintzagai dugun auzia hobeto jaso eta gauzatuko luketelakoan nago.

Mailegutzaaren aplikazioak endredo handia ekar lezake ikastetxeentzat, beraz, hezkuntza sektorearentzat, kudeaketa osoa beraien baitan geratuko litzatekeelako. Bestalde, liburu-salmentaren murrizketa izugarria izango litzatekeenez, Euskal Herriko argitaletxeen iraupena oso kinka larrian geratuko litzateke eta, ondorioz, euskal kultura bera ere oso ahuldua, kanpoko argitaletxeen esku-hartzeak eraginda. Abantaila handia izanik ere garapen bidean dugun euskal curriculumaren planteamendua finkatzea edota teknologia berriak hezkuntzaren curriculumean garatzea, arrisku handia letorkiguke ikasmaterialak, bertan sortu ordez, itzulpen hutsak bihurtzeko. Euskal curriculumaren garapena ezinbestekoa dela sinisten duten alderdi politikoei neurri hau bultzatzea ez da inolaz ere ulergarria. Bestalde, gizarte-gastuen murrizketa liburuen bidez egitea ikaragarria iruditzen zait. Askotan aipatzen dugu gutxi direla gizarteak kulturaren egiten dituen gastuak; mailegutza neurriaren bidez are eta txikiagoa egin liteke. Haurrek eta, oro har, ikasleek liburua beren gauza propiozat hartzea oso egokia da; eta behar denean bertan idaztea, osatzea, azpimarratzea, margotzea, e.a. oso interesgarria da ikasten ikasteko gaitasuna lantzeko... eta lortzeko bidean jartzeko. Mailegutza formula indarrean jar baldi jipoi galanta hartuko luke Euskal Herriko liburuaren sektoreak. Eta horretan parte hartzen duten eragile guztiek nekez iraugo dute denbora luzez beren ohi-ko lanbideetan. ¶



## JESUS MARI OLAIZOLA «TXILIKU»

Idazlea eta testuliburu egilea

**1** ● Iruditzen zait niri ez dagokidala, euskarazko ikas-materialgintzan aritzen den langilea naizen aldetik, ezer proposatzea, ez doakotasuna eta ez beste ezer ere. Iruditzen zait, baita ere, doakotasunaren eta antzeko jokaera «jatorren» eta populisten aldeko proposamenak eginez jarduten dutenak politiko jendeak izaten direla, «jatorrismo» horrekin jendearen oniritzia lortu nahiz, edo, besterik ez bada, horrelako portaerek boto gehiago ekarriko dizkietelakoan. Prentsak ere ez du inolako erreparorik izaten gaiari heldu eta urtero topiko berak alde batetik eta bestetik haizatzeko. Aldian behin hor agertuko zaizkigu kirolari ospetsu baten belauneko minen eta dendarien merkealditako jendearen eromenaren albisteen artean ikasle txikiaren motxilaren gehiegizko pisuak eta ikasturtearen hasieran liburutan eta ikasmaterialetan egin beharreko gastu gehiegizkoa.

Eta ni ez nago doakotasunaren aurka, kontuz!

Gobernuak gizarteari eskain diezaiokeen laguntza kultural guztiaren alde nago. Zenbat hobeago gure diruak kulturaren eta hezkuntzan jorratzen badira gastu militar eta antzekoetan baino: beti ere hobe liburuak tanketak baino...

Baina galderari, edo proposamenari, beste alderdi batetik heldu nahi nioke nik: justiziaren ikuspegitik eta gutxien duten jendeari laguntza eskaintzearen aldetik. Eta hauxe da egingo nukeen gogoeta: ez ote da bidezkoagoa benetan premia larrian dagoenari laguntzea *urbi et orbi* bedeinkazioak txiro eta aberatsi banatzea baino? Eta ez bakarrik liburuak

erosterakoan, baita beste hainbat gauzatan (edo zer gertatzen da, liburuak garestiak direla, baina futboleko egiteko oinetakoak ez?).

**2.** Badira erronka gustatzen zaien pertsonak, harro samarrean ibiltzea, besteetatik nabarmentzea, besteen aurrean eskuzabal agertzea; eta badira pertsona xuhurrak, zekenak, esku laburrekoak, eutsiak... Batzuk eta besteak ez dira bidelagun egokienak, baina benetan pertsona gogaikarriak harro zekenak dira, eskuzabalen itxura egin ondoren miserian ibiltzen direnak.

Eta ez dakit zergatik, baina iruditzen zait gure agintarien jokaera harro zekenarena izango dela doakotasunaren kontu honekin. Badirudi esaten ari direla «ikasmaterialen gastuak nire kontu», eta susmoak ditut erronka hutsa dela, hori esan ondoren eskua labur eta poltsikoa ahalik eta itxiena edukitzeko asmoa dutela.

«Gastuak nire kontu» esan ondoren hitza benetan betetzeko, gauzak behar bezala egiteko, bide bat errenta aitorpenaren kitapena erabiltzea da. Azken batean, gure diruak agintarien eskuetan jartzen baditugu (beste erremediorik ez badugu ere), agintari horiek ahalik eta hoberen banatuko dituztela uste dugulako da, ala ez? Eskuzabala izanik, liburuak erosteko txekeak ere eskain ditzakete, beste bide bat da.

Hain eskuzabala izan gabe, behar gehiena dutenentzat bakarrik izan daiteke liburuen txeke hori, edo laguntzako behar diren adina beka emanaz...

Harro zekenarena izango litzateke, ordea, mailegutza kontu hori. «Dena nire kontu» esanez dator mailegutza, hala dirudi, baina azkar baino lehen nabari da zikoizkeria. Bat, ikasleari ez zaio ikasmateriala liburu berriaren baldintzetan emango: ikasle bakoitzak ukiezina izango du erabiltzeko (ez oharrik, ez azpimarrarik, ez eskemarik...) eta (badakigu nolakoak diren umeak) zenbaitetan hondatzen hasitako liburua jaso beharko du berak zaindu duena baino askoz oke-



rrago zaindu duelako beste batek (esango digute liburuak zaintzen ikastea oso hezitzailea eta *formatiboa* dela, baina zuk uste duzu ikaslearen heziketari begira hartu dutela erabaki hori?). Bi, irakasleari lan gehiago eskatuko zaio, eta gelako antolaketa eta curriculumaren programazioaz gain, liburuen kudeaketa egin beharko du: urtearen hasieran banatu, urtean zehar zain ditzaten arduratu, urtearen amaieran bildu, sailkatu, hautatu, berritu... Hiru, ikastetxeari liburuen salerosketa eta banaketa etorriko zaie gainera: zenbat liburu, nola eskuratu, ekarri, banatu, sobratzen direnak itzuli...

Bitartean, gaur egun lan horiek egiten dituzten herriko liburu dendek nahiko arazo izango dituzte liburuetatik bizi ahal izateko baina, tira, kalte «kolateralak» dira horiek...

Ez dakit nondik nora joango den ikasmaterialen kontu hau, baina egingo nuke apustu harroxo zekenaren bidea hartuko dutela gure agintariek... eta benetan triste da!

**3.** Arrain handien eta arrain txikien kontua da hau. Arrain txikiari nahiko zaizkio bi izotzaldi hezurak gogortzeko, eta arrain handien hortzetan erortzeko. Eta gu, herri txikia garen aldetik, arrain txikiak gara. Herri txiki baten-tzako ikasmateriala euskaraz egitea lan gogorra da alde horretatik. Nahikoa dira bi izotzaldi eta gureak egin du. Gutxi gara, gutxi saltzen da, ezin zaio lanez, diruz, orduz, ekitez... egindako inbertsioari bueltarik eman epe laburrean. Mailegutzarekin liburuaren erabilera bikoiztu, hirukoiztu, lau-koiztu... egiten bada, bi erremedio daude ikasmateriala egiten jarraitzeko: euskaraz irakasteko liburuaren prezioa bikoiztu, hirukoiztu, lau-koiztu... edo etxe handiek egindako materiala itzuli: arrain handien hortzetan erori...

Euskal curriculumaren betiko utopia oraindik utopiago bihurtuko da horrela. Nondik atera horretarako behar diren ordu, lan eta diruak?

«Xuhurraren poltsak bi zulo» esan ohi du gure amak, eta egia dioela iruditzen zait. Ez al ditu bi zulo edukiko mailegutzaren poltsa zaratatsu eta haizez betetako horrek?

Dena dela, beti gorde dezakegu harro puntu hori, eta esan «Euskadin hezkuntza doakoa da»; oso ondo geratzen da hori gure agintarietako bat bisitan doanean, jo dezagun, Herbehereetara, edo Kataluniara bertara, zertara joan urrutiago. Han hizkuntzari beste pisu bat ematen diote, baina, tira... dotore dago esaldia... Beharbada gero ahaztu egingo zaigu ez garela gai izan geure curriculumuma osatzeko, edota osatuta izanik ere ez dugula garatzerik izan ezinezkoa zai-  
gulako geure ikasmaterial propioa egiteko abenturan sartzea. Agian pittin bat lotsatuko gara hurrei mailegutzan uzten dizkiegun liburu horiek Madrilen eginak direla ikusten dugunean, baina ordurako, agian, ez zaigu gehiegi axolako Madrilen erabakitzea nolakoak garen, nolakoak izan behar dugun eta nolakoak izango garen euskaldunok. ¶



## KEPA TORREALDAI

Bizkaiko Liburu-denden Elkarteko  
lehendakaria

Laster batean, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko iragarrita duenaren ildotik, Hezkuntza Sailak proiektu bat aurkeztuko du hurrengo ikasturtetik aurrera «mailegutza» sistemaren bitartez testuliburuaren doakotasuna ezartzeko. Liburu-dendariok, testuinguru honetan, neurri horrek gure kulturarentzat izango dituen ondorioei buruzko gure iritzia jakinarazi nahi diogu euskal gizarteari.

**1** ● Lehenik eta behin, liburu-dendariok testuliburuaren doakotasunaren alde gaude. Euskal familia guztien eskubidea da beren seme-alabek testuliburuak baldintza berberetan eduki ahal izatea, eta horrela ikasle guztientzako hezkuntza kalitate egokia bermatu ahal izatea. Xede hori lortzeko euskal administrazioak har ditzakeen neurri guztiak jotzen ditugu beharrezkotzat, baina liburuaren eta bere kultur eragileen sektorea ahuldu gabe. Liburu-dendariok, auzi horren aurrean, beti proposatu izan ditugu doakotasuna lortzeko hainbat eredu, beti ere testuliburuaren egungo egoeratik urruntzeko asmoz: deskontuen liberalizazioak sal-gune handien alde jokatzeko du, eta hainbat eta hainbat liburu-denda ixtera behartzen ditu.

Liburu-dendariok, beraz, ez gaude testuliburuaren doakotasunaren aurka, baina ez gatoz bat inola ere euskal administrazioak ezarri nahi duen «mailegutza» ereduarekin. Izan ere, sistema hori ez da doakotasunean oinarritzen, eta gainera liburu-dendak egoera kritikora bultzatzen ditu.

**2.** Testuliburuaren doakotasunerako dauden formulen aukera zabalaren artean, liburu-dendariok liburu-txeke sistemen aldekoak gara. Alegia: liburu-txekea kopuru jakin bateko ordain-dokumentua litzateke, familiei ematen zaiena liburu-dendatan testuliburuak eskura ditzaten.

Sistema horrekin, familiak liburu-denden sarera datoz testuliburuak lortzera eta liburu-dendarekin harremanetan jartzen dira. Horrek, jakina, bezero gazteak eta etorkizuneko irakurleak atxikitzeke aukera irekitzen digu. Horrela, euskal kulturaren industria indartzen dugu, gu haren baitakoak garen heinean, gure liburu-dendatan gizarteari kultur aniztasuna eskainiz.

Gainera, sistema horren bitartez, ikaslea izango da liburuaren jabe, horrek dituen abantaila guztiekin, eta ez da liburuaren kultur balioa murriztuko.

**3.** Guztiok ados gaude liburu-denden sarea, kultura sustatuz eta herritarraren eta liburuaren arteko topagune bilakatuz, gure herriko kultur eragile nagusietakoa dela baieztatzerakoan.

Mailegutza sistemak hainbat eta hainbat herritar urrundu dituzte liburu-dendetatik, eta horrela denda horietako salmenten mailak nabarmen egingo du behera. Ondorioz, gure herrietako liburu-denda gehienek itxi egin beharko dute, kultur eta gizarte esparrua pobretuko da eta aldi berean salgune handiak irabazten aterako dira. Liburu-denden sarea ia guztiz desagertuko da, eta horrela liburuaren sektore osoan mailegutza sistemak eragingo duen krisia areagotu baino ez da egingo.

Zentzu horretan, mailegutza sistemak liburuaren sektorearen baitako gainerako eragileengan ere ondorio suntsigarriak izango dituela esan genezake. Argitaletxe eta banatzaileek dagoeneko talde argitaldari handien lehia pairatzen duten herri honetan, gure argitaletxeak ixtera behartuko dituzte neurri horrek. Gure gizartean eta kulturaren egoera horrek

izan ditzakeen ondorioek etorkizun kezkarria marrazten dute gure begien aurrean.

Euskal argitaletxeen egoera kritiko horrek euskal curriculumaren garapenari ere zuzenean eragingo dio. Euskal argitaletxeak ekonomiaren, pedagogiaren eta giza baliabideen ikuspegitik euskal curriculumaren ikasmaterial berriak sortzeko egiten ari diren inbertsioa nabarmen murriztuko da, konkurrentzia desagertuko da eta, jakina, curriculum material horien kalitatea zinez jaitsiko da. Euskal hezkuntzaren esparru osoak —guraso, irakasle zein ikasle— nozituko du galera hori. Horren guztiaren ondorioz, gure euskal argitaletxeen ikasmaterial horietatik ikuspuntu pedagogikoa desagertuko da, gure euskal hezkuntzaren errealitatea areago pobretuz.¶

[Xabier Eizagirrek euskaratua]

G A I A K



**89** BEGOÑA BILBAO  
GURUTZE EZKURDIA  
KARMELE PEREZ URRAZA  
Curriculum eta testuliburuetakoko edukia

# Curriculum eta testuliburu etako edukia

**BEGOÑA BILBAO**  
**GURUTZE EZKURDIA**  
**KARMELE PEREZ URRAZA**

Pedagogian doktoreak eta EHUko Irakasleen  
Unibertsitate Eskolako irakasleak

## Sarrera

Identitatearen eraikuntzan pertsonaren inguruak duen eragina handia dela onartu arren, curriculumak islatzen duen inguru horren ikuspegiak, eskolako edukietan islaturik eta zehazturik aurkitzen duguna, berebiziko garrantzia duelakoan gaude. Curriculum, bada, ez da eraikuntza neutroa, curriculumean islatutako ezagutza ezagutza berezia delako, hautatua, interes batzuen arabera hautatua, hain zuzen. Tesuinguru horretan eskola ezagutzaren banatzaile eta sortzaile gisa ulertzen dugu, eta bertan lantzen den curriculumaren bidez esanahi eta balio kulturalak eraikitzen dira ezagutza «objektibo»aren bidez, eta baita ezkutuko zenbait ezagutzei eta hautatzen eta irakasten ez direnei esker ere.

Gizartean garatzen garen neurrian gure identitate soziala eta kulturala inguruko talde eta erakundeetan eraikitzen dugu, hala nola familia eta eskola, beste batzuen artean. Ikerketa honetan hiru identitate mota desberdin ditugu, Castells-ek markatutako ildotik, pertsonaren identitate soziala eta kulturala definitzerakoan. Bata, egoera ofizialei lo-

turik dagoen identitatea da, guk hegemonikoa deitu duguna, eta Euskal Herriaren kasuan Estatu frantses eta espainolaren identitateetan gauzatua. Biga, erresistentzia kulturari lotutako identitateak dira, guretzat nazio etno-kulturalekin loturiko errealitateak, identitate soziokulturala deitu duguna. Eta hiru, identitate berriekin lotutako eraikuntza identitarioak, europar identitatea esaterako.

Gizarteko kontraesanak —klase gatazkena ez ezik, generoarena, arrazarena, etniarena, adinarena eta familiaren artekoak, baita nazio arazoak ere— hezkuntzan eta curriculumean islatzen dira. Horregatik diogu curriculumak identitateen arteko gatazka gune dela, zeinetan klase sozial bakoitzak, baita identitate nazionala ere, bere hegemonia ezartzen ahalegintzen den. Zentzu honetan, curriculumak kultura tresna da, «curriculum erakundetua» denez, eta curriculumaren «edukia» eraikuntza soziala izanik, ezinezkoa da botere harremanetatik at aztertzea.

## Testuliburuaren garrantzia irakaskuntzan

Ikastetxeetako ikasgelatan testuliburuak jarraitzen dute izaten ikasgelako material guztien arima edo muina. Batzuetan, irakaslearen zereginaren erreferentzia nagusia dira eta, beste batzuetan, haiek ardatz gisa hartuta, beste ikas-materialez baliatzen dira. Choppin-en (1992: 22) eskutik esaten dugu eskuliburuak, tresna pedagogikoa den neurrian, boterearen tresna gisa ere ulertu behar dela; eta eskolako eskuliburuaren historiografiak aditzera ematen duenez, aro historiko bakoitzak eskola-liburuan urratsen bat uzteko joera du, tokian tokiko hezkuntza helburuak biltzen dituen ideologia politiko edo sozialaren ispilu baitira.

Testuliburuak da, bestalde, gure gizartean, gure kulturaren, derrigorrez erabili behar dugun liburu bakarra (Cuenca eta Laborda 2000: 44), eta, horrez gain, testuliburuak da, sormen intelektualari dagokionez, Estatuak eta Autonomia Erkidegoek aldeztu aurretik kontrolatzen duten ia liburu bakarra



(Area 1999: 205). Praktikan, testuliburuaren edukien kontrola nahiko erlatiboa izan arren, esan behar da, testuliburuak merkaturatu baino lehen Administrazioek ikuskatu eta onetsi behar dituztenez, Administrazioak bermatzen eta bereztat gordetzen duela curriculumaren kontrolaren zati bat, hain zuzen ere, testuliburuaren onespenezko prozesuaren bidez. Testuliburuaren agertzea onartzen dena da, azken finean, irakasleei irakasteko aurkezten zaiena, eta, era berean, ikasleek ikasi behar duten curriculumarekin ere bada. Apple-ren (1989: 93) esanetan, testuliburuaren egin, diseinatu edo sortzen dutenak izango dira eragile eragingarriak ikasleak jasotzen duen irakaskuntzari begira. Testuliburuaren argitartzeak izango dira, beraz, curriculum ofiziala interpretatu, birdefinitu, helburuak eta edukiak hautatuko dituztenak eta irakasleek ikasgelan garatzeko prozedura eta estrategiak ezarriko dituztenak. Modu honetan, eta legalki, Estatuak argitartzearekin izugarritzeko boterea ematen die ikastetxetako languei den curriculumaren finkapenean.

- *Ikaslea eta testuliburuaren*

Irakasle gutxi jar ditzakete zalantzan testuliburuaren onura didaktikoak: eskuragarritasuna (behin eta berriro erabil daiteke, ikaslearen erritmora moldatzen delako); efikazia (irakurtzetik entzutetik baino ulermen azkarragoa lortzen baita); abstrakzio bidea errazten duen beste baliabide didaktikoekin konparatuz gero; irakaskuntza-ikaskuntzarako funtsezkoak diren esperientziak ahalbidetzen ditu (berehalakotasuna, ereduagarritasuna eta abstrakzioa). Baina testuliburuaren tresna didaktikoa izateaz gain tresna ideologikoa ere bada.

Edukien aukeraketak, adierazteko erak, haien kalitateak eta esanahiak badira izaki baten mundu-ikuskeran eragina duten faktoreak. Faktore horiek mugatuko dute, bestalde, izaki horren mundua, hau da, nola ikusiko duen eta nola sentituko duen errealitate hori. Testuliburuaren edukia bartzuk agertuz eta beste bartzuk aipatu gabe utziz, ideologia transmititzen da. Therborne-ren (1987) iritzia jarraituz,

ideologiak honako bi funtzio hauek izango lituzke testuliburu-  
 ruetan: batetik, ezagutza eratzea, eta, bestetik, pertsonak  
 esanguratsuki bizi eta eraikitzen dituzten errealitateak, ame-  
 tsak, nahiak eta helburuak modelatzea. Hori guztia hiru  
 modu hauetan egiten da: 1) dena eta ez dena finkatuz (zer  
 garen, non gauden, eta abar); 2) zer den ona, zuzena, justua,  
 polita, atsegina eta aurkakoak mugatuz (gure nahiak eta  
 helburuak normalizatzen dituelarik); eta, 3) izan daitekeena  
 eta ezinezkoa finkatuz, gure itxaropenak, irrikak eta helbu-  
 ruak mugatzen dituelarik. Horrela, testuliburuak direla me-  
 dio, iragana ezagutzen da, oraingo «bat» komunikatzen da  
 eta etorkizunaren esperantza eraikitzen.

• *Irakaslea eta testuliburua*

Testuliburuaren eragina irakasleriarengana ere ailegaten  
 da. Zabalzak (1996: 86) dioen moduan, «ikasgelako edo es-  
 kolako plangintza bitartekarien bidez egiten da», hots, tes-  
 tuliburuak, material komertzialak, curriculum-gidak, ikas-  
 taroak, aldizkariak, eta esperientzia bikarioak (beste bati en-  
 tzundako kasuak edo irakurritakoak) dira modurik erabi-  
 lienak. Beraz, irakaskuntza diseinatzerakoan, irakasleak ez  
 dira beren ezagutza teorikotik hasten, ezta inprobisatzen  
 ere, baizik eta era askotako material didaktikoek eskaintzen  
 duten programazio-bozeto bat erabiltzen dute. Askotan ger-  
 tatzen da testuliburuak —eta honi eransten zaizkion ikasleen-  
 tzako ariketa-koadernotxoek— dakarten jakintza-bilduma  
 irakatsi beharreko jakintza guztia bilakatzen dela, eta hortik  
 kanpoko beste jakintzak baztertuak edo landu gabe geldit-  
 zten direla. Torres-ek diosku (1994: 177-181) testuliburu-  
 erabilerak deskualifikazio profesionala dakarrela, eta horre-  
 la azaltzen du prozesu hori: irakasleriak testuliburu-  
 etan behin eta berriro agertu den errealitatea bakartzat hartzen  
 du, eta beste errealiterik egon litekeela pentsarazteko bere  
 buruari mugak jartzen dizkio. Curriculum horiek bakarrak  
 dira eta, aldi berean, egin daitezkeen bakarrak izan ere. Mo-  
 du honetan, testuliburu-  
 egileak eta adituen (teknokraten)

hitza eta jakituria jakintza-iturri bakartzat hartzen ditu irakasleriak, bere hezkuntza-ahalmenak eta bere protagonismoa albo batera geratuz.

• *Argitaletxeak eta testuliburua*

Argitaletxeek —gizarteko beste esparruetan gertatu den bezalaxe—, testuliburuak egoera edo erreforma berrietara berehala moldatzen dituzte. Hezkuntza-erreformek irakaslerian sortzen duten ziurtasun eza edo urduritasuna nahiko arrazoi da irakasle hori liburu erosle sutsu bihurtzeko. Gure herriko eskoletan erabiltzen diren testuliburu asko eta asko horrela sartu zaizkigu, irakaskuntzaren egunerokotasunari aurre eginez. Ikasgeletako praktikan, horregatik, gertatzen dena da irakaslea elementu pasibo bihurtzen dela, eta ikasleen ikasmailara egokitzeke asmoz ordezkapen didaktikoak egin arren, irakasleak material horri ukipen afektiboa baino ez dio ematen transposizio didaktiko horretan, beste guztia egina baitatorkio. Horrela ikusten da testuliburuak ikasgeletan baztertuak daudela —irakasle batzuen erabilera kontzienteagatik aurkako joera hartzen baita—, ala, gehienetan, inkontzienteki, ezagutzaren gidari sutsu bihurtzen direla.

Argitaletxeek antolatzen dituzte legerian ezarritako gutxieneko lorpenak, eta zabalik dagoen curriculuma itxi egiten dute. Gure inguruko eskoletako hezkuntza-praktikari begiratzeak erakusten digunez gero, testuliburua da oinarrizko heziketa orokorreko curriculum ofiziala gauzatzeko tresnarik eraginkorrena. Testuliburuetan islatzen baita eskoletan lantzen den ia curriculum oro. Baina, testuliburuaren erabilerak ikasgelan betetzen duen esparru sinbolikoa gaindituz hezkuntza-sistema osora zabaltzen da (Perez 2003). Lehen esan bezala, testuliburuak ikaslearen nortasun soziala eraikitzeaz batera irakasleriaren jarrera moldatzen du. Martínez Bonafé-k (1992: 8) honako aipuan goraiatzen duenez:

eskolaldiaren zati handi bat baliabide —testuliburua— berezitu baten bidez edo haren inguruaz igarotzen da. Irakas-

leriaren lanaren zati handi bat —plangintza, garapena eta ebaluaketa— testuliburuaren bidez eta testuliburuaren inguruan egiten da. Argitaletxeek urtero ehundaka euro gastatzen dituzte liburuak argitaratzen. Eta, azkenik, testuliburuetako ikasgai-ordenari begira, familiek ikasturteko edozein alditan ezagut dezakete bere seme-alabei zer irakasten zaien.


Horrela gauzatzen da irakaskuntzaren kontrolaren zikloa, testuliburuaren erabilera dela medio, hain zuzen.

Testuliburua tresna arrunta da eskoletan, baina ez aseptikoa. Beharrezkoa da, horregatik, sakonki aztertzea testuliburuaren bitartez zein eredu, zer eduki, zer gizarte, zer kultura, zer ikasle, zer irakasle, zer irakastera... ekoiztu eta helarazi ohi diren.

## Testuliburuetako edukia eta testuingurua

XIX. mendean sortzen dira hezkuntza-sistema estatalak. Testuliburuetako edukiak ez dira beti berdinak izan eta ez dira beti berdindu. Edukia kokatzeko, lekutzeko, erabili izan diren erreferenteak ere aldatuz joan dira. Edukia nola eta non zehazten den aukera garrantzizkoa da informazioaren nolaketasunari begira, edukiaren oinarritzko ardatza hautatzeko orduan ez baita gauza bera aukera bat edo bestea izatea oinarria.

1. grafikoa. Edukien erreferentziak




Mendeen zehar testuinguru bakoitzari garrantzi desberdina eman zaiola jakinik, egun eskoletan darabiltzagun testuliburuetan, Euskal Herriari lotuta jorratzen diren edukiak %19 baino ez dira, hau da, edukia Euskal Herriari dagokio kasu hauetan.

Argi ikus daiteke Euskal Herria ez dela erreferentzia nagusia, edukiak lekutzeko bestelako testuinguru batzuk erabiltzen direla. Sei aukera dira guk mugatu ditugunak edukia testuinguratzeko: soziokulturala, juridikoa, nahasia, kanpoko herria, estatala eta zehaztu gabea.

Edukia Euskal Herrian kokatua ager daiteke, edo estatua-  
rekiko erreferentzian edo munduko beste herriren bateko mugetan kokaturik. XX. mendearen azken urteetan testuinguru berriak erabiltzen dira —estatuaren antolaketaren ondorioz beharbada—, gerora garrantzi handia hartuko dutenak. Euskal Herriko Hegoaldeko egoera da hori, EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoko testuliburuetan agertzen baitira testuinguru juridikoa izendatu duguna eta berarekin batera datorren testuinguru nahasia.

Kontua da erreferentzia horren maiztasuna txikia dela gai-nontzuekin alderatuz gero; hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, desoreka handia dago erreferentzia batetik bestera.

2. grafikoa. Testuinguru bakoitzaren maiztasuna



Grafikoan ikus daiteke Euskal Herriko Hegoaldeko —Espainiaren menpekoa— zein Iparraldeko —Frantziaren menpekoa— testuliburuetao edukiek estatuarekiko lotura handia agertzen dutela, oro har, %34ra heltzen baitira. Antolamendu juridikoaren ispilu direnak %31ra heltzen dira, eta berari lotuta dagoen ikuspegi nahasian edukien %13 dira. Azkenengo lekuan kanpoko herriekiko lotura duten edukiak datoz, %3ra ozta-ozta iritsiz.

Hego Euskal Herriaren kasuan, LOGSE legea indarrean jarri denetik hona, argitaletxeen testuliburuaren ekoizpen berrietan Euskal Herriari loturiko edukia gero eta murriztagoa da, *Ingurunearen Ezaguera* deritzan arloari dagokionez, behintzat.

Egun, LOGSE legea oraindik indarrean dagoela, ez dago motiborik beherakada kualitatibo hori gerta dadin, ezen curriculumaren edukia ez baita aldatu. Horregatik, beldur gara azken erraldiko testuliburu horiek ez ote diren LOE legeari begira jarriak. Oraindik ez dakigu LOE legetik eratorritako curriculumuma nola gauzatuko den gure herrian, baina aurreratu dena da berriro diziplinak —ezagutzen ditugun geografia, historia...— erabiliko direla curriculumaren antolaketan.

Bestalde, orain arte izendaturiko «oinarrizko gutxieneko irakaspenak» hemendik aurrera «irakaspen komunak» deituko direla zabaldu da. Horiek, hezkuntza transferiturik dagoen Autonomietan, ordutegiaren %55eko arreta izango dute, nahitaez —LOGSEren kasuan ez bezala, lege horretan %55 gehienez zen eta—.

Aipatu dugun moduan, Euskal Herriari lotutako edukiak gero eta gutxiago dira, eta hori era guztietako edukiakin gertatzen dela ikusi dugu, euskara bera ere, Euskal Herrikoa bari, EAEko hizkuntza moduan azalduta agertu daiteke eta. Hurrengo irudietan —Bruño argitaletxearenak biak— ikus daitekeen moduan, euskara modu guztiz desberdinean kokatzen da testuliburueta, batzuetan bere lurralde historikoari lotuago, beste batzuetan lurralde politikoaren erreferentzian.



Ikasleak jasoko duen informazioak oinarri desberdina dauka: batean, euskara estatuko hizkuntzen artean kokatzen da, eta bestean Euskal Herriko hizkuntza da. Beste kasu askotan, euskara EAEko hizkuntza dela azaltzen da, beti estatuko muga eta antolaketa baren barruan. Testuliburu etako edukietan euskarak berak ere galdu egin du erreferentzia

soziokulturala, estatuaren edo autonomiaren mesedetan. Azken batean, joera ezaguna da euskara eta bestelako ezaugarriak lekutzerakoan estatuaren antolaketa juridikoan oinarritzekoa. Horren guztiaren ondorioz, Euskal Herria ente soziokulturala izan baden arren, saihestu egiten da.

Oro har, euskal kultura zer den azaltzeko erabiltzen diren aldagaien artean goranzko balioak paisaia, kirolak, jaiak eta gastronomia dira. Ostera, beheranzkoak euskara, mitologia, pertsonaiak eta musika eta dantzak dira. Euskal Herriaren ikuspegi turistikoa, folklorikoa agertzen dute testuliburuek, nortasunari eta identitateari lotuen dauden ezaugarriei presentzia txikia emanez. Baina azpimarratzeko dela uste dugu Euskal Herria edo EAEko erreferentzietan paisaia dela gehien erakusten den edukia, mapak bigarren tokian —%1,5 baino ez— geratzen diren bitartean. Hurrengo irudia Erein argitaletxearen *Ingurunea* liburukoa da, 51. orrian datorrena; bertan, Euskal Herria osorik agertzeaz gain, lurralde historiko guztien berri ematen da, bakoitzaren mugak eta hiriburuak erakutsiz.



Estatuarekin, ordea —kanpoko herrieekin batera—, gehien lotzen den edukia mapetan dator. Kasu horretan —estatu-




reanean—, paisaiak ez dira eduki garrantzitsuenen artean agertzen.

Gainontzeko ezaugarrien —izaerarekin lotuagoak— garapena alderantziz proportzionala da, paisaiak gora egiten duen bitartean hauek behera egiten dutelako. Itxurari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio, izaerarekin lotutako ezaugarriak gero eta gutxiagotan aipatzen diren bitartean.

Horrez gain, eduki horiei ematen zaien erreferentzia aldaturaz joan dela ikusi dugu, euskara eta euskal kultura ez dira beti Euskal Herriarekin lotzen. Hurrengo grafikoak adierazten du gertaera hori.

3 .grafikoa. Euskal kulturaren testuingurua



Ikus daitekeen moduan, Euskal kultura %32an lekutzen da Euskal Herrian, gehienetan EAE edo estatuaren erreferentzian lantzen baita. Euskal kultura estatuako kulturen artean kokatuta agertzen da, edo, %41ean, estatuaren antolaketa autonomikoaren erreferentzian jorrotzen da.

Euskal Herria oinarri duen testuinguru soziokulturalak XX. mende hasieratik amaierara atzerantz egin du etengabe, erdira etorritz. Euskara eta euskal kultura Erkidegoko mugetan geratzen da testuliburuetakako edukietan. Hala irakasten zaie gazteei, eta azkenean Euskal Herria eta Erkidegoa gauza bera direla pentsatzera ere hel daitezke, denona den euskara —eta beste ezaugarri guztiak— EAeko ezaugarritzat hartzen baita.

Artean aipatu ditugun paisaiak ere, lekuak erakusteko erabiltzen direnak, modu horretan agertzen dira askotan, Euskal Herria aipatuz testu idatzian eta EAE ikonoan. Hona hemen adibidea, Anaya argitaletxearen *Ingurunearen Ezaguer*a 5, 150. orrikoa.

### Hiri-eraketa: hiriak

Gaur egun, Euskal Herriko jenderik gehiena hirietan bizi da. Hiri-populazioa da. Hiri hauek itsasaldean daude eta barnealdean. Gestoiz adibidez.

Euskal Herriko hiririk handienak Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo eta Gernika dira. Bost hiri hauek ino euskal biztanleriaren erdia bizi da.

Donostia da Euskal Herriko, turismoari dagokionez, hiririk ezarritena. Apurto eta Urquill mendien Euzkaleko helea ezartzen du. Gasteiz eta Osakertza konderria ihargaririkik baxoa.



Bilbo da biztanleririk handiena duen hiria (369.535). Nerbioi ibaiaren iberrietas alago. Euskal Herriko judaizariaren eta/edo beste hiri nagusirikak ber deitende.

Gestoiz: Euskal Herriko Antzerki Eskolaren administrazio-hiriburu da. Honek dira Euzko Jaurlaritzaren eta Lehenaharia.

 Aurkitu Euskal Herriko mapa batean populaziorik handieneko hiriak. Non biltzen da jenderik gehien? Zergatik ote da?


EAE eta Euskal Herria, biak agertu arren, ez da argi gertzen kontzeptu desberdinak direnik. Egoera hori sarriegitan aurkitu dugun arren, horren atzean arrazoi desberdinak estaltzen direla pentsatzen dugu, batzuetan ideologikoak, pentsamendu desberdinak islatzen direlako, eta, beste batzuetan, itzulpenaren ondorio izan daitezkeenak.

## Testuliburuetao edukia hizkuntzaren arabera

Hizkuntza bakoitzeko —euskara, gaztelania, frantsesa— testuliburuaren artean badira desberdintasunak edukia kokatzeko joeretan. Argi ikus daiteke frantsesez estatalak direla; euskarazkoek darabilte, aldiz, oinarri soziokultural handiena.

Edukiaren erreferentzia hizkuntzaka begiraturuz gero, frantsesez idatzitako liburuek edukia estatuarekin lotuta jorrazten dutela ikus daiteke. Ez dago aipatu beharrik —begi bistan dago eta— liburu horietan, eduki gehienak testuinguru estatalari lotuta jorratzean, ez dela erabiltzen erreferentzia soziokulturalik.

4. grafikoa. Edukiaren testuingurua hizkuntzaka



Gaztelaniaz ere, Euskal Herria ez diren bestelako testuinguruak nagusi direla erakusten du grafikoa. Estatu edo berarekin lotuta dauden erreferentziak —antolaketa autonomikoarekin lotzen direnak— dira testuliburuetao gehien erabiltzen direnak.

Frantsesez edo gaztelaniaz argitaratzen diren testuliburuetan, oinarri estatala euskaraz argitaratutakoetan baino handiagoa da —modu nabarmenean—.

Euskaraz plazaratzen diren testuliburuetan erabiltzen da gehien oinarri soziokulturala, edukia Euskal Herriarekin lotzen duena. Hala ere, euskarazko testuliburuetan, erdiz erdi dira oinarri soziokulturala darabiltenak eta erreferentzia estatala, juridikoa eta nahasia dutenak. Munduko leku desberdinetako ezagutzak lantzen direnez, kanpoko herriei ere gaztelaniaz eta frantsesez baino toki handiagoa ematen zaie.

Aipagarria da euskarazkoetan testuinguru nahasiaren presentzia gaztelaniazkoetan dagoenaren bikoitza dela. Nagusitasun horrek sorburu bat baino gehiago izan ditzakeela pentsatu arren, gure ustean badira garrantzizko eragina dutenak. Batetik, gaztelaniaz *País Vasco* dena *Euskal Herria* euskaratzen da eta, inoiz esanahi bera izan badute ere, egun —kontzeptualki— *País Vasco* EA Erekin identifikatzen da.

Edozelan ere, hurrengo orrialdeko irudiak —Anaya, 147. orria— sarritan aurkitu dugun egoera hori adierazten du: EA Eko mapa da baina testu idatzian Euskal Herriko populazioa aipatzen da, azkenean Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa Euskal Herria bailiran agertzeko.

Baina hizkuntzaren arabera diferentzia horiez gain, liburuen argitalpen tokiari jartzen badiogu arreta, orain arteko interpretazioari eutsi beharrean aurkituko gara, esandako joerak erabat areagotzen dira eta. Testuinguru bakoitzaren garapena ez da berdina Euskal Herrian sortzen diren testuliburuetan eta Euskal Herrikan kanpo ekoizten direnentan. Azken hauetan edukiak estatuan eta erkidegoan zehazten dira, baina Euskal Herrian sortutakoetan oinarri soziokulturala adierazgarria da.

## Testuliburuaren argitalpen tokiari dagokionean

Argitalpen tokiaz hausnartzera bagatoz, erraz ohartuko gara toki hori aldatuz joan dela mendean zehar.

### Euskal populazioaren banaketa



1. Begiratu arretsez euskal populazioaren banaketaren mapari. Zein aldean biltzen da populazioa? Zein da populazio edukiaren karrizale historikoa?
2. Non dago zure herri edo hiri? Itzualdean ala barrualdean dago? Jakin ezazu zerbitz bitartek dituen.

147

Populazioa era desberdinean banatzen da lurraldean zehar. Pertsona batzuk etse bakarretan bizi dira, baina gehienak elkarren ondoan etse-aldiztetan bizi da. Pertsonak lurraldea era batera edo bestera banatzen dute; herri, **herri-eraketa** deritzogu.

Pertsonak etse bakarretan edo 2.000 biztanlerik beharako herrietan bizi gero, **baserri-eraketa** deritzogu. 10.000 biztanlerik gorakoak **hiri-eraketa**, eta 2.000tik 10.000 arteko eraketari **erdi-hiritarra**.


Euskal Herrian, populazioa, Bizkaiko eta Gipuzkoako itsasaldean eta horatik zabalmenetan eta herrietan biltzen da. Klima atsegina dute, komunikabide onak eta hazten datude industriarik garrantzitsuenak.

Arabian badago kutsatze oharrena darama eta herrietan kokatzen da bere hiritarra. Hegoaldean ez dago klima lehorragoa da eta uda eta neguraren arteko tenperaturak alde handiagoa dute.

Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak gero eta guxtiago direla ikusi dugu. XX. mendearen hasieran testuliburu gehienak hemen argitaratzen ziren arren, oraintxe gutxi dira Euskal Herrian ekoiztutakoak. Euskarazko irakaskuntzan erabiltzen diren testuliburuak oinarriztat erabili ditugula gogora ekarriz, hurrengo grafikoan XX. mendearen amaiera eta XXI. mende hasierako egoera jasotzen da, sasoi

hori baita —Euskal Herriko Hegoaldean— 1990ean hezkuntza sistema arautu zuen LOGSE delakoaren eraginpeko aldia. Curriculumaren aldaketa aginduta dagoen arren, ez da oraindik gauzatu. Hurrengo grafikoan testuliburu argitalpen lekuak adierazi ditugu; hor ikus daiteke euskarazko irakaskuntzan darabiltzagunak kanpoan ekoiztutakoak direla, Madrilen, Bartzelonan eta Zaragozan. Leku horietan argitaratzen dira euskaraz ekoizten diren testuliburu gehienak, %61 zenbaki zehatzetan.

5. grafikoa. Testuliburu argitalpen tokiak



Euskal Herriko eskoletan darabiltzagun testuliburuak kanpotik datozela aipatu behar dugu. Madrilen prestatutakoak dira %38, gehienak, Bartzelonan osotutakoak %18ra heltzen dira, eta Zaragozan %8.

Santillana, Edebé, Vicens-Vives, SM edo Anaya dira toki horietan argitaratzen dutenak; ez euskaraz bakarrik, gaztelaniaz ere argitaratzen dute, askotan gaztelaniaz sortutakoa izaten da itzuli edo/eta moldatuko dutena.

Bilbon, Donostian, Donibane Lohizunen edo Nafarroan ekoizten direnak %39ra baino ez dira heltzen. Kanpotik datozenak, beraz, %61 dira eta hemengoak %39an geratzen dira.


Ondorioz hauxe baieztatu dezakegu: Euskal Herriko eskoletan irakasteko baliabide nagusia den testuliburu Euskal Herrikan kanpo egin da, kanpoan osotzen dira.

Gauzak horrela, ez da ulergaitza edukiaren testuinguratze-ko modua desberdina izatea. Izan ere, hemen edo kanpoan ekoizten den liburuan testuingurua desberdina da.

Oro har, desberdinak dira hemen eta hemengo eskoletan sortutako testuliburuak eta argitaletxe handiek hemendik kanpo sortzen dituztenak. Batzuk hegemonikoagoak, besteak ingurune soziokulturalari lotuagoak. Izan ere, testuinguru soziokulturalaren presentzia handiagoa da Euskal Herrian ekoiztutako liburuetan kanpokoetan baino. XX. mendean zehar lotura horiek ez dira berdinak izan, mendearen hasieran hemen sortzen eta argitaratzen ziren testuliburuak. Jakina da *Xabiartxo* eta *Umearen laguna* Tolosako Lopez Mendizabalek sortu eta argitaratuak direla, edo *Txomin ikasle* Eusko argitaletxeak Zarautzen ekoiztua. Baionan Eskual Herria argitaletxeak kaleratu zuen *Battita eta Mariaño* 1952an.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke sasoi horretako testuliburu guztiak Euskal Herrian argitaratuta daudela, dela Gasteizen, Bilbon, Donostian, Tolosan, Zarautzen edo Baionan.

6. grafikoa. Testuliburuaren argitalpen lekua  
XX. mendearen hasieran



Egoera desberdina azaltzen dute XX. mendearen hasieran —jakinik orduko curriculumak eta oraingoa ez direla pareko— argitaratzen ziren testuliburu horiek; Euskal Herrian eginak dira denak, hemen sortuak hemengo eskoletarako.

Euskaraz ekoiztutako testuliburu guztien egileak euskaldunak ziren, eta euskaraz idazten zuten, Bernardo Estornesen kasua salbuespen, *Sabin Euskalduna* liburua Agustin Zumalabek gainbegiratu eta itzuli baitzuen. Lopez Mendizabal, Permin Iturriotz, Gabirel Jauregi, Itziar Muñoa, Jose Ramon Forurua zein Iñaki Goikoetxea egile euskaldunak eta euskaltzaleak ziren. Egileak ez eze irudigileak ere hemengoak ziren eta hemengo argitaletxeetan agertzen; liburua oso osorik ekoizten zen hemen, hasieratik amaierara. Orduko testugintzak helburu argia zuen: eskola umeei bere hizkuntzaren gramatika, bere herriaren geografia, historia, kristau dotrina, aritmetika, fisika zein kimikaren oinarriak nazionalismoaren ikuspegitik euskaraz eskaintzea, ideologia abertzale horren bidez biharko euskaldunaren oinarria erai-ki zitekeelako.

Testuliburuaren erabilera auzian jarri den aldi honetan, alternatiba desberdinak bideratu beharrean aurkitzen gara. Horretarako, batera jo beharko dugu, bai era askotako baliabide didaktikoak erabiltzera, baita euskarri alternatiboak sortzera ere. Horrez gain, baliabide modernoak sortzera jo behar genuke, XX. mendearen hasieran Xabier Lopez Mendizabalek, Iturriotzek, Jauregik eta beste hainbatek egin zutenaren antzera. Garai hartan, Europan aurrelari ziren joera pedagogikoak eta pedagogoen ekarpen jakinak hartu ziren aintzat ikasmaterialak sortzerakoan. Gaur ere antzera jokatu beharko genuke bertan bertokoentzako materialak sor ditzagun.¶



## Bibliografía

- Apple, M. W. (1989): *Maestros y textos*, Paidós, Madril.
- Area Moreira, M. (1999): «Los materiales curriculares en los procesos de diseminación y desarrollo del curriculum», in J. M. Escudero (arg.): *Diseño, desarrollo e innovación del curriculum*, Síntesis Educación, Madril, 189-208.
- Bilbao Bilbao, Begoña (2002): *Kultura erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Bilbao Bilbao, Begoña; Ezkurdia Arteaga, Gurutze; Perez Urza, Karmele (2004): *Euskal Curriculum ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Castells, M. (1999): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Vol. II: El poder de la identidad*, Alianza Editorial, Madril.
- Choppin, A. (1992): *Les manuels scolaires. Historie et actualité*, Hachette Éducation, Paris.
- Cuenca, J. M.; Laborda, X. (2000): «Teun A. Van Dijk. Lingüística y realidad», *Cuadernos de Pedagogía* 292, 42-47.
- Ezkurdia Arteaga, Gurutze (2004): *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Martínez Bonafé, J. (1992): «Siete cuestiones y una propuesta», *Cuadernos de Pedagogía* 203, 8-13.
- Perez Urza, Karmele (2003): *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Therborn, G. (1987): *La ideología del poder y el poder de la ideología*, Siglo XXI, Madril.
- Torres Santomé, J. (1994): *Globalización e interdisciplinariedad: el curriculum integrado*, Morata, Madril.
- Zabalza, M. A. (1996): *Kurrikuluaren diseinu eta garapena*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.



**LITERATURA 111**

Exijentziak  
Etika eta estetika ariketak  
Gimnasia pixka bat, garuneko muskuluak ez  
uzkurtzeko  
Exijenteak izateko irakurlerik ez  
Mendeurrenak mendeurren  
Zer ger(t)atzen da?

**JON BENITO**

**TELEPOLIS 118**

.cat errealitatea da  
Pasaportetik hiztegiara  
Euskal Herrian, zer?

**PATXI GAZTELUMENDI**

## Exijentziak

Behingoagatik idazleari justizia egiten dion, idazlearen neurrira jartzen saiatzen den elkarrizketa bat egunkarian. Koldo Izagirre elkarrizketatu zuen Miel Anjel Elustondok *Berrian* (2006-02-19) eta irakurlearen galbahean geratzeko moduko urre pinporta asko utzi zituen elkarrizketak (liburuan gehiago!).

Nonbaitetik hasteko:

Nik esan dezakedana da esku artean neukan materialaren mailako ipuinak idazten saiatu naizela. Kontziente naiz exijentzia handiarekin idatzitako liburua dela. Ez diot barkatu nire buruari.

Exijentziari egiten dion aipamen horrengatik bakarrik ere mereziko zuen Miel Anjel Elustondok Koldo Izagirreri egin zion elkarrizketak.

Baina aipamen horrek bide ematen dit hainbat galdera lutzatzeko. Hitz egin nahi nuke, idaztearen abentura horretan, idazleak bere buruari ezartzen dion presioaz. Pertsona bakoitzaren muga psikikoak ezezagunak dira, eta horrengatik: noraino estutu behar du/ahal du bere burua idazle batek? Auto-exijentzia noraino eraman dezake/behar du? Mugaraino eraman behar du beti? Zenbat estutu behar du, zenbat bider?

Horrela Izagirrek bere lanarekikoak:

Nik ez dut idazten alde zurretik antolatutako eskema betetzeko. Obsesio bat daukat, mila zer pentsatu ematen dizkit, eta noizbait idazten hasten naiz. Ez dut apunterik erabiltzen ia. Baina gero lantzen dut aurretik egin ez dudana, sei eta zazpi bertsio idatziz.

*Eta ez ote daukazu, ontzearen ontzez, lana hondatzeko arriskua?*

Bai, arrisku hori ere badago. Kontuz ibili behar da oso.

Horregatik galdetzen nuen. Lana ere kaltetu dezakeelako, idazlearen osasun mentala ez ezik. Galdetuko du norbaitek: merezi du halako auto-exijentzia maila hain irakurle gutxi-rengana iristeko? Hain irakurle gutxi eta hain esker txarrekoengana iristeko?

Segi elkarrizketarekin. Momentu batean Miel Anjel Elustondok liburua idazteko hartutako lanaz galdetzen dio. Izagirrek erantzun:

Lan handia... Idaztea beti da lan handia, publikatzekotan. Irakurleari zor diozun errespetuagatik.

Hona iritsi nahi nuen. Nire kezka da, ez ote dioten elkarri errespetua galdu idazle eta irakurleek. Ez ote duten idazleek eta editoreek gehiegitan irakurlea inozotzat hartu. Ondorioz, ez ote den normala irakurleek liburuen aurrean duten mesfidantza (zenbat diru, zenbat denbora, zenbat arreta erre-kara!).

Noizko irakurlearen defendatzaile bat egunkarietan bezala literaturan?

Baina gustatu zaidan beste kontu bat, bere buruari bezala, irakurleari zuzendutako exigentzia inplizitua da. Eskatzen dio irakurtzeko denbora, eskatzen dio irakurleari arreta, eskatzen dio...

Miel Anjel Elustondok galde:

*Zure lanean erabat estutu dituzu hizkuntza eta literatura, erabat estutu gaituzu irakurleak...*

Izagirrek erantzun:

Nik ez dakit bestela idazten. Ez dakit Markos Zapiainek esan zuen afasiara iritsiko naizen, baina egia da nik ezin dudala -lako, bait-, zeren... idatzi. Txisteak esplikatzea iruditzen zait.

Ulertzen dut, baina ez dut ulertu nahi estutasun horretan deseroso aurkitzen den irakurlea. Horregatik iruditzen zait galdu diotela irakurleek errespetua liburuari, idazlearen lanari, literaturari. Irakurlearen errespetuagatik Izagirrek bere buruarekin exigentea eta zorrotza izan behar duen (beharko lukeen?) bezala, idazlearekiko errespetuagatik, ira-

kurleak ahalegina ere egin beharko lukeela iruditzen zait (merezi du!). Exijentea eta anbiziotsua izan behar luke. Baina libre da. Libre da irakurtzen jarraitzeko edo liburua uzteko eta beste bat hartzeko, edo gehiago inoiz libururik ez hartzeko. Ez dago ezertara behartua.

Baina erronka ederrak dira Izagirreraren liburuak. Irakurlearen konplizitatea bilatzen du keinuetan, elipsietan eta erreferentzietan. Eskatu egiten dio irakurleari. Irakurlea ez du inozotzat edota pasibotzat hartzen. Eta irakurlearen autoestima nabarmen puutzen du horrek.

Izagirrek elkarriketan aurrerago.

Aski da Al Pacinoren plano hurbil bat ikustea jakiteko gozatzten ari den, sufritzen, edo noraezean dabilen. Zergatik ez dugu hori literaturara aplikatzen? Zergatik gara hain bizkorak ikusian eta hain motelak irakurrian?

Zergatik? Exijentziak: eskatu egiten digu liburuak, guk liburuari bezala.

Izagirre irudikatzen dut ideiarene neurriko ipuinak idatzi nahian, eskuarekin axota heltzen baino, hatzez teklatua jotzen baino, ukabilekin burua estutzen.

## **Etika eta estetika ariketak**

Dena ez da esan behar erakusteko: «Nik hau erakutsi dizuet era honetan, baina ez dakizue ondo zenbat jende, zenbat gau diferente eta zenbat esateko modu dagoen!». Hori xe Izagirrek dioena, Jose Luis Otamendiren aburuz (ikus Izagirreraren elkarriketa osoari Otamendik idatzitako epilogoia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean). Idazleak ez duela dena esan behar, alegia. Idazleak sujeritu egiten duela, beste mundu bat sortzeko pizgarriak ematen dituela... gainontzekoak irakurleak jarri behar dituela bere zakutik. Idazleak emango dizkizu zubirako habeak, baina bete dezala porlanez zubia, lotu ditzala torlojuak norberak!

Literatura ez da istorio on bat bakarrik. Estiloa, etika, estetika oso bat dago liburu, narrazio, poema, nobela bakoi-

tzaren atzean. Eta hautua ez da kasuala. Otamendik jarraian:

Nik uste, izan zen Euskal Herri bat baino, izan ez zen Euskal Herri bat ageri zaigula *Sua nahi, Mr. Churchill?* honetan. Eta liburuan bederik badena, noski. Izan zitekeena, eta inon izatekotan, literaturan, lan artistikoan aterpe hartu beste aukerarik ez duen herri bat. Mundu honetarako muturrekoegia denez, garbigia eta ezinegia denez, utziguzue sikiera mundu hori paperean eta jendearen sentieran landatzen. Hori izan liteke gure aberri bakarra. Oinarri etiko ez autoritarioa, antidogmatikoa, meneragaitza. Humanoa. Farfaila handirik gabe —baina edertasun inoiz burzoragarriari muzinik egin gabe inoiz—, jendearen jende neurria begien aurrean jartzen diguna. Soilik axalez eginak ez gaudela erakusten duen literatura, mamira eta barrunbe beltzenetara ere jotzen dakiena eta munduaren ikuspegi aniztasunaren ostertza zabaltzen diguna.

Izagirre irudikatzen dut hitzekin mundu bat (mundu bat! Hori jainkoak bakarrik ahal zuen!) eraiki nahian. Uholdetik hitzak hautatzen (estetika!) farfailatik salbatzeko.

## Gimnasia pixka bat, garuneko muskuluak ez uzkuertzeko

Exijentziaz ari garela, Gotzon Egiak Xabier Olarrak itzuli zuen *Exercises de style (Estilo ariketak, Igela, 2006)* liburuaren aurkezpenean esandakoak:

Gertaera bakar horren bertsioak hizkuntza frantsesa behartzeko baliatu zituen Queneauk, eremu ezezagunetarako iritsi arte behartzeko «ariketa gimnastikoetan gorputza behartzen den moduan».

Estetika eta estiloa. Gertaera bat ia ehun modu ezberdinetan kontatzeko gai dela erakutsi zuen Queneauk. Jolastu egiten da Queneau, Ronaldinho baloiarekin *driblinga* egiten nola, gertaera bakar batekin eta hizkuntzarekin.

Jolasa, kirola, gimnasia da idaztea:

«Kirola» hitza ere estu lotua dago liburuarekin. Bi adieratan: antzinakoan eta gaurkoan. Jolasa baita alde batetik eta batez ere, baina baita norgehiagoka ere. Idazleak berak jartzen diz-

kio zailtasunak bere buruari, gero haiei gaina hartzen diela erakusteko. Ezarpen edo hertsapen literatura ere deitu izan zaio: Houdini haietako bat bezala jokatzuz, bere buruari alde guztietatik lokarriak eta kateak ezartzen dizkio Queneauk, eta, hala ere, libre geratzeko gauza dela erakusten du behin eta berriz.

Auto-exijentzia berriz ere: idazleak forman egon behar du idazteko. Neurria emateko. Irakurleak ere bai. Liburuak opari eta ahalegin estetikoak ere badirelako. Artefaktu estetikoak.

Olarra irudikatzen dut udako arratsalde beroan, Queneau-ren testuarekin boligrafoarekin *driblinge*an, erasora ez zihorean defentsan gogor, baloirik jokatu ezin zuenean: «falta!».

## Exijenteak izateko irakurlerik ez

Jesus Mari Lasagabasterrek *Berrian* (2006-03-08), egungo nobelagintzaz Juan Luis Zabala kazetariari:

Oso zaila da gaur egun euskal nobelagintza nondik nora doan esatea. Beste literatura batzuetan gertatzen dena gertatzen da euskal literaturan ere: era askotako egileak eta joerak daude. Bestalde, egileek ere ez dute erreferentzia horien beharrik beren ikuspegi literarioa sendotzeko. Dena den, oro har begiratuta nik uste dut kalitatearen aldetik euskarazko nobelagintza Espainiakoarekin edo Frantziakoarekin konparatzeko moduko mailan dagoela. Une honetan alderdirik ahulena harrerarena da, irakurlearena. Euskal literatura erabat modernizatuta dago eta beste edozein literaturarekin konpara daiteke, baina euskal literaturaren harrera edo irakurketa nahiko baldintzatuta dago: literatura eta eskola, literatura eta euskaraz ikastea. Idazketaren arloan ez bezala, harreraren arloan euskal literatura oraindik ere hizkuntzaren menpean dago, ez du autonomia lortu.

Literaturaren autonomiarik ez Autonomiarekin (hezkuntzarekiko morrontza trukean) eta kanporako zabalpenik ere ez. Pako Aristik (*Berria*, 2006-02-09) ozenago agian, garbiago ezin:

Izan ere, liburu bati bizitza ematen diona irakurlearen interesa da, eta hori ez du aurkitzen euskal liburuak itzulia denean. Eta gure itzulpenek izan duten porrotaren aurrean, orain ba-

dakigu gezurrezkoak direla erdaldunen desioak, «itzultzen zaituztenean irakurriko zaitut» diotenean. Interes eza estaltzeko amarru bat baino ez zen, erdeinua disimulatzeko modu edukatu bat guk irentsi egin duguna etengabe, geure burua, indarrak eta sosak itzulpenaren lan esker gara amilduz.

Espainiako atzerrian interesik ez: ikusezina delako da autonomia euskal literatura. Bestela girgilu asko ditu, beso eta hanketara lotuak. Irakurleen indiferentzia da giltzarrapo handienetako bat.

Euskal Herrian harrerarena bada literaturaren alderdirik ahulena Lasagabasterren ustez, eta kanpoan (Espainian eta beste atzerrietan) itzultzen dituztenean interesik erakusten ez badute, ze leku du euskal literaturak Euskal Herrian? Eta kanpoan noraino iristen da eta iritsi behar luke?

Literaturaren hedapenez kezkatuta Gotzon Barandiaran (*Berria*, 2006-03-07):

Uste dut idazleak erantzukizuna, ditxosozko konpromisoaren sinonimotzat hartu barik, izan behar duela bere obraren hedapenean argitaratzea erabakitzen duen heinean. [...] Idatzi eta argitaratzeaz gainera, herriz herri, institutuz institutu joan behar du idazleak liburuari buruzko azalpenak eman eta irakurleen zalantzak argitzera? Baietz uste dut. Baina ez liburu kulturaren hedapenerako formatu lez krisian dagoela edo gehiago saltzeko ezinbestekoa dela uste dudalako, idazlearen eta irakurlearen arteko hartu emanean sinesten dudalako eta gure txikitasunak aukera ematen digulako baino.

Idazleari idazterako orduan zorrotza izateko eskatzen ari gara gero. Irakurleei zorrotzak izateko eskatzen, irakurlerik ez dagoenean? (Idazle gehiago dago irakurle baino!?)

Izagirre sei-zazpi bider bere ipuinak fintzen irudikatzen dut. Bukatzean autoa hartu eta ikastolaz ikastola, bere lana «hedatzera».

## **Mendeurrenak mendeurren**

Apenas edo penaz irakurtzen diren idazleen mendeurrenak aurtzen. Felipe Arrese Beitia 1906ko urtarrilean hil zen. Aurtzen ehun urte. Andima Ibiñagabeitia jaio zela ehun ur-



te 1906ko urtarrilean. Jose Artetxe jaio zeneko mendeurrena martxoan. Plazido Mujika 1906ko apirilean jaio zen. Balendin Enbeita maiatzean. Iokin Zaitegi uztailean.

Ez dakit ospakizunok euren lana goraiatzeko eta berreskuratzeko aitzakia diren, edo buelta emanda, beste urte askotarako ahanztura justifikatzeko.

Nolabaiteko darwinismo literario batengatik ahaztu eta abandonatu ditugu? Denboraren zaharrak utzi ditu gure garai eta irakurketetatik kanpo? Ala bestelako arrazoiak ere badaude?

Lauaxeta arrazoi literarioengatik bakarrik berreskuratu zuten bere urteurrenean?

Benetan?

Izagirre eta Olarra irudikatzen ditut mende bete barru. Ahaztuak. Edo guk orain besteak gogoratzen ditugun bezala gogoratuak.

## Zer ger(t)atzen da?

E-mailez jaso:

Zer gertatzen da euskal literaturan? Gertatzen al da zer edo zer euskal literaturan? Zer gertatu beharko litzateke ba?

Galdera hobea duk hau: zer geratzen ari da euskal literaturan?

Izagirre irudikatzen dut bosgarren, seigarren aldiz testua fintzen, Xabier Olarra udako arratsalde beroetan *Exercises de style* itzultzen. Biak ala biak, gozatzen zoratzen. Paperaren beste aldean inor ez.¶



## .cat errealitatea da

2005eko irailean ICANN erakundeak lehenengo aldiz estatuturik gabeko nazio baten hizkuntza eta kultura bati eskainitako domeinu bat onartzen zuen: .cat. ICANN da nazioartean mundu osoko helbide eta domeinuak kudeatzen dituen erakundea. Berea da .org, .com, .net, .edu edota .es edo .fr domeinuak banatzeko ardura. Katalanek, hiztunek eta bere kulturak mundu mailan aritzeko domeinua erdiesteko bideak urrats handia egin zuen. Eta aurtan, otsailean, abian jarri dituzte domeinuok. Katalanez ari diren elkarte, enpresa, norbanako, instituzio eta abarrek .cat domeinuarekin emango dituzte ezagutzera beraien webgune eta e-posta helbideak. Nortasun osoarekin aritzen dira otsailaz geroztik sarean. Badira.

Berriki, aurtengo urtarrilean, *firstmonday.org* agerkarian, Peter Gerrand Australiako Melbourneko Unibertsitateko irakasle eta adituak «Cultural diversity in cyberspace: The Catalan campaign to win the new .cat top level domain» lana karrikaratu du. Bertan, .cat domeinua lortu bitartean katalanek eman dituzten pausoak eta egin dituzten harremenen berri damaigu oso modu interesgarrian. Lan hori burutzeko, lagun paregabea izan du Peter Gerrand irakasleak, Amadeu Abril i Abril abokatu eta irakaslea. Amadeu izan da, gainera, puntCAT elkarteko kideetako bat, ICANNeko kide urte askotan, eta .cat domeinua lortzeko izerdi eta lan asko egin duen gizona. Zuzenbidean lizentziatua, ESADEko Zuzenbide Fakultateko irakaslea da, urte askotan domeinuak erregistratzeko Nominalia enpresako lege aholkularia, eta egun ere enpresa horrentzat lan egiten du. Beraz, teknologia berri, lege eta identitate kontuetan aditua den pertso-

na bat ezinbesteko bilakatzen da horrelako lorpenen aurrean. Lehen irakaspena.

Amadeu Abril i Abrilek gogoratzen duenez, 1996an abiatu ziren Kataluniarentzat domeinua lortzeko bidean. Eta orduan, .ct —bi hizkidun domeinua— erdiestea zen helburua. Estatuak, nazioek bi hizkidun domeinuak dituzte (es, fr, de, uk, pt, eh... Espainia, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Palestina edo Saharako Errepublika hurrenez hurren). Urteen joan etorrian baina, Kataluniarentzako bi hizkidun domeinurik ez zuten lortu.

## Pasaportetik hiztegira

2001ean aldaketa eragin zuen domeinuaren aldeko ekimen honek. *Zer gara gu? Nazioa? Erregioa? Interneten interes komunitate bat gara, eta ororen gainetik, azken finean Interneten komunikaziorako medio garrantzitsuena hizkuntza idatzia da.* Nazio izaerari uko egin barik, katalanek urrats berri bat egin zuten. Beraien herria nazioartean aitortua ez bada ere, hizkuntza eta kultura aitortze bidean jarri zuten. Interneten mapek baino garrantzi handiagoa omen daukate hizkuntzek, beraz horri erreparatu zioten 2001etik aurrera. Eta orduan sortu zuten Associació puntCAT elkarte, 2001eko azaroaren 23an, [www.puntcat.org](http://www.puntcat.org) gunean. Horrela, pasaportearen eruditik hiztegiaren logikara jauzi egin zuten. Horretan, garrantzi berezia hartu zuen katalanaren hedadurak. Katalunian ez ezik, Andorran, Rousillonon, Valentzian, Italiako eremu batean ere berba egiten delako katalanez. Beraz, hizkuntzaren eremua herriaren eremua bera baino handiagoa izanik, .ct baino egokiagozat jo zuten .cat domeinuaren alde egitea. Eremu politikoari baino, hizkuntza eta kulturaren alorrari garrantzia emanek. Beste lezio bat.

Hamar milioi hitzun dituen hizkuntza batek, beraz, lor dezake domeinu propio bat Interneteko panoraman. Katalanek, nortasun arrazoiaz gain, hizkuntzaren inguruan eskolak, egunkariak, telebista kanalak, liburuak dituztela aipatu

zuten, eta Internetek ere garrantzi berezia hartzen duela nabarmendu zuten ICANN erakundearen aurrean. Interneten, norbere kultur aktibitate oro gehitzeko aukera eskaintzen dela gaineratu zuten.

Eta puntCAT elkarteak norbanakoek igorritako 68.000 sostengu mezu jaso zituen, katalanez jarduten diren bertako zein munduko 90 kultur elkarte batu zituen. Mugimendu elektroniko erraldoi bat (e-mugimendua) antolatu zuen sarean .cat domeinuaren alde, tartean webguneen diseinatzaileak, teknikariak, itzultzaileak, gobernu eta banketxeetako kide eta arduradunak besteak beste.

## Euskal Herrian, zer?

Katalunian emandako jauziak eragina du gugan, eta Euskal Herrian bezala, munduko kultura minorizatu, eremu urriko hizkuntza eta estaturik gabeko nazio eta herri askotan. Eta ICANN erakundeak ere kezka hori zeukan kataluniarrei .cat domeinua onartzean, galdera hori bera egin zuen Bruce Tonkin ICANNeko chair nagusiak:

One of the reason that many in the ICANN decision-making process were slow to approve the .cat proposal was because it was seen a precedent that may have encouraged the formation of a TLD for a minority group that may be associated with terrorism.

Alegia, .cat domeinu honek aurrekaria sortzen duela ehundaka hizkuntza txiki, zokoratu, zapaldu eta galtzear daudentzat, terrorismoarena aitzakia bezala hartuta. Abril i Abril katalanak azkar erantzun zion: *Horietako zenbat hizkuntza hitz egiten dira herri batean baino gehiago? Zenbat dira hizkuntza idatziak? Zenbatek dauka bost milioi hiztun?* Munduan, antza denez, hamabost bat hizkuntza dira bost milioi hiztunetik gora dituztenak.

Eta gure hizkuntza, euskara, txikia izanik ere, bost milioi hiztun ez dituen arren, ICANNen kriterioetatik asko betetzeko lain bada. Gaur egun, Interneteko tresna garrantzitsuenetan hizkuntza baliagarria da. Software garrantzitsue-

nak euskarara lokalizatzen ari dira, Google bezalako bilatzaileetan interfaze propioa dauka, milioika orri daude da goeneko euskaraz, komunitate bizi bat da. Hiztegiak, buletin ofizialak, egunkariak, telebista propioa, ikasmaterialak, irratiak, blogak topa daitezke Interneten euskaraz. Edozein programa eskuratzen duzula, gero eta ohikoagoa da eu edo basque berbak topatzea. Hori guztia, jende askoren auzolanari eta borondatezko lanari esker, itzultzaile, webmaster eta ekintzaileen lepora. Subentzio, elkarlan eta unean uneko apustuei jarraituta ere aurrera egin du gure hizkuntzak. Eta esan dezakegu une honetan Interneten munduko lehen 30 hizkuntzen artean kokatzen dela. Nahiz eta erabiltzaileen kopurua horren handia ez izan. Gure hizkuntza ere munduan zehar toki ezberdinetan berba egiten da; batetik, diasporak (AEB, Argentina, Txile...), eta, bestetik, Euskal Herria bi estatuen menpe egoteak ere, Frantzia eta Espainian mintzatzen delako, bereizgarri egiten dute gure hizkuntza.

Guk ere, Kataluniako adibideari so eginda, bagenuke gure domeinua eskuratzeko bidean ekiteko nahikoa motibo. Hizkuntzaren inguruan, komunikabideetan, Interneten, nazio, herri eta hizkuntz eskubideen aldeko elkarteetan aritzen direnak batu, eta gurean ere e-mugimendu bat antolatzeke unea heldu da. Gure herria, kultura eta hizkuntzaren alde, XXI. mende honetan egin dezakegun gauza garrantzitsua izango da. Nortasuna, identitatea Informazioaren Gizartean. Euskal Herri gisa agertzeko tenorean, gure bereizgarriarik aipatueneri, hizkuntzari, indarra eta hauspoa eskaini behar diogu Interneten. Izango bagara, beharrezko ditugu teknologia berriak eta bertan jarduteko tresna eta lanabes guztiak. Nazioartean ibiltzeko, pasaporte edo hiztegi, nortasun ikurrak behar ditugu. Ikurrinarekin herriz herri ibili baino, gure e-posta mezuetan .eus bereizgarriak erakutsiko du nor eta zer garen. Domeinua ez da matrikula bat, ez da pasaporte bat, gehiago da. Bizi garen seinale ere bada. Bagarela, alegia. Eta izan nahi badugu horretan jardun beharko gara. Garaiz gabiltza. Gogoan hartu: guk .eus.¶